

137/2007 FORU DEKRETUA, abenduaren 18koa, zeinaren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen baita eta Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrak garatzen dituen 1999ko abenduaren 21eko 117/99 Foru Dekretua aldatzen baita.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran zerrendatu egiten dira foru dekretuak onartutako erregelamenduaren jatorrizko zenbait artikulutan aldaketak sartu dituzten xedapenak.

HITZAURREA

Indarrean jarraitzen dute 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, jasotakoaren aurka ez doazen erregelamenduzko arauak, hala xedatzen baitu foru arau horrek, bertan azaldutako erregelamenduzko gaikuntzak erabiltzen ez diren bitartean. Horri dagokionez, aipatu foru arauak amaierako xedapenean Fiskalitaterako eta Finantzatarako diputatua, gaur egun Ogasuneko eta Finantzatarako, baimentzen du foru araua garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Eskurantzza hori erabilia, eta premia handiz, 2007ko urtarrilaren 9ko 2/07 Foru Dekretua onartu zen. Horren bidez, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, hainbat aldaketa egin dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko 2001eko abenduaren 18ko 68/01 Foru Dekretuak jasotako atxikipenei eta konturako sarrerei buruzko xedapenetan. Aldaketa horien oinarritzko asmoa zen, alde batetik, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean araututakoa, atxikipenen eta konturako sarrereren tasa jakin batzuk egokitzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen, Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen Legeen aldaketa partzialari buruzko 2006ko azaroaren 28ko 35/06 Legeak jasotako xedapenetara (legea berriki lurralde erkidean onartua zen, eta errenta jakin batzuen atxikipenaren eta konturako sarrereren tasak aldatu zituen). Bestetik, lan etekinen 2007ko atxikipen taula 10/2006 Foru Arauaren xedapenetara egokitzeko asmoz ere onartu ziren aldaketa haiek.

Dena den, 68/2001 Foru Dekretua aldatzean hartutako irtenbide iragankorra ez da nahikoa 10/2006 Foru Araua behar bezala garatzeko. Izan ere, garapen hori egokia izango bada, xedapen haren edukiak osorik berrikusi behar dira eta 10/2006 Foru Arauan egindako berrikuntzekin bat datozen eduki berriak sartu. Sartu beharreko aldaketen tamaina eta eragina direla eta, beharrezkoa da zergaren erregelamendu berri bat prestatuz erreforma egitea.

Erregelamendu berria prestatzean, ahal den neurrian errespetatu dira aurreko testuaren egitura eta edukiak, eta 10/2006 Foru Arauan jasotakoa kontuan hartuz

beharrezkoak ziren berrikuntzak sartu dira, hala nola langile tokialdatuen erregimen berezia, eta, era berean, gatazka sortu edo zergaren foru arau berriaren aurka doazen xedapenak kendu dira, hala nola ohiko etxebizitzaren erosketako kenkariaren erregulazioaren zati handi bat. Nolanahi ere, aldaketa puntualak egin dira, aurreko erregulazioa hobetzeko asmoz.

Foru dekretuak egitura hau du: artikulua bakarra, zergaren Erregelamendua onartzen duena; xedapen gehigarri bat, zergaren foru arauak 47.2 artikuluan jasotakoaren arabera 2008ko zergaldiko ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko aplikaziozkoak diren eguneratze koefizienteak onartzen dituena; bi xedapen indargabetzaile; eta, azkenik, amaierako lau xedapen.

Amaierako xedapenei dagokienez, lehendabizikoaren bidez abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretua aldatu da, hain zuzen informazioa Zerga Administrazioari emateko hainbat betebeharrak garatzen dituena; aldaketaren helburu nagusia da betebeharrak horiek zergaren foru arauak jasotako gizarte aurreikuspeneko produktu berriak (zehazki enpresen gizarte aurreikuspeneko planak, menpekotasun aseguruak eta aurrezpen sistematikoko banakako planak) merkaturatzen dituzten entitateei egozteak. Gainera, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzen gaineko eragiketei buruzko informazioa emateko betebeharrak aldatu da; Europar Batasunean helbideratutako pentsio fondoen ordezkariak informazioa emateko betebeharrak zehaztu da; eta, azkenik, beste informazio betebeharrak gehitu da 2007ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra doazen zergaldietarako, zergaren foru arauak hamazazpigarren xedapen iragankorren jasotako enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen kenkariari dagokienez. Amaierako beste xedapenei dagokienez, bigarrenean jasota geratu da erregelamenduan aurreikusitako xedapenak indarrean jartzea eta aplikatzea; hirugarrena, aldiz, araudi bidalketei buruzkoa da; eta, azkenik, laugarrenean Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio hemen onartzen den erregelamenduan jasotakoa garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzen.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua foru dekretu honen eranskin gisa doa, eta 133 artikulua ditu, honela sailkatuta: zazpi titulu, eta hainbat xedapen gehigarri eta iragankor.

Erregelamenduaren egituraren berrikuntza nagusia da titulu berria sartu izana, hain zuzen I. titulua, langile tokialdatuen erregimen berezia garatzen duena eta erregimen bereziaren edukia, iraupena eta gainerako aspektu mugatzaileak zehazten dituena.

Begi-bistako berrikuntzekin batera, merezi du errenta salbuetsiei buruzko beste hauek aipatzea: lurralde mailako herri administrazioek emandako laguntza publikoen salbuespenei buruzko artikulua sartu da, alegia 12/2006 Foru Araua onartu bitartean Errenta Zergaren 8/1998 Foru Arauan jasota zegoen xedapena; hainbat baldintza betetzeko exijentzia ezarri da, goi mailako kirolarientzako laguntzen kasuan; eta salbuetsitako zenbatekoa zehazteko erregelak jarri dira, urtearen zati batean atzerrian egindako lanengatik jaso diren lan etekinen kasuan.

Lan etekinei dagokienez, joan-etorriko, mantenuko eta egonaldiko gastuetarako dieta eta asignazioen zenbatekoak eguneratu dira, bai eta biderkatzailearena ere, integrazio zenbatekoak zein mugaren gainean aplikatu daitezkeen zehazteko, akzioen gainean aukera egiteko eskubideak erabiltzen direnean. 2008ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean joan-etorriko, mantenuko eta egonaldiko gastuetarako dieta eta asignazioen zenbatekoaren eguneratzea.

Jarduera ekonomikoen etekinen kasuan errenta zehazteari dagokionez, erregelamenduzko xedapenak 10/2006 Foru Arauan jasotako erregulazio berrira egokitu dira. Zentzu horretan, zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuaren prozedura sektorialarekin lotutako xedapenak desagertu dira. Era berean, modalitate erraztu hori aukeratzen duten zergadunentzat erregela orokor batzuk finkatu dira; gainera, etekin garbia zehazteko erregela bereziak ezarri dira basogintzari lotutako jardueretarako, hain zuzen prozedura sektorial indargabetuaren baliokideak direnak. Dena den, ez da erregela berezirik aurreikusi errepide bidezko merkantzia garraioaren jarduerarako.

Kapital higiezinaren etekinei dagokienez, bereziki aipatzekoa da etxebizitzetatik eratorritako kapital higiezinaren etekinen artean sartu izana etxebizitza hutsaren programara biltzen direnean edo Sozietateen gaineko Zergaren araudiak jasotako etxebizitza errentamenduan aritzen diren entitateen erregimen berezira bildutako sozietateei etxebizitzak laga edo alokatzen dizkietenean.

Kapital higikorren etekinei dagokienez, erregulazioa egokitu egin da, bi urtetik gorako sortzealdia duten edo denboran era irregular nabarmenean eskuratu diren etekinak lortzeagatik aurrezkiaren oinarri ezargarria osatzen duten etekinei murrizpena ez aplikatzearen ondorioz.

Ondare irabazi eta galerei dagokienez, ohiko etxebizitzatzat har daiteke saltzeko momentuan hartarako baldintzak betetzen dituena edo salmenta dataren aurreko bi urteetako edozein egunera arte halakotzat hartu dena, 65 urtetik gorakoek edo menpekotasun ertain edo handiko pertsonak ohiko etxebizitza saltzearen kenkaria aplikatu dezaten eta ohiko etxebizitzan berrinbertitzea salbuetsi dadin. Horrela, zergadunari bide ematen zaio etxebizitza horretan bizitzeari uzteko, eta epe luzeagoa ematen zaio etxebizitza saltzeko, hori dela-eta salbuespenaren ondorioetarako ohiko etxebizitzatzat hartzeko aukera galdu gabe.

Lan etekintzat hartzen ez diren gauza bidezko prestazioei dagokienez, bi artikulua sartu dira, enpresetako jantokien kasuan zenbatekoa eguneratzeaz gain, langileak teknologia berrietan ohitzeko erabilitako diru kopuruen kasuak eta heriotza edo elbarritasun arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboko primen kasuak arautze aldera. Dena den, 2008ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean enpresako jantokien zenbatekoaren eguneratzea.

Oinarri likidagarri orokorrean, nabarmentzekoa dira: aurreikuspen plan aseguratuen hornikuntza matematikoaren mobilizazio prozedura berria sartu izana, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko dena; gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuk mobilizatzeko aukerak eman izana; eta, azkenik, muga fiskalak gainditzeagatik murriztu ez diren gizarte aurreikuspeneko sistemen soberakinak aplikatzeko mekanika argitu izana.

Kenkariari dagokienez, aldiz, nabarmentzekoa da mendekotasun kenkaria mendeko egoeraren balorazioei buruzko araudi berrira egokitu izana, eta Sakontzen eskalaren arabera mendekotzat hartutako pertsonen zerga desgrabazioa aitortu izana pertsona horiek mendekotasunaren balorazio baremo berriaren arabera halakotzat hartzen ez direnean. Orobat, bereziki aipatzekoa da etxebizitzaren erosketako kenkariaren erregulazioa 10/2006 Foru Arauak jasotako eskemara egokitu izana. Hori dela medio, nabarmen erraztuta geratu da erregulazioa. Azken kenkari horretan, lokalak etxebizitza gisa gaitzeko kasuei buruzko aipamenak jaso dira. Zergaduna etxebizitzan bizitzeko hamabi hilabeteko epea, horrela, lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentzia ematen den egunetik aurrera hasiko da. Era berean, obra horien gastua Errenta Zergatik kendu daiteke

babespeko jarduketatzat hartuak badira. Kenkari hori egiteko, mendekotasuna eta ezigaitasuna parekatu dira, obrei eta egokitze instalazioei dagokienez.

Zergaren kudeaketaren alorrean, bereziki nabarmentzekoak dira autolikidazio proposamenei buruzko beste artikulua bat sartu izana, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunen aitortzeko betebeharrak bereziari buruzko artikulua desagertu izana betebeharrak hori ez baitago 10/2006 Foru Arauan jasota, eta, gainera, erregistro liburuetakoa oharpenak idazpen laburgarri orokorretan egiteko baldintzak aldatu izana kasu horietan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudian jasotako xedapenetara hurbiltzeko. Era berean, 10/2006 Foru Arauan jasotako hainbat informazio betebeharrak garatu dira, hain zuzen zerga honekin zuzenean eta bereziki lotuta daudenak, hala nola langile sindikatuen, alderdi politikoaren eta babespeko ondareen titularrak diren zergadunen betebeharrak.

Konturako ordainketei buruzko tituluan, jasota geratu dira aurreko erregelamenduan 2/2007 Foru Dekretuaren bidez sartu ziren atxikipenaren eta konturako sarreraren tasen aldaketak, eta horien eduki osoa zergaren foru arauak jasotako xedapenetara egokitu da. Gainera, herri administrazioen atxikipenen eta konturako sarrerak aitortu eta hileroko ordaintzeko betebeharrak areagotu egin da, haiek onartu duten urteko azken aurrekontua 6 milioi eurotik gorakoa bada.

Xedapen gehigarriei dagokienez, lehendik indarrean zeuden azken biak mantentzeaz gain, beste bi erantsi dira. Lehendabizikoa, izatezko bikoteei buruzkoa da, eta zerga honi begira terminoaren esanahia zehazten du; bigarrena, aldiz, aurrezpen sistematikoko banakako planen mobilizazio prozedurari buruzkoa da.

Xedapen iragankorrei dagokienez, bereziki aipatzekoa da 1999ko urtarrilaren 1aren aurretik ohiko etxebizitzaren erosketaren konpentsazio erregimena arautu duen xedapen iragankorra kendu izana. Hori horrela, konpentsazio aukera hori desagertu da, eta ohiko etxebizitzaren erosketako kenkariaren erregimen bakarra finkatu da. Era berean, 60 urtetik gorako pertsonei ondorio fiskalak onartuko zaizkie, baldin eta Sakontzen eskalaren arabera mendekotzat hartuak badira baina oraindik baloratu ez badira 504/2007 Errege Dekretuak jasotako mendekotasunaren balorazio baremo berriaren arabera. Zergaren foru arauaren lehen xedapen iragankorrera egokitu da 1994ko abenduaren 31 baino lehen erosi eta jarduera ekonomiko bati atxikita egon diren elementuetatik datozen ondare irabaziei buruzko xedapena, kasu horietan ere koefiziente murriztaileen aplikazioa 2006ko abenduaren 31aren aurretik sortutako irabazi zatira mugatze aldera. Azkenik, beste bost xedapen iragankor sartu dira: lehenean araututa dago kapital higikorren errenta jakin batzuen atxikipenaren erregimen iragankorra; beste bi salbuespenei buruzkoak dira, zehazki lana eta familia bateratzeko laguntzei eta 2006-2007 aldiko etorkizuneko kirolarientzako laguntzei buruzkoa; beste batean argitzen da aurreikuspen plan aseguratuen arteko mobilizazioek 68/2001 Foru Dekretuak jasotako araudiari jarraituko dietela, harik eta 2008ko urtarrilaren 1ean Erregelamenduko 63.3 artikulua idatzera berria indarrean jarri arte; eta azkenekoan, epe berezia ezartzen da Erregelamenduaren I. tituluan langile lekualdatuentzat aurreikusten den araubide berezia 2007ko zergaldian aplikatzea aukeratzeko.

Horiek horrela, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu da, eta horren testua foru dekretu honen eranskin gisa doa.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA. 2008ko ekitaldian aplikatuko diren eguneratze koefizienteak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak 47.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2008ko ekitaldian egingo diren eskualdaketen eguneratze koefizienteak hauek izango dira, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak 47.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako:¹

¹ Abenduaren 23ko 39/2010 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituena: Berexedapen gehigarri bakarrak hurrengo ezartzen du:

«Bakarra. 2011ko ekitaldian aplikatuko diren eguneratze koefizienteak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 47.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, 47.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eguneratze koefiziente hauek aplikatuko zaizkie 2011ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei:

Ekitaldiak	Koefizienteak
1994 eta aurrekoak	1,457
1995	1,548
1996	1,491
1997	1,457
1998	1,425
1999	1,386
2000	1,339
2001	1,289
2002	1,244
2003	1,210
2004	1,174
2005	1,137
2006	1,099
2007	1,069
2008	1,028
2009	1,024
2010	1,010
2011	1,000

Ekitaldiak	Koefizienteak
1994 eta aurrekoak	1,385
1995	1,471
1996	1,417
1997	1,385
1998	1,354
1999	1,317
2000	1,273
2001	1,225
2002	1,182
2003	1,150
2004	1,116
2005	1,080
2006	1,045
2007	1,020
2008	1,000

Guztiarekin ere, ondare elementua 1994ko abenduaren 31n eskuratu bada, 1995. urteari dagokion eguneratze koefizientea aplikatuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK.

Lehena. Indargabetzea.

Foru dekretu hau indarrean jartzean indargabetuta geratuko dira bertan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko 2001eko abenduaren 18ko 68/01 Foru Dekretua. Aurrekoa xedatuta ere, 68/2001 Foru Dekretuak 6. eta 51. artikuluetan xedatutakoak indarrean jarraituko du 2007ko abenduaren 31ra arte.

Bigarrena. Erregelamenduzko beste arau batzuk indarrean egotea.

Guztiarekin ere, ondare elementua 1994ko abenduaren 31n eskuratu bada, 1995. urteari dagokion egunera-tze koefizientea aplikatuko da.»

68/2001 Foru Dekretua garatzeko eman diren erregelamenduzko arauak indarrean egongo dira aurrerantzean ere, foru dekretu honetan jasotakoaren aurka ez doazen neurrian, harik eta onartu berri den erregelamendua garatzeko eman daitezkeen erregelamenduzko arauak indarrean jarri arte.

AMAIERAKO XEDAPENAK.

Lehena. Aldatzea 1999ko abenduaren 21eko 117/99 Foru Dekretua, Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrak garatzen dituena.

Honela aldatu da 1999ko abenduaren 21eko 117/99 Foru Dekretua, pertsona edo entitate jakin batzuek Zerga Administrazioari informazioa emateko dituzten betebeharrak garatzen dituena:

Bat. IV. kapituluaren edukia honela aldatu da:

«IV. kapitulua: Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzekin egindako eragiketei buruz informatzeko betebeharra.

9. artikulua. Informazioa eman behar duten subjektuak, eta informazioaren gaia.

Aitorpen informatibo bat aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, salerosketako eragiketen emaitzari buruzko informazioa barne hartuta, inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileek, inbertsio sozietateek, atzerrian helbideratutako inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak lurralde espainiarrean merkaturatzen dituzten entitateek eta Zenbait zerga neurriari buruzko 2004ko apirilaren 6ko 2/04 Foru Arauak bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera izendatuta dagoen eta zerbitzuen prestazio libreko araubideko sozietate kudeatzailearen izenean aritzen den ordezkariak, hala jasotzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak bederatzigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan. Aitorpenean, bazkide edo partaideek egindako akzio edo partaidetza eragiketak jasoko dira.

10. artikulua. Informazioaren edukia.

Aurreko artikuluan aipatutako informazioa ematera behartutakoek datu hauek jakinarazi beharko dizkiote Zerga Administrazioari:

- a) Bazkide edo partaidearen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- b) Akzio edo partaidetzen eskurapen edo salmenta balioa.
- c) Eskualdatutako akzio edo partaidetzen eskuratze data.

Obligazio hori betetzat hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak, 126.2 artikuluan aipatutako urteko aitorpena aurkeztutakoan, betiere aurreko letretan jasotako informazioa jasotzen bada aitorpenean.

11. artikulua. Informazioa emateko epea, tokia eta modua.

Kapitulu honetan aurreikusitako aitorpena Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako epe, toki eta moduan aurkeztu behar da urtero, eta aurreko lehen urte naturalari buruzko informazioa jasoko da horretan.»

Bi. V. kapituluaren edukia honela aldatu da:

«V. kapitulua: Gizarte aurreikuspeneko tresna jakin batzuei buruz informatzeko betebeharra.

12. artikulua. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen informazio betebeharrak.

1. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek urteko aitorten bat aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, hala jasotzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko a) letran. Aitorpenean jaso behar dira haietan altan emandako bazkide arrunt edo osoak, banaka zerrendatuta, eta azken horiek edo bazkide babesleek egindako ekarpenen zenbatekoa.

2. Artikulu honetan aurreikusitako aitortena Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epean aurkeztu behar da, eta aurreko lehen urte naturalari buruzko informazioa jasoko da horretan.

13. artikulua. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen bazkide babesleen informazio betebeharrak.

1. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen bazkide babesleek urteko aitorten bat aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, hala jasotzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko a) letran. Aitorpenean jaso behar dira ekarpenak egin zaizkien bazkide arrunt edo osoak, banaka zerrendatuta, eta bazkide arrunt edo oso bakoitzeko emandako diru kopurua.

2. Artikulu honetan aurreikusitako aitortena Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epean aurkeztu behar da, eta aurreko lehen urte naturalari buruzko informazioa jasoko da horretan.

14. artikulua. Pentsio fondoentzako entitate kudeatzaileen informazio betebeharrak, eta Europar Batasunean helbideratutako pentsio fondoentzako ordezkarienak.

1. Pentsio fondoentzako entitate kudeatzaileek urteko aitorten bat aurkeztu behar dute, hala jasotzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko a) letran. Aitorpenean jaso behar dira fondo horiei atxikitako planen partaideak, banaka zerrendatuta, bai eta haietan egin diren ekarpenen zenbatekoa ere, partaideek zuzenean eginak izan edo aipatu planen sustatzaileek eginak izan.

2. Era berean, Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratutako pentsio fondoentzako ordezkariak, Espainian legeria espainiarrari lotutako enpleguko pentsio planak garatzen badituzte, Europar Parlamentu eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentarauak jasotakoaren arabera, aurreko apartatuan aipatutako betebeharrak berdinak izango dituzte, hala xedatzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak 117. artikuluan g) apartatuan.

3. Artikulu honetan aurreikusitako aitorpenak Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epean aurkeztu behar dira, eta aurreko lehen urte naturalari buruzko informazioa jasoko da.

15. artikulua. Pentsio planen sustatzaileen informazio betebeharrak.

1. Pentsio planen sustatzaileek urteko aitorpen bat aurkeztu behar dute, hala jasotzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko a) letran. Aitorpenean jaso behar dira kontribuzioak egin zaizkien partaideak, banaka zerrendatuta, eta partaide bakoitzeko emandako diru kopurua.

2. Artikulu honetan aurreikusitako aitorpena Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epean aurkeztu behar da, eta aurreko lehen urte naturalari buruzko informazioa jasoko da horretan.

16. artikulua. Gizarte aurreikuspeneko sistema alternatiboetara bildutako enpresa eta entitateen informazio betebeharrak.

1. Urteko aitorpen bat aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari langileekin hartutako pentsio konpromisoari aurre egiteko, 2002ko azaroaren 29ko 1/02 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako Pentsio eta Pentsio Fondoen Legearen testu bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta hura garatzeko araudian jasotakoaren arabera, aseguru kontratuak sinatu dituzten enpresa edo entitateek, hala jasotzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko a) letran. Aitorpenean jaso behar dira kontribuzioak egin zaizkien pertsonak eta horietako bakoitzari dagokion zenbatekoa.

2. Artikulu honetan aurreikusitako aitorpena Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epean aurkeztu behar da, eta aurreko lehen urte naturalari buruzko informazioa jasoko da horretan.

17. artikulua. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateen informazio betebeharrak.

1. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateek urteko aitorpen bat aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, hala jasotzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko a) letran. Aitorpenenean mutualistak jaso behar dira, banaka zerrendatuta, bai eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian jasotakoaren arabera gastu kenkariduntzat hartzen diren edo zergaren oinarri ezargarrian murrizpena izan dezaketen kontingentziak estaltzeko mutualista horiek ordaindutako zenbatekoak ere.

2. Artikulu honetan aurreikusitako aitorpena Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epean aurkeztu behar da, eta aurreko lehen urte naturalari buruzko informazioa jasoko da horretan.

17.bis artikulua. Enpresen gizarte aurreikuspen planak merkaturatzen dituzten aseguru entitateen informazio betebeharrak.

1. Urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari 2002ko azaroaren 29ko 1/02 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako Pentsio Plan eta Fondoen Legearen testu bateginak lehen xedapen gehigarrian araututako enpresen gizarte aurreikuspeneko planak merkaturatzen dituzten

aseguru entitateek, hala jasotzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko a) letran. Aitorpenenean datu hauek eman behar dituzte:

— Aseguru hartzaileen eta aseguratuaren izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

— Aseguratuak egindako ekarpenen zenbatekoa, eta hartzaileek aurrekoetako bakoitzaren alde ordaindutako kontribuzioak.

2. Artikulu honetan aurreikusitako aitorpena Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitzen duen tokian, moduan eta epean aurkeztuko da, eta aurreko lehen urteari buruzko informazioa jasoko da horretan.

17.ter artikulua. Aurreikuspen plan aseguratuak eta mendekotasun asegurauk merkaturatzen dituzten aseguru entitateen informazio betebeharrak.

1. Urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak 72. artikulua 5. eta 7. apartatuetan, hurrenez hurren, aipatutako aurreikuspen plan aseguratuak eta mendekotasun asegurauk merkaturatzen dituzten aseguru entitateek, hala jasotzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko a) letran. Aitorpenenean datu hauek eman behar dituzte:

— Hartzaileen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

— Aseguru hartzaileek ordaindutako primen zenbatekoa.

2. Artikulu honetan aurreikusitako aitorpena Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitzen duen tokian, moduan eta epean aurkeztuko da, eta aurreko lehen urteari buruzko informazioa jasoko da horretan.»

Hiru. XI. kapituluaren edukia honela aldatu da:

«XI. kapitulua: Aurrezpen sistematikoko banakako planak merkaturatzen dituzten entitateen informazio betebeharrak.

30. artikulua. Informazioa eman behar duten subjektuak, eta informazioaren gaia.

Urteko aitorpen bat aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak hirugarren xedapen gehigarrian aipatutako aurrezpen sistematikoko banakako planak merkaturatzen dituzten entitate finantzarioek, hala jasotzen baitu aipatu foru arauak bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko b) letran. Aitorpenean, ondorengo artikuluan aipatutako informazioa jaso behar da:

31. artikulua. Informazioaren edukia.

Aurreko artikuluan aipatutako entitateek datu hauek jakinarazi beharko dizkiote Zerga Administrazioari:

a) Aseguru hartzaileen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Hartzailleek ordaindutako primen zenbateko osoa, eta lehen prima noiz ordaindu den.

c) Eskubide ekonomikoak osorik edo zati batean aurreratuz gero, biziarteko errenta eratzean komunikatutako errenta salbuetsiaren zenbatekoa.

d) Bizi aseguruako kontratu bat aurreko artikuluan aipatutako foru arauak hamalagarren xedapen iragankorren jasotakoaren arabera aurrezki sistematikoko banakako plan bihurtzen bada, aurreko a) eta b) letretan jasotako datuak eman behar dira, eta, gainera, adierazi behar da xedapen horretan jasotzen duen prima gisa urtean ordaindutako gehieneko mugaren baldintza betetzen ote den.

32. artikulua. Informazioa emateko epea, tokia eta modua.

Kapitulu honetan aurreikusitako aitorpena Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako epe, toki eta moduan aurkeztu behar da urtero, eta aurreko lehen urte naturalari buruzko informazioa jasoko da horretan.»

Lau. XIX. kapituluaren edukia honela aldatu da:

«XIX. kapitulua. Enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemen aldeko ekarpenengatiko kenkariak informatzeko betebeharra.

47. artikulua. Informazioa eman behar duten subjektuak, eta informazioaren gaia.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauaren hamazazpigarren xedapen iragankorren 3. apartatuari dagokionez, 2007ko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldietarako eta 2011ko abenduaren 31ra arte, enpresen gizarteko aurreikuspeneko entitateek, baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren 1996ko uztailaren 4ko 7/96 Foru Arauak 44.bis artikuluan aipatutako baldintzak betetzen badituzte, urtero aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute aipatu xedapen iragankorren jasotako kenkariaren oinarriari buruz, hala jasotzen baitu aipatutako 10/06 Foru Arauak bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuaren a) letran. Aitorpenean datu hauek eman behar dituzte:

a) Aurreikuspen tresna hauetara ekarpena egiten dutenen eta kenkariaren onuradun direnen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Kenkariaren oinarriaren zenbatekoa, aipatu xedapen iragankorren 2. apartatuan jasotakoaren arabera kalkulatu.

48. artikulua. Informazioa emateko epea, tokia eta modua.

Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epean aurkeztuko da aurreko artikuluan aipatutako informazioa.»

Bigarrena. Indarrean jartzea.

1. Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean. Dena den, foru dekretu honek onartutako erregelamenduak 13., 55. eta 63.3 artikuluetan xedatutakoa 2008ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

2. Foru dekretu honetan onartutako erregelamenduan jasotako xedapenak 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatu zaizkie. Nolanahi ere, Erregelamenduak 13., 55. eta 63.3 artikuluetan xedatutakoak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute ondorioa.

Hirugarrena. Araudiari buruzko aipamenak.

Foru araudian 2001eko abenduaren 18ko 68/01 Foru Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aipatzean, aintzat hartuko dira foru dekretu honetan onartutako erregelamenduaren xedapenak.

Laugarrena. Diputatua gaitzea.

Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuari baimena ematen zaio foru dekretu honen bidez onartutako erregelamendua garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

ERANSKINA

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUA

AURKIBIDEA

I. TITULUA: LANGILE TOKIALDATUEN ERREGIMEN BEREZIA.....	16
1. artikulua. Zergadun ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren tributaziorako erregimen bereziaren edukia.....	16
2. artikulua. Erregimen bereziaren indarraldia.....	17
3. artikulua. Aukera gauzatzea.....	18
4. artikulua. Erregimenari uko egitea.....	18
5. artikulua. Erregimenetik kanpo geratzea.....	18
6. artikulua. Zerga Administrazioari komunikatzea eta erregimena kreditatzea.....	19
II. TITULUA: ERRENTA SALBUETSIK.....	20
7. artikulua. Langilea kaleratu edo lana uzteagatik ematen diren kalte-ordainak.....	20
8. artikulua. Giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin lotutako sari garrantzitsuak eta literatur, arte edo zientziarekin lotutakoak salbustea.....	20
9. artikulua. Kirolariei emandako diru laguntzak salbustea.....	22
10. artikulua. Nazioarteko bake edo gizatasunezko misioetan parte hartzeagatik jasotako izaera publikoko aparteko haborokinak eta prestazioak salbustea.....	22
11. artikulua. Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak salbustea.....	22
12. artikulua. Lurralde mailako herri administrazioek emandako diru laguntza publikoak salbustea.....	23
III. TITULUA: ERRENTAREN ZEHAZTAPENA.....	26
I. KAPITULUA: LAN ETEKINAK.....	26
13. artikulua. Joan-etorriko gastuetarako eta mantenu eta egonaldiko ohiko gastuetarako dietak eta diru esleipenak.....	26
14. artikulua. Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako lan etekinak, zatika jasotako etekinak, eta sortze aldiaren zehaztapena.....	29
15. artikulua. Lan etekin jakin batzuei aplikagarri zaizkien portzentajeak.....	30
16. artikulua. Akzioen gaineko aukerak: integrazio portzentajeak aplikatzeko mugak.....	32
II. KAPITULUA: JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK.....	32

1. sekzioa: arau orokorrak.....	32
17. artikulua. Jarduera bati atxikitako ondare elementuak	32
18. artikulua. Amortizazio askatasuna.....	34
19. artikulua. Eragiketa bolumena.....	34
20. artikulua. Jarduera ekonomikoei atxikitako ondare elementuak eskualdatzean agerian jartzen diren ondare irabaziaz kalkulatzeko	34
21. artikulua. Aparteko mozkinak berrinbertitzea	35
22. artikulua. Errentak esleitzen ari diren entitateak enpresa txiki eta ertaintzat hartzea.	35
23. artikulua. Denboran zehar modu irregular nabarmenez lortutako jarduera ekonomikoaren etekinak, eta zatika jasotako etekinak.	36
24. artikulua. Jarduera ekonomikoaren etekinak zehazteko metodoak.....	36
2. sekzioa: zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztua aplikatzea.	37
1. azpisekzioa: erregela orokorrak	37
25. artikulua. Zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko arau orokorrak.....	37
26. artikulua. Zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztua aukeratzea.....	37
27. artikulua. Esleipen erregimenean dauden entitateak.....	38
28. artikulua. Modalitate erraztuaren eta modalitate arruntaren arteko bateraezintasuna zuzeneko zerbatespenean.....	38
2. azpisekzioa: erregela bereziak.	38
29. artikulua. Baso jardueren etekin garbia zehazteko erregela bereziak, zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztua erabiliz.	39
3. sekzioa: zerbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea.....	40
1. azpisekzioa: zerbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzea.....	40
30. artikulua. Zerbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzeko arau orokorrak.....	40
31. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aukeratzea	40
32. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatekin kanpo geratzea.....	40
33. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin koordinatzea.....	40
34. artikulua. Kontabilitate eta erregistro betebeharrak	41
35. artikulua. Egozpen erregimenean dauden entitateak.	41
36. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea eta zuzeneko zerbatespena bateragarriak izatea	41
2. azpisekzioa: etekin garbia zerbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize eta moduluen modalitatean zehaztea.....	42
37. artikulua. Jarduera independenteak	42
38. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatearen aplikazio eremua.....	42
39. artikulua. Etekin garbia zerbatespen objektiboaren zeinu, indize edo moduluen modalitatean kalkulatzeko	45
40. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen murriztea eta etekina gutxitzea aparteko egoerak direla eta.....	46
III. KAPITULUA: KAPITALAREN ETEKINAK.....	47
1. sekzioa: kapital higiezinaren etekinak	47
41. artikulua. Etxebizitzatik eratorritako kapital higiezinaren etekinatzat hartzea	47
42. artikulua. Etxebizitzatik eratorriak ez diren kapital higiezinaren etekinetatik ken daitezkeen gastuak	47
43. artikulua. Etxebizitzatik eratorriak ez diren kapital higiezinaren etekinetatik ken daitezkeen amortizazio gastuak.....	48
44. artikulua. Denboran zehar modu irregular nabarmenez lortutako etxebizitzatik eratorriak ez diren kapital higiezinaren etekinak eta zatika jasotako etekinak, eta sortzealdiaren zehaztapena... ..	49
2. sekzioa: kapital higikorren etekinak.....	50
45. artikulua. Aseguru kontratuen erabilpen partziala	50
46. artikulua. Errenta geroratuak eratu arte lortutako errentagarritasuna zergapetzea.....	50
47. artikulua. Errenta modura jasotzen diren jubilazio edo elbarritasun prestazioengatik aseguru kontratu jakin batzuek bete beharreko baldintzak	50
48. artikulua. Kapital higigarriaren zenbait etekinetan kenkaridunak diren gastuak.	50
49. artikulua. Zergaren foru arauak 40 artikuluan jasotakoaren arabera denboran zehar modu irregular nabarmenez lortutako kapital higikorren etekinak, zatika jasotako etekinak, eta sortzealdiaren zehaztapena.....	51
IV. KAPITULUA: ONDARE IRABAZIAK ETA GALERAK	51
50. artikulua. Erosketa balioaren zehaztapena.....	51
51. artikulua. Salbuespena ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik.....	52
52. artikulua. Bazkide kopurua, ondarea eta partaidetzaren gehieneko portzentajea frogatzea inbertsio kolektiboko erakundeetan.....	53
V. KAPITULUA: BALORE EDO PARTAIDETZA HOMOGENEOAK	54
53. artikulua. Balore edo partaidetza homogeneoen kontzeptua	54

VI. KAPITULUA: DENBORAREN ARABERA EGOZTEA.	54
54. artikulua. Etekinak denboraren arabera egoztea.	54
VII. KAPITULUA: GAUZA BIDEZKO ERRENTAK.	55
55. artikulua. Enpresako jantokiengatik sortutako gastuak gauza bidezko ordainketatzat ez hartzea.	55
56. artikulua. Langileen seme-alabei haur hezkuntzako lehen zikloaren zerbitzua emateko erabilitako kopuruak.	56
57. artikulua. Lanean diharduten langileei akzio edo partaidetzak ematea.	56
58. artikulua. Langileria eguneratu, trebatu eta erreziklatzera zuzendutako kopuruak.	57
59. artikulua. Sozietateen sortzaile edo sustatzaileen eskubideak.	57
60. artikulua. Langileak teknologia berrietan trebatzeko kopuruak.	58
61. artikulua. Heriotza edo elbarritasun arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboaren primak.	58
VIII. KAPITULUA: AURREZPENAREN ERRENTA.	58
62. artikulua. Aurrezpenaren errenta, eta kapital propioak zergadunarekin lotutako entitateei lagaz lortu diren etekinak.	58
IV. TITULUA: OINARRI LIKIDAGARRI OROKORRA.	58
63. artikulua. Aurreikuspen plan aseguruak.	58
64. artikulua. Jarduera ekonomikoaren titularrak enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten duten borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpen propioak.	60
65. artikulua. Autolikidazio osagarriak aurkezteko epea, gizarte aurreikuspeneko sistemen eskubide kontsolidatuak erabiltzean.	61
66. artikulua. Ekitaldiko oinarri ezargarrian murriztu ez diren soberakinen zerga tratamendua.	61
V. TITULUA: KUOTAREN KENKARIAK.	62
I. KAPITULUA: KENKARIAK EZGAITASUN ETA MENDEKOTASUNARENGATIK.	62
67. artikulua. Minusbaliotasun maila frogatzea.	62
68. artikulua. Mendekotasun maila frogatzea.	63
II. KAPITULUA: KENKARIA OHIKO ETXEBIZITZA EROSTEAGATIK.	63
69. artikulua. Ohiko etxebizitzaren kontzeptua.	63
70. artikulua. Ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatutako kasuak.	64
71. artikulua. Etxebizitza kontua.	67
72. artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik, eta salbuespena berrinbertitzeagatik.	67
73. artikulua. Familiaren etxebizitzara zuzendutako kopuruak ordaintzeko betebeharra, epaileak erabakita.	68
III. KAPITULUA: KENKARIA JARDUERA EKONOMIKO BAT HASTEKO INBERTSIOAN KREDITU ENTITATEETAN EGITEN DIREN GORDAILUENGATIK.	68
74. artikulua. Kenkaria egiteko baldintzak.	68
IV. KAPITULUA: KENKARI ESKUBIDEA GALTZEA.	69
75. artikulua. Kenkari eskubidea galtzea.	69
VI. TITULUA: ZERGAREN KUDEAKETA.	69
I. KAPITULUA: AUTOLIKIDAZIOAK.	69
76. artikulua. Autolikidatzeko betebeharra.	69
77. artikulua. Autolikidatzeko betebeharretik salbuestea.	70
78. artikulua. Autolikidatzeko betebeharraren kasu bereziak.	70
79. artikulua. Autolikidazio proposamenak.	72
80. artikulua. Autolikidazioa eta zerga zorraren ordainketa.	72
81. artikulua. Ofizioz itzultzea.	73
II. KAPITULUA: BETEBEHAR FORMALAK, ETA KONTABILITATE ETA ERREGISTRO ALORREKOAK.	73
1. <i>sekzioa: zergadunen betebeharrak formalak.</i>	73
82. artikulua. Betebeharrak formal orokorrak.	73
2. <i>sekzioa: kontabilitate eta erregistro betebeharrak zuzeneko zenbatespenaren metodoan.</i>	73
83. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arruntera bildutako zergadunen betebeharrak.	73
84. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztura bilduta dauden edo merkatariza izaerarik gabeko jarduera ekonomikoa egiten duten zergadunen betebeharrak.	73
85. artikulua. Jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunen betebeharrak.	75
3. <i>sekzioa: kontabilitate eta erregistro betebeharrak zenbatespen objektiboaren metodoan.</i>	76
86. artikulua. Zenbatespen objektiboaren metodora bildutako zergadunen betebeharrak.	76
4. <i>sekzioa: berariazko arauak.</i>	76
87. artikulua. Errenten egozpenaren erregimenean dauden entitateak.	76
88. artikulua. Erregistro liburuak eramateko betebeharraren salbuespena.	76
5. <i>sekzioa: erregistro liburuak eramateko modua eta diligentsiatua.</i>	76

89. artikulua. Liburuak bitarteko informatikoez eramatea.....	76
90. artikulua. Liburuetakoa oharpenak.....	77
91. artikulua. Erregistro oharpenen epea.....	77
92. artikulua. Elkarri lotu gabeko jarduerak.....	78
93. artikulua. Bateragarritasuna beste liburu batzuekin.....	78
94. artikulua. Erregistro liburuaren diligentziatua.....	78
6. sekzioa: <i>bestelako informazio betebeharrak formalak</i>	78
95. artikulua. Bestelako informazio betebeharrak formalak.....	78
96. artikulua. Babespeko ondareen titular diren zergadunen informazio betebeharrak.....	80
VII. TITULUA: KONTURAKO ORDAINKETAK.....	80
I. KAPITULUA: ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK. ARAU OROKORRAK.....	80
97. artikulua. Aplikazio eremua.....	81
98. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko betebeharrak.....	83
99. artikulua. Atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak.....	84
100. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharrak salbustea.....	84
101. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuak.....	86
102. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.....	89
103. artikulua. Atxikitze edo kontura ordaintzeko betebeharrak sortzea.....	89
104. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren denboraren araberrako egozpena.....	89
II. KAPITULUA: ATXIKIPENEN KALKULUA.....	89
1. sekzioa: <i>lan etekinak</i>	89
105. artikulua. Lan etekinen gaineko atxikipenaren zenbatekoa.....	90
106. artikulua. Atxikipen portzentajearen taula eta aplikaziorako arauak.....	90
107. artikulua. Lan errentak jasotzen dituenak bere datuen berri ematea ordaintzaileari.....	94
108. artikulua. Lan etekinen gaineko atxikipenaren zehazteko prozedura berezia, egoitza aldatzen denean.....	95
2. sekzioa: <i>kapital higikorren etekinak</i>	96
109. artikulua. Kapital higigarriaren etekinei egin beharreko atxikipenaren zenbatekoa.....	96
110. artikulua. Aktibo finantzarioen kontzeptua eta sailkapena.....	96
111. artikulua. Aktibo finantzarioak eskualdatu, itzuli eta amortizatzeko baldintza fiskalak.....	97
112. artikulua. Kapital higikorren etekinen gaineko atxikipen oinarria.....	98
113. artikulua. Kapital higikorren etekinen gainean atxikitze edo kontura ordaintzeko betebeharrak sortzea.....	99
3. sekzioa: <i>jarduera ekonomikoen etekinak</i>	100
114. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekinei egin beharreko atxikipenaren zenbatekoa.....	100
4. sekzioa: <i>ondare irabaziak</i>	103
115. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundearen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien atxikipenaren zenbatekoa.....	103
116. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundearen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien atxikipenaren zenbatekoa.....	103
117. artikulua. Atxikitze edo kontura ordaintzeko betebeharrak sortzea.....	104
118. artikulua. Sarien gaineko atxikipenaren zenbatekoa.....	104
5. sekzioa: <i>beste errenta batzuk</i>	104
119. artikulua. Ondasun higiezinaren errentamendu eta azpierrementamenduei egin beharreko atxikipenaren zenbatekoa.....	104
120. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko atxikipenaren zenbatekoa.....	104
III. KAPITULUA: KONTURAKO SARRERAK.....	104
121. artikulua. Konturako sarrerak gauza bidezko lan ordainsariengatik.....	104
122. artikulua. Konturako sarrerak kapital higigarriaren gauza bidezko ordaintzetengatik.....	105
123. artikulua. Konturako sarrerak jarduera ekonomikoen gauza bidezko ordaintzetengatik.....	105
124. artikulua. Sarien gaineko konturako sarrerak.....	105
125. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko konturako sarrera.....	106
IV. KAPITULUA: ATXIKITZAILEAREN, KONTURAKO SARRERA EGIN BEHAR DUENAREN ETA ATXIKITUAREN BETEBEHARRAK.....	106
126. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak formalak.....	106
V. KAPITULUA: ORDAINKETA ZATIKATUAK.....	108
127. artikulua. Ordainketa zatikatuak egitera behartuak.....	108
128. artikulua. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa izaera orokorrean.....	108
129. artikulua. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa zuzeneko zenbatespenean, aparteko egoerak daudenean.....	109
130. artikulua. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa zeinu, indize edo moduluen modalitatean, tartean aparteko egoerak daudenean, nekazaritza, abeltzaintza arrantza jarduerak kanpoan utzita.....	109

131. artikulua. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa zeinu, indize edo moduluen modalitatean, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza jardueretan, aparteko egoerak daudenean.....	110
131 bis artikulua. Ordainketa zatikatuaren murrizpen orokorra	112
132. artikulua. Aitortzea eta ordaintzea.....	112
133. artikulua. Errentak egozteko erregimenean dauden entitateak	112
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	112
Lehena. Izatezko bikoteak.....	112
Bigarrena. Arrantza suspertzea	113
Hirugarrena. Partaidetzak inbertsio fondo kotizatuetan eta akzioak indizeen arabera kotizatutako kapital aldakorreko inbertsio sozietateetan.	113
Laugarrena. Aurrezpen sistematikoko banakako planen arteko mobilizazioa.....	113
Bosgarrena. Atxikipena edo konturako sarrera egitea Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mende ez dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateek egin dituzten ekarpen itzulketa bidezko kapital murrizpenetan eta jaulkipen primen banaketetan.	113
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	114
Lehena. 1994ko abenduaren 31aren aurretik erositako elementuetatik eratorri diren eta jarduera ekonomiko bati lotuta egon diren ondare irabaziak.....	115
Bigarrena.....	115
Hirugarrena. Kapital higikorren etekinen gaineko atxikipenei eta ondare irabazien gainekoei buruz sartutako aldaketen erregimen iragankorra.	115
Laugarrena. 329/2003 Dekretuak VI. kapituluari jasotako xedapenen arabera eman diren laguntza publikoen salbuespena.	115
Bosgarrena. 2006-2007 aldiko etorkizuneko kirolarientzako laguntza publikoen salbuespena.....	115
Seigarrena. Aurreikuspen plan aseguratuen arteko mobilizazioak.....	116
Zazpigarrena. 2007ko zergaldian langile lekualdatuen araubide bereziaren arabera tributatzea aukeratzeko epea	116
Zortzigarrena. Bizitza edo elbarritasun alorreko banakako aseguru kontratuei aplikagarri zaien konpentsazio fiskala.....	116

I. TITULUA: LANGILE TOKIALDATUEN ERREGIMEN BEREZIA.

1. artikulua. Zergadun ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren tributaziorako erregimen bereziaren edukia.

1. Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren tributaziorako erregimen berezia aplikatzeak berarekin ekarriko du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zorra lurralde espainiarrean lortutako errentengatik bakarrik zehaztea, 2004ko martxoaren 5eko 5/04 Errege Dekretu Legegileak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bateratua onartzen duenak, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentetarako jasotako arauei jarraituta, salbu aipatu testu bateratuak I. kapituluko 5., 6., 8., 9., 10. eta 11. artikuluetan xedatutakoa.

2. Bereziki, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Erregimen hau aukeratzeko duten zergadunek batzuk besteetatik berezita tributatu dute kargapeko errentaren sortzapen oso edo partzial bakoitzeko, haien artean batere konpentsaziorik gabe.

b) Errenta bakoitzaren oinarri likidagarria horietako bakoitzerako kalkulatu da, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 23. artikuluan jasotakoaren arabera.

c) Kuota osoa kalkulatzeko, oinarri likidagarriari Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 24.1. artikuluan jasotako karga tasak aplikatuko zaizkio.

d) Kuota diferentziala kalkulatzeko, kuota osoari Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 25. artikuluan jasotako kuotako kenkariak gutxituko zaizkio. Aipatu 25. artikulua b) letran jasotako ondorioetarako, ondorengo 3. apartatuan aipatutako konturako ordainketak ez ezik, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kontura ordaindutako kuotak ere kenkaridunak izango dira.

3. Erregimen berezi honen konturako ordainketak direla-eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araudiak jasotakoaren arabera egingo dira. Dena den, erregelamendu honek 101.2.a) artikuluan jasotako zirkunstantziak gertatzen direnean, atxikitzen behartuta egongo dira zergadunek zerbitzua ematen duten entitate egoiliarrak edo establezimendu iraunkorrak, horiek lurralde espainiarrean lortzen dituzten errentei dagokienez.

Aurreko paragrafoan aipatutako atxikipenak eta konturako sarrerak direla-eta erregelamendu honek 126. artikuluan jasotako obligazio formalak betetzeko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga ordaintzean establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei dagokienez aurreikusitako aitopen ereduak erabiliko dira.

4.² Erregimen berezi hau aplikaziozkoa zaien zergadunak behartuta daude Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu eta izenpeztara, Ogasuneko eta Finantzarako foru diputatuak onartzen duen eredu erabilia. Izan ere, eredu nola, non eta noiz aurkeztu zehaztuko du aipatu diputatuak, eta haren edukia Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarako aurreikusitako aitopen ereduari lotuko zaie.

Autolikidazioa aurkeztearekin batera, zerga zorra zehaztu behar dute zergadunek, eta Ogasuneko eta Finantzarako foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epeetan ordaindu behar dute. Aitorpena itzultzeko bada, Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 113. artikuluan jasotakoaren arabera egingo da itzulketa.

Aurrekoa hala izanik ere, Ogasuneko eta Finantzarako foru diputatuak foru aginduz erabaki dezake zergadunek apartatu honetako aurreko paragrafoetan aurreikusi den autolikidatzeko obligazioa izan beharrean aitortzeko obligazioa izango dutela. Foru agindu horretan bertan ezarriko da zein izango den obligazio horren edukia eta zein epeetan beteko den.

5. Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek lurralde espainiarreko ondasun higiezinaren gainean egindako eskualdaketei, haiek erregimen berezi hau aplikatzea aukeratzeko badute, aplikaziozkoa izango zaie Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 24.2 artikuluan jasotakoa.

2. artikulua. Erregimen bereziaren indarraldia.

² Apartatu hau abenduaren 23ko 84/2008 FORU DEKRETUAREN artikulua bakarraren bat apartatuak aldatu du. Foru Dekretuak Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta zerga horren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2009an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituenak, aldatzen du (2008-12-31ko GAO). Aldaketak 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Erregimen berezi hau zergadunak Espainian zerga egoitza erosten duen zergaldian eta ondorengo bost zergaldietan aplikatuko da, erregelamendu honek 4. eta 5. artikuluetan jasotakoa eragotzi gabe.

3. artikulua. Aukera gauzatzea.

1. Erregimen berezi honetara biltzeko aukera gauzatzekotan, komunikazio bat zuzendu behar zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari, gehienez sei hilabeteko epean zergaren foru arauak 4.3.a) artikuluan aipatutako jarduerak hasten direnetik aurrera. Horretarako, komunikazioa Espainiako Gizarte Segurantzako altan jasota egon behar da edo, hala badagokio, jatorrizko gizarte segurantzako legeriara biltzeko aukera ematen dion dokumentazioan.

2. Aukera hori gauzatzeko, erregelamendu honek 6. artikuluan aipatutako komunikazioa aurkeztu behar da.

3. Aukera hau ezin izango dute gauzatu erregelamendu honek 108. artikuluan jasotako lan etekinen gaineko atxikipenen edo konturako sarreren prozedura berezira bildu diren zergadunak.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak, erregelamendu honek 6.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, beste lurralde batetik, foru eremukoa izan edo erkidea izan, etorri diren eta zerga egoitza Gipuzkoan hartzen duten zergadunek gauzatutako aukera onartuko du, baldin eta egoitza Gipuzkoara aldatzeak ondorioa izan aurreko lehen zergaldian aplikaziozkoa izan bazitzaieen titulu honetan araututakoaren erregimen baliokidea eta titulu honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen badira.

Erregelamendu honek 2. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, aplikazio epea konputatzeko kontuan hartu behar dira edozein lurraldetan, foru eremukoa izan edo erkidea izan, titulu honetan araututakoaren erregimen berezi baliokide bat aplikatu den zergaldi guztiak.

4. artikulua. Erregimenari uko egitea.

1. Erregimen berezi hau aukeratu duten zergadunek hori aplikatzeari uko egin diezaiokete ukoak ondorioa izango duen urte naturala hasi aurreko azaro eta abenduan.

2. Uko egiteko prozedura honi jarraituko zaio:

a) Lehendabizi, atxikitzaileari aurkeztuko dio erregelamendu honek 107. artikuluan jasotako datu komunikazioa, eta hark horren kopia zigitatua itzuliko dio.

b) Bigarrenik, Zerga Administrazioan aurkeztuko du erregelamendu honek 6. artikuluan jasotako komunikazioa, aurreko letran aipatutako komunikazioaren kopia zigitatuarekin batera.

3. Erregimen berezi honi uko egiten dioten zergadunek ezin izango dute berriro aplikatzea aukeratu.

5. artikulua. Erregimenetik kanpo geratzea.

1. Erregimen berezi hau aplikatzea aukeratu duten eta aukera gauzatu ondoren aplikatzeko baldintzetako bat betetzen ez duten zergadunak erregimenetik kanpo geratuko dira. Kanpoan geratzeak ez-betetzea gertatzen den zergaldian izango du ondorioa.

2. Erregimenetik kanpo geratutako zergadunek zirkunstantzia horren berri eman behar diote Zerga Administrazioari hilabeteko epean, aplikatzeko baldintzak bete ez zirenetik, erregelamendu honek 6. artikuluan aipatutako komunikazio eredia erabilia.

3. Atxikpenak eta konturako sarrerak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauari jarraituz egingo dira, zergadunak atxikitzaileari erregimen berezia aplikatzeko baldintzak bete ez dituela jakinarazten diotenetik aurrera, aurreko apartatuan jasotako komunikazioaren kopia aurkeztuta. Era berean, atxikitzaileari aurkeztuko dio erregelamendu honek 107. artikuluan jasotako datu komunikazioa.

Dena den, atxikitzaileak dakienean zergaren foru arauak 4.3 artikuluen d), e) edo f) letretan jasotako baldintzak ez direla bete, atxikpenak eta konturako sarrerak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauari jarraituz egingo dira ez-betetzearen berri izaten duenetik aurrera.

Atxikipen tasa berria erregelamendu honek 106.2 artikuluan jasotakoari jarraituz kalkulatu da.

4. Erregimen berezi honetatik kanpo geratutako zergadunek ezin izango dute berriro aplikatzea aukeratu.

6. artikulua. Zerga Administrazioari komunikatzea eta erregimena kreditatzea.

1. Erregimena aplikatzeko aukera Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinarazita gauzatuko da.

Alpatu komunikazioan jasota utzi behar dira, besteak beste: langilearen identifikazioa, enplegatzailearena eta, hala badagokio, zerbitzuak hartzen dituen eta Espainian egoiliar den enpresa edo entitatearen edo establezimendu iraunkorraren identifikazioa; lurralde espainiarrean sartu izanaren data; Espainiako Gizarte Segurantzako altan edo jatorrizko gizarte segurantzaren legeriari eustea ahalbideratzen duen dokumentazioan agertzen den jardueraren hasiera data; eta garatu nahi den jardueraren azalpen xehatua.

Era berean, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Espainian enplegatzaile batekin lan edo estatutu harreman arrunt edo berezia hasten denean, enplegatzaileak egindako frogagiria, non espresuki aitortuko den zergadunarekin dagoen lan edo estatutu harremana dagoela, zergaren foru arauak 4.3.a) artikuluan jasotako baldintzak betetzen direla, Espainiako Gizarte Segurantzako altan agertzen den jardueraren hasiera data, lan zentroa eta horren helbidea, lan kontratuaren iraupena eta Espainian benetan egingo den lana.

b) Enplegatzaileak Espainian egoiliar den enpresa edo entitate bati edo lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkor bati zerbitzuak emateko agindutako lekualdaketa denean, azken horiek egindako frogagiria, non espresuki aitortuko den haiei zerbitzuak emango zaizkiela eta zergaren foru arauak 4.3.a) artikuluan zerbitzu horien prestaziorako jasotako baldintzak betetzen direla.

Aipatu frogagiriarekin batera, beste hauek aurkeztuko dira: enplegatzailearen lekualdaketako gutunaren kopia, Espainiako Gizarte Segurantzako altan edo jatorrizko gizarte segurantzaren legeriari eustea ahalbideratzen duen dokumentazioan agertzen den jardueraren hasiera data, lan zentroa eta horren helbidea, lekualdaketako aginduaren iraupena eta lana benetan Espainian egitearen aitortzea.

2. Behin komunikazioa aztertuta, bidezkoa bada Zerga Administrazioak frogagiria lutzatuko dio langileari, komunikazioa aurkeztu ondorengo hamar laneguneko gehieneko epean. Frogagirian, zergadunak erregimen berezi honen aplikazioa aukeratu duela adieraziko da.

Frogagiriaren bidez justifikatuko da, atxikipena edo konturako sarrera egitera behartutako pertsona edo entitateen aurrean, erregimen berezi honetako zergaduna izatea. Horretarako, agiriaren ale bat emango zaie.

3. Gipuzkoako zerga egoitza beste lurralde batetik, foru eremukoa izan edo erkidea izan, etorrira eskuratu eta erregelamendu honek 3.4 artikuluan jasotzen dituen zergadunak direnean, frogatu beharko dute egoitza Gipuzkoara aldatzeko ondorioa izan aurreko lehen zergaldian titulu honetan jasotakoaren erregimen berezia aplikaziozkoa izan zitzaiela, titulu honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen dituztela eta, azkenik, zein foru lurraldetatik edo lurralde erkidetatik aldatu duten egoitza Gipuzkoara.

II. TITULUA: ERRENTA SALBUETSIAK.

7. artikulua. Langilea kaleratu edo lana uzteagatik ematen diren kalte-ordainak.

Zergaren foru arauak 9.4 artikuluan aipatzen duen salbuespenaz gozatzeko, ezinbestekoa izango da langileak benetan inolako loturarik ez edukitzea enpresarekin. Kontrako frogarik ezean, lotura hori ez dagoela ulertuko da langilea, kaleratua izan edo lana utzi ondorengo hiru urteetan, berriro lanean hasten denean enpresa berarentzat edo Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 16. artikuluan jasotakoaren arabera horrekin lotuta dagoen beste batentzat, baldin eta, enpresen arteko lotura bazkide-sozietatearen arteko harremanarengatik definituz gero, partaidetzak %25ekoa edo handiagoa bada edo, bestela, %5ekoa edo handiagoa Europar Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean emandako 2004/39/EE Zuzentarauaren III. tituluaren jasotako baloreen merkatu arautuetako batean negoziatziora onarturiko baloreak izanez gero.

8. artikulua. Giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin lotutako sari garrantzitsuak eta literatur, arte edo zientziarekin lotutakoak salbuestea.

1. Zergaren foru arauak 9.8 artikuluan aipatzen duen salbuespenaren ondorioetarako, honako sariak definitzen dira:

a) Giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin lotutako sari garrantzitsua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko herri erakundeek pertsona bati edo batzuei ondasunak edo eskubideak ematea, giza eskubideak sustatzen eta lantzen egindako lana aitortzeko, betiere Gipuzkoa zuzenago eta kohesionatuago bat eraikitzen laguntzarren.

b) Literatur, arte edo zientzia sari garrantzitsua: pertsona bati edo batzuei inolako kontraprestaziorik gabe ondasunak edo eskubideak ematea obra literario, artistiko edo zientifikoen balioa edo arlo horietan oro har egindako jarduera edo lanaren meritua aitortzeko.

2. Sari emaileak ezingo du saritutako lanaren edo lanen ustiaketa ekonomikoa egin, ez eta horretan interesatuta egon ere.

Bereziki, sariak ez du inoiz ere ekarriko, ezta exijituko ere, saritutako lanaren edo lanen gaineko jabetza eskubideak laga edo mugatzea, jabetza intelektual edo industrialetik eratorritakoak barne.

Obraren zabalkunde publiko hutsak ez du baldintza hori urratuko irabazi asmorik gabe egiten bada gehienez ere sei hilabeteko epean.

3. Deialdia egin aurretik amaitu diren obrei edo egindako jardueri emango zaie beti saria.

Bekak, laguntzak eta, oro har, artikuluko honen 1. apartatuan aipatu diren obra edo lanak egin aurretik edo egin ahala finantzatzen zuzenduriko zenbatekoak ez dira salbuesitako saritzat hartuko.

4. Deialdiak honako baldintzak bete behar ditu:

a) Partaideei inolako mugarik ez jartzea sariaren berezko funtsarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik.

b) Deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean, deialdia egiten duen autonomia erkidegokoan edo beste lurralde historikoetako batean argitaratzea.

Salbuespena eskuratu ahal izateko, atzerrian edo nazioarteko erakundeetan deitzen diren literatur, arte edo zientzia sari garrantzitsuek apartatu honetako a) letran aipatu den baldintza baino ez dute bete behar, bai eta sariaren garrantzia eta publizitatea frogatu ere.

5. Salbuespena Zerga Administrazioak aitortu behar du. Aitorpen hori hauek eskatu behar dute, aurreko apartatuetan jasotako baldintzak bete izanaren frogagiriak aurkeztuta:

a) Oro har, saria deitu duen pertsonak edo entitateak.

b) Saritutako pertsonak, baldin eta artikuluko honen 1. apartatuko b) letran jasotako sariak izanik Gipuzkoatik kanpo deitu badira.

Saria eman aurretik aurkeztu behar da eskaera, eta apartatu honetako b) letraren kasuan, hura lortu den ekitaldia aitortzeko ezarrita dagoen arauzko epea hasi baino lehen.

Espedientea ebazteko, bidezko jotzen diren txostenak eskatu ahal izango dira.

Prozeduraren ebazpena gehienez sei hilabetetan jakinaraziko da. Behin epe hori igarota ebazpena jakinarazi gabe, eskaera ez dela onartu uler daiteke.

Salbuespenaren aitorpenak balioa izango du geroko deialdietarako, baldin eta horiek ez badituzte aldatzen salbuespena ematean kontuan hartutako terminoak.

Geroko deialdiek termino horiek aldatzen badituzte edo horiek aplikatzeko baldintzetako bat betetzen ez bada, Zerga Administrazioak horiek aplikatzeko eskubidea aldaketa edo ez-betetzea gertatu denetik aurrera galtzea aitortuko du.

Artikulu honen 1. apartatuko b) letran aipatutako sarien kasuan, salbuespena beste zerga administrazio batek aitortu badu, lurralde historiko honetan izango ditu ondorioak.

6. Zerga Administrazioak sariaren salbuespena aitortzen duenean, aurreko 5. apartatuaren a) letran aipatzen diren pertsonak edo entitateek honako datu hauek jakinarazi behar dizkiote Zerga Administrazioari saria eman eta hurrengo hilabetearen barruan: zein datatan eman den saria, zein sari mota den eta zeintzuk izan diren sarituak.

Salbuetsiak izan diren sarien salbuespena hurrengo deialdietan ere aplikatzen jarraitzeko, nahikoa izango da aurreko paragrafoan aipatu den komunikazioa egitea eta honako hau aurkeztea harekin batera: deialdia arautzen duten oinarrien ale bat eta, hala badagokio, artikulu honen 4. apartatuko b) letran jasotako baldintza bete izanaren frogagiria.

9. artikulua. Kirolariei emandako diru laguntzak salbuestea.

Zergaren foru arauak 9.15 artikuluan aipatzen duenaren ondorioetarako, kirolariei ematen zaizkien prestaketako programei lotutako diru laguntzak zergatik salbuetsiko dira, urteko 60.100 euroko mugapean, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Beren onuradunek goi mailako kirolari izaera aitortua edukitzea aplikaziozko legeriaren arabera.
- b) Kirol gaietan eskudun diren erakundeek zuzenean edo zeharka finantzatzea laguntza horiek.

10. artikulua. Nazioarteko bake edo gizatasunezko misioetan parte hartzeagatik jasotako izaera publikoko aparteko haborokinak eta prestazioak salbuestea.

Zergaren foru arauak 9.16 artikuluan aipatzen duenaren ondorioetarako, nazioarteko bake edo gizatasunezko misioetan parte hartzen duten kideei ordaindutako zenbateko publikoak zergatik salbuetsita daude, baldin eta gisa honetakoak badira:

- a) Edozein eratako aparteko haborokinak, nazioarteko bake misio bat betetzeagatik ordaintzen direnean.
- b) Nazioarteko bake edo gizatasunezko misioan zehar jasandako kalte fisiko edo psikikoengatik ordaintzen diren kalte-ordain edo prestazioak.

11. artikulua. Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak salbuestea.

1. Zergaren foru arauak 9.17 artikuluan jasotako ondorioetarako, salbuetsita daude atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak, baldintza hauek betetzen direnean:

1.- Lan horiek Espainian egoitzarik ez duen enpresa edo entitate batentzat egin behar dira edo, bestela, atzerrian finkaturik dagoen establezimendu iraunkor batentzat. Bereziki, baldin eta lanak hartzen dituen entitateak lotura bat badu langilea enplegatu duen entitatearekin edo haren zerbitzuak jasotzen dituen enpresarekin, ulertuko da entitate ez-egoiliarrentzat egin direla Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 16.5 artikuluan jasotakoaren arabera entitate ez-egoiliarri talde barruko zerbitzua eman zaiola uste daitekeenean aipatu zerbitzuak entitate hartzaileari abantaila edo erabilgarritasunen bat dakarkiolako edo ekar diezaiokeelako.

2.- Lanak egiten diren lurraldean zerga honen antzeko edo pareko zerga bat aplikatzea, eta herrialde edo lurralde hori paradisu fiskaltzat hartuta ez egotea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da lanak egiten diren herrialde edo lurraldeak nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmena sinatua duenean Espainiarekin eta hitzarmen horretan informazioa elkarri trukatzeko klausula jasotzen denean.

2. Salbuespena urteko 60.100 eurokoa izango da gehienez. Atzerrian egindako lanengatik jasotako ordainsaria kalkulatzeko, langileak atzerrian benetan eman dituen egun kopurua hartuko da kontuan, bai eta atzerrian emandako zerbitzuei dagozkien berariazko ordainsariak ere.

Egun bakoitzean atzerrian egindako lanengatik sortutako etekinak kalkulatzeko, aipatu lanen berariazko ordainsariak alde batera utzita, proportzionalki banatzeko irizpidea erabiliko da urtearen egun kopuru osoa kontuan hartuta.

3. Atzerrian destinaturik dauden zergadunentzat, salbuespen hori bateraezina izango da erregelamendu honek 13.A.3.b) artikuluan tributaziotik kanpo uzten dituen soberakinen araubidearekin, atzerrian jasotako errenten zenbatekoa edozein dela ere. Zergadunak salbuespen honen ordezkio soberakinen araubidea aplikatzea hautatu ahal izango du.

4. Langilea atzerrira aldatzeak bera enplegatu duen enpresak edo entitateak nazioz gaindiko zerbitzu prestazio bat egiteagatik gertatu behar du. Enpresa edo entitate horrek Espainian eduki behar du egoitza.

12. artikulua. Lurralde mailako herri administrazioek emandako diru laguntza publikoak salbuestea.

³1. Zergaren foru arauak 9.28 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, lurralde mailako herri administrazioek ematen dituzten laguntza publikoak salbuestita egongo dira ondoren aipatzen diren xedapenen eta laguntza programa zein planen arabera edo haien ordezkioen babesean ematen direnean⁴:

³ Apartatu hau ekainaren 16ko 20/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua lehenengo apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araubidea aldatzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2009-06-23ko GAO). Aldaketa hau 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

⁴ Lehenengo paragrafo hau maiatzaren 18ko 12/2010 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2010-05-21eko GAO). Aldaketa honek 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

- a) 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.
- b) 3/2002 Legea, martxoaren 27koa, ikastolak legez arautu aurretik haietan eskolak eman zituzten pertsoneri aitortza eta konpentsazioa ematekoa.
- c) 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, garapenaren aldeko lankidetzeta eta laguntza fondoaren kargura euskal kooperanteei emandako laguntzei buruzkoa.
- d) 255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru laguntzak arautzen dituena.
- e)⁵ Eusko Jaurlaritzako ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua, lana eta familia bateratzeko laguntzei buruzkoa. Nolanahi, haren IV. Kapituluaren jasotako laguntzak kanpoan geratzen dira, onuradunak jarduera ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bidez zehazten duen.
- f) 316/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, "Etxebizitza Hutsaren Programa" sustatu eta bultzatzen duena, errentariei dagokienez.
- g)⁶ Agindua, 2010eko apirilaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Haur-Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako erregistroetan inskribatutako ikastetxe eta haur-eskoletan eskolatzeko dirulaguntzen esleipena arautzen eta deialdia egiten duena, hiru urtetik beherako haurrei zuzendua eta 2009-2010 ikasturte akademikoari begira.
- h)⁷ Agindua, 2010eko urriaren 6koa, Etxebizitza, Herrilan eta Gizarte Arazoetako sailburuarena, etxebizitza erosteko finantza neurriei buruzkoa.
- i) Agindua, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitzako eta Gizarte Arazoetako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza neurriei buruzkoa.
- j) 51/2005 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa, adinekoak Bidasoaldeko eta Oarsoaldeko egoitzetan sartzeko banakako diru laguntzen oinarriak onartzekoa.
- k) 58/1989 Foru Dekretua, abenduaren 5ekoa, etxez etxeko zerbitzu intentsiboari buruzkoa.

⁵ Letra hau maiatzaren 24ko 15/2011 FORU DEKRETUaren 1. artikulua apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2011-05-30eko GAO), eta aldaketak 2011-01-01etik aurrera ditu ondorioak.

⁶ Letra hau azaroaren 23ko 32/2010 FORU DEKRETUaren 1. artikulua apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010-12-01eko GAO).

⁷ Letra hau abenduaren 23ko 39/2010 FORU DEKRETUaren 1. artikulua apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunean jartzen da indarrean (2010-12-29ko GAO). Aldaketa honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

- l) 33/2004 Foru Dekretua, apirilaren 20koa, egoera zailean dauden haurren babesa, garapen pertsonala eta integrazio soziala errazteko diru laguntzei buruzkoa.
- m) 89/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, mendekotasun egoeran daudenen familia harreraren programa eta hura garatzeko behar diren diru laguntzak arautzen dituena.
- n) 35/1999 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, adingabeen babesa, garapen pertsonala eta integrazio soziala errazteko diru laguntzei eta gizarte arriskuan dauden pertsona edo familienei buruzkoa.
- ñ) 72/2000 Foru Dekretua, uztailaren 18koa, "Sendian" Programa onartzen duena, adineko pertsona ezinduak beren kargura dituzten familiei laguntzeko.
- o) 87/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, ezgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako Etxean programako banakako laguntzak arautzen dituena.
- p) 88/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, mugikortasuneko arazo handiak dituztelako garraio publiko arrunta erabili ezin dutenek ordezkoko garraio bide bezala taxia erabil dezaten laguntzak arautzen dituena.
- q) 23/2007 Foru Agindua, abuztuaren 30ekoa, etorkizuneko kirolariak izendatzeko araudia onartzen duena.
- r) Genero indarkeriaren aurkako osoko babesari buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikulua.
- s)⁸ 29/2009 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, gizarteratzeko laguntza ekonomikoa onartzen duena.
- t)⁹ 1472/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, gazteen emantzipaziorako oinarritzko errenta arautzen duena.
- u)¹⁰ Ibilgailuen parkea berritzeko onartutako 2000 E eta MOTO E planak, 2000 Euskadi Plana, eta gainerako autonomia erkidegoek helburu horrekin ezartzen dituztenak edo haien ordezkoko direnak.

⁸ Letra hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua Lehena ordinaletako Bat apartatuak gehitu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den. (2009-12-30eko GAO).

⁹ Letra hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua Lehena ordinaletako Bat apartatuak gehitu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den. (2009-12-30eko GAO).

¹⁰ Letra hau maiatzaren 18ko 12/2010 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2010-05-21eko GAO). Aldaketa honek 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

v)¹¹ + Euskadi 09 plana, barne hartzen dituen Renove Planei dagokienez (leihoak, etxetresna elektrikoak, galdarak, energia aurrezpen haundiko turismoak eta altzariak), eta helburu berdina izanik haien ordeztu direnak.

Lurralde mailako herri administrazioek ematen dituzten bestelako laguntza publikoak, haien xedea ondasunak zein instalazioak berritzen laguntzea bada eta letra honetan adierazitako helburu bera badute.

w)¹² 2010eko azaroaren 3ko Agindua, Kulturako sailburuarena, «Kultura bonoa» garatu eta sustatzekoa, edo helburu bera betetze aldera hori ordeztu duten aginduak.

x)¹³ «aQtiva Plana» edo helburu bera betetze aldera hori ordeztu dutenak.

2. Era berean, salbuetsita daude beste lurralde historikoek salbuetsizat hartutako antzeko laguntzak.

III. TITULUA: ERRENTAREN ZEHAZTAPENA.

I. kapitulua: lan etekinak.

13. artikulua. Joan-etorriko gastuetarako eta mantenu eta egonaldiko ohiko gastuetarako dietak eta diru esleipenak.

A.- Erregela orokorrak:

1. Bidai gastuetarako dietak eta diru esleipenak, salbu joan-etorriko gastuak eta ostalaritza establezimenduetan egin ohi diren mantenu eta egonaldikoak, lanaren etekintzat hartuko dira artikulua honetan adierazten diren baldintzak eta mugak betetzen dituztenean.

2. Joan-etorriko gastuetarako diru esleipenak.

Enpresak edo enplegu emaileak ematen dituen diru kopuruak lantegi, tailer, bulego edo lantokitik kanpo lan egiten duen enplegatu edo langilearen joan-etorriko gastuak konpentsatzeko direnean hark lana beste toki batean egin behar duelako, zergatik salbuetsita daude honako baldintza eta zenbateko hauetan:

¹¹ Letra hau maiatzaren 18ko 12/2010 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2010-05-21eko GAO). Aldaketa honek 2009ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

¹² Letra hau maiatzaren 24ko 15/2011 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua bi apartatuak gehitu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2011-05-30eko GAO), eta aldaketak 2010-01-01etik aurrera ditu ondorioak.

¹³ Letra hau maiatzaren 24ko 15/2011 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua hiru apartatuak gehitu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2011-05-30eko GAO), eta aldaketak 2011-01-01etik aurrera ditu ondorioak.

a) Enplegatu edo langileak garraiobide publikoak erabiltzen dituenean, faktura edo antzeko agiri bidez frogatzen den gastuaren zenbatekoa.

b) Bestelako kasuetan, egindako kilometro bakoitzeko 0,29 euro konputatuz ateratzen den zenbatekoa, joan-etorria benetan egin dela frogatzen bada beti ere, gehi justifikatzen diren bidesari eta aparkamendu gastuak.

3. Mantenu eta egonaldi gastuetarako diru esleipenak.

Enpresak edo enplegu emaileak jatetxe, hotel eta gainerako ostalaritza establezimenduetan egin ohi diren mantenu eta egonaldi gastuak konpentsatzeko ematen dituen diru kopuruak zergatik salbuesten dira, baldin eta gastu horiek jasotzaileak lan egin ohi duen eta bizi den udalerritik kanpo sortuak badira.

Hurrengo b) letran aurreikusten diren kasuetan izan ezik, joan-etorria eta egonaldia modu jarraituan egiten bada bederatzi hilabetetik gorako epean, kopuru horiek ez dira zergatik salbuetsiko. Ondorio horietarako, ez dira deskontatuko opor garaia, gaixoaldia edo destinoz aldatzera behartzen ez duten zirkunstantziak.

a)¹⁴ Jatetxe, hotel eta gainerako ostalaritza establezimenduetan egin ohi diren mantenu eta egonaldi gastuetarako diru esleipenak honako hauek izango dira bakar-bakarrik:

1. Gaua jasotzaileak lan egin ohi duen eta bizi den udalerritik kanpo pasatu duenean, honako hauek:

— Egonaldi gastuengatik, frogatzen diren kopuruak. Merkantziak errepidez garraiatzeko ibilgailuak gidatzen dituztenen kasuan, egonaldi gastuak ez dira frogatu beharko betiere horien eguneko zenbatekoa 15 eurotik gorakoa ez bada, lurralde espainiarrean bidaiatuta, edo 25 eurotik gorakoa, atzerrira egindako bidaia izanez gero.

— Mantenu gastuengatik, eguneko 53,34 euro, bidaia lurralde espainiarraren barruan egin bada edo, eguneko 91,35 euro, atzerrira egindako bidaia izanez gero.

2. Gaua jasotzaileak lan egin ohi duen eta bizi den udalerritik kanpo pasatu ez duenean, eguneko 26,67 eurotik gorakoak ez diren mantenu gastuetarako kopuruak, lurralde espainiarraren barruan egin bada bidaia edo, eguneko 48,08 eurotik gorakoak ez direnak, atzerrira egindako bidaia denean.

Aire konpainietako hegaldiko langileen kasuan, ohiko mantenu gastuetarako diru esleipenak izango dira egunean 36,06 euroko kopurua gainditzen ez dutenak, bidaia lurralde espainiarraren barruan egiten bada edo, egunean 66,11 euroko kopurua gainditzen ez dutenak, atzerrira egindako bidaia denean. Egun berean bi zirkunstantziak batera gertatzen badira, egindako hegaldi kopuru handienari dagokion zenbatekoa aplikatuko da.

¹⁴ a) letra hau abenduaren 23ko 84/2008 FORU DEKRETUaren artikulua bakarraren bi apartatuak aldatu du. Foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta zerga horren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2009an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituenak, aldatzen du (BOG 31-12-2008). Aldaketak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondorioetarako, ordaintzaileak bidaiaren eguna eta tokia eta, era berean, haren arrazoi edo zergatia frogatu beharko du.

b) Zergapetu gabeko dietatzat honako zenbateko hauek hartuko dira:

1.- Atzerrian destinaturik dauden Espainiako funtzionario publikoek, indarrean dagoen legeria aplikatuta eta maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuak 25. artikulua 1 eta 2 apartatuetan jasotako kalte-ordainaren ondorioz, Espainian destinaturik baleude lortuko lituzketen ordainsari guztien gainean jasotako soberakina.

2.- Atzerrian destinaturik dauden Herri Administrazioaren langileek Espainian destinaturik baleude soldata, hirurteko, osagarri edo pizgarriengatik lortuko lituzketen ordainsari guztien gainean jasotako soberakina. Ondorio horietarako, lansarien arloan esku duen organoak erabakiko du nola berdindu daitezkeen langile horien soldatak Espainian destinaturik baleude.

3.- Beste herri administrazio batzuetako funtzionario eta langileek jasotzen duten soberakina, baldin eta bere zenbatekoa urtarrilaren 13ko 6/1995 Errege Dekretuak, atzerrian destinaturik dauden funtzionarioen soldata erregimena arautzekoak, 4., 5. eta 6. artikuluetan aipatutako helburuetarako erabiltzen bada edo, bestela, soldata berdinketak gainditzen ez baditu.

Tratamendu hori bera aplikatuko zaio, orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zerbitzura ari diren funtzionarioek edo kontratupeko langileek atzerriko euskal ordezkarietarako destinaturik egoteagatik jasotzen duten soberakinari.

4.- Enpresetako enplegatuek, atzerrian destinaturik egonik, soldata, egunsari, antzintasun edo aparteko ordainsariengatik, irabazietatik datorrena barne, famili laguntzagatik, edo beste edozein kontzepturengatik, hala nola, kargu, enplegu, kategoria edo lanbideagatik, Espainian destinaturik baleude lortuko lituzketen ordainsarien gainean jasotako soberakina.

Letra honetan ezarritakoa bateraezina izango da erregelamendu honek 11. artikuluan atzerrian egindako lanengatik jasotako lan etekineterako aurreikusten duen salbuespenarekin.

4. Aurreko apartatuetan aurreikusitako erregimena aplikagarria izango zaie, orobat, lan zentro mugikor edo ibiltariak dituzten enpresetan lan egiteko kontratatzen diren langileen joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako kopuruei, beti ere langilea bizi ohi den udalerrira ez beste batera joateko ematen baldin badira.

5. Artikulu honetan zergapetzen ez diren zenbatekoak Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak berrikusi ahal izango ditu.

6. Joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako diru esleipenek artikulu honetan aurreikusten diren mugak gainditzen dituztenean, zergari lotuta egongo dira, eta lan etekin direla joko da.

B.- Erregela bereziak:

1. Enpresari zerbitzuak eskaini arren, horrek ez badizkio langileari propio ordaintzen joan-etorri eta mantenu gastuak, menpeko lan harreman berezietatik

eratorritako lan etekinak lortzen dituen zergadunak hurrengo zenbatekoak gutxitu ditzake bere sarreretatik etekin garbia kalkulatzeko, baldin eta joan-etorriak benetan egin direla frogatzen badu:

a) Joan-etorriko gastuengatik:

- Garraiobide publikoak erabiltzen direnean, faktura edo antzeko agiri bidez frogatzen den gastuaren zenbatekoa.

- Bestelako kasuetan, egindako kilometro bakoitzeko 0,29 euro konputatuz ateratzen den zenbatekoa, gehi justifikatzen diren bidesari eta aparkamendu gastuak.

b) Mantenu gastuengatik, 26,67 edo 48,08 euro, según eta bidaia lurralde espainiarraren barruan egiten den edo atzerrirako bidaia den.

Ondorio horietarako, egonaldi gastuak enpresak ordaindu beharko ditu beti, eta artikulua honetako A letraren 3. apartatuko a) letran esandakoaren arabera arautuko dira.

2. Lanpostua beste udalerrri batera aldatzeagatik zergadunari ordaintzen zaizkion zenbatekoak ez dira zergapeturik egongo, baldin eta aldaketa horrek egoitza aldatzea badakar eta zergadunak jasotzen dituen zenbatekoak zergadunaren eta bere familiaren lokomozio eta mantenu gastuak ordaintzeko nahiz altzari eta etxeko tresnak tokiz aldatzeko badira bakarrik.

3. Hauteskunde mahaietako kideek jasotzen dituzten zenbatekoak legeria aplikagarriaren arabera salbuetsiko dira zergatik.

14. artikulua. Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako lan etekinak, zatika jasotako etekinak, eta sortze aldiaren zehaztapena.

1. Zergaren foru arauak 19.2.a) artikuluan jasotako %50eko integrazio portzentajea aplikatzeko, lan etekinak denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat joko dira honako hauek bakarrik direnean, beti ere zergaldi bakar bati egozten bazaizkio:

a) Beste lantoki batera aldatzeagatik enpresak enplegatuei ordaindutako zenbatekoak, betiere erregelamendu honek 13. artikuluan jasotzen dituen kopuruak gainditzen badituzte.

b) Gizarte Segurantzaren edo klase pasiboen erregimen publikoetatik jasotzen diren kalte-ordainak, eta, era berean, umezurtzen eskolek eta antzeko erakundeek ordaindutako prestazioak, ehunekotan altxatuta ordaintzen direnean eta elbarritasunik eragiten ez duten lesioak direnean.

c) Enpresek edo ente publikoek, elbarritasunik eragiten ez duten lesioengatik edo ezintasun iraunkorragatik, bere maila guztietan, ordaindutako prestazioak.

d) Langile edo funtzionarioen heriotzagatik eta ehorzketa gastuengatik ematen diren prestazioak, dela publikoak dela umezurtzen eskolek, antzeko erakundeek, enpresek eta ente publikoek ordaindutakoak, zergaren foru arauak 9.23 artikuluan aipatutako muga salbuetsia gainditzen dutenean.

e) Soldaten osagarriak, pentsioak edo iraupen mugagabeko urtealdiak konpentsatu edo zuzentzeko, nahiz lan baldintzak aldatzeagatik ordaintzen diren zenbatekoak.

¹⁵f) Lan harremana elkarren arteko adostasunez amaitzeagatik enpresak langileei ordaindutako zenbatekoak.

Hala ere, letra honetan aipatutako kontzeptuagatik jasotzen diren lehen 60.000 euroko kopuruari %40ko integrazio portzentajea aplikatuko zaio.

g) Zerga honetan salbuetsita ez dauden literatur, arte edo zientzia sariak. Ondorio horietarako, ez dira saritzat hartuko jabetza intelektual edo industrialaren eskubideak lagatzetik datozen kontraprestazio ekonomikoak, edo horien ordezkotza gisa ematen direnak.

2. Aurreko apartatuan jasotakoa eragotzi gabe, zergaren foru arauak 19.2.a) artikuluan jasotako %50aren integrazio ehunekoak aplikatuko zaie haien jardueraren zirkunstantzia objektiboak direla-eta denbora tarte laburretan etekin mota hori lortzen duten zergadunek jasotako etekin handiei, baldin eta denbora tarte hori igarota ezin badute etekin gehiago lortu aipatu jarduera dela-eta.

Aurreko paragrafoan jasotakoa Diputatuaren Kontseiluak zehaztutako moduan eta baldintzetan aplikatuko da.

3. Lanaren etekinek bi urtetik gorako sortze aldia dutenean eta zatika jasotzen direnean, zergaren foru arauak 19.2.a) artikuluan jasotako lehen paragrafoan aipatzen dituen %60 edo %50eko integrazio portzentajeak aplikatuko dira bakarrik, baldin eta sortze aldiari dagokion urte kopurua, datatik datara konputatuta, zergaldi zatikatuen kopuruarekin zatituz ateratzen den emaitza bi urtetik gorakoa bada lehen kasuan eta bost urtetik gorakoa bigarrenean.

4. Nahiz eta sortze aldia bi urtetik gorakoa dela agerian egon ezin denean zehatz-mehatz finkatu, hiru urtekoa dela joko da.

5. Inoiz ere ez zaizkie aplikatuko zergaren foru arauak 19.2.a) artikuluan jasotako integrazio portzentajeak, langilea kaleratu edo lana uzteagatik ematen diren eta zerga honetan salbuetsitako kopuruak gainditzen dituzten kalte-ordainen zenbatekoei, baldin eta errenta moduan jaso badira.

15. artikulua. Lan etekin jakin batzuei aplikagarri zaizkien portzentajeak.

1. Zergaren foru arauak 19.2.b) artikuluan jasotako %60ko integrazio portzentajea 18.a) artikuluan aipatzen diren eta kapital moduan jasotzen diren eragiketa hauei aplikatuko zaie, salbu aipatu azken artikuluko horren 6. zenbakian xedatutakoei:

- Kontingentzia bakoitzarengatik jasotzen den lehen prestazioari, aurreneko ekarpena egin denetik bi urte baino gehiago igaro direnean. Prestazioak elbarritasun edo mendekotasunarengatik jasotzen badira, ez da exijituko bi urteko epea.

¹⁵ Letra hau ekainaren 16ko 20/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluan bigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2009-06-23ko GAO). Aldaketa hau 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

- Kontingentzia berarengatik jasotako aurreko prestazioaz geroztik bost urte iraganda jasotzen diren ondorengo prestazioei, ordaindutako ekarpenek artikulua honen 4. apartatuan jasotakoaren arabera nahikoak diren aldizkakotasun eta erregulartasuna dutenean.

Horretarako, lehendabiziko prestaziotzat hartuko da kapital moduan zergaldi berean kontingentzia bakoitza gertatzeagatik jasotzen diren kopuruaren zenbateko osoa. Erregela bera aplikatuko zaie aurreko paragrafoan aipatzen diren ondorengo prestazioei.

Apartatu honetan finkatutako tratamendua gaixotasun larria eta iraupen luzeko langabezia gertatzen direnean ere aplikatuko dira.

2. Baldin eta prestazioak zergaren foru arauaren 18.a) artikuluan jasota badaude eta mota guztietako errentak eta kapital moduko kobruak nahastuta jasotzen badira, 19.2.b) eta c) artikuluan jasotako portzentajeak kapital moduan egindako kobruari aplikatuko zaizkie bakarrik. Bereziki, prestazioak errenta moduan behin kobratzen hasi eta errenta hori modu aurreratuan berreskuratzen bada, prima edo ekarpen bakoitzak errenta eratzean duen antzintasunaren arabera aplikatuko zaizkio lortutako etekinari behar diren integrazio portzentajeak.

3. Zergaren foru arauak 19.2.b) artikuluan jasotako %60ko integrazio portzentajea kontingentziak gertatzeagatik jasotako lehen kopuruari aplikatuko zaio, bai eta arrazoi berberengatik aurreko kopurua jaso denetik bost urte iraganda jasotzen diren ondorengo kopuruei ere, ordaindutako ekarpenek artikulua honen 4. apartatuan jasotakoaren arabera nahikoak diren aldizkakotasun eta erregulartasuna dutenean.

Horretarako, jasotako lehen kopurutzat hartuko da zergaldi berean kapital moduan jasotako kopuruaren zenbateko osoa. Erregela bera aplikatuko zaie aurreko paragrafoan aipatutako kopuruaren ordainketa jarraituei.

4. Ordaindutako ekarpenek aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoa dutela ulertuko da, zergaren foru arauak 16.2.b) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, iraupenaren batez besteko aldia handiagoa denean haiek jaso direnetik lehendabiziko ekarpenaren datara bitartean iragandako urte kopuruaren erdia baino.

Ekarpenen batez besteko iraupen-aldia kalkulatzeko, ekarpen bakoitza bere iraupenaren urte kopuruarekin biderkatuko da lehenik eta, guztien batura egin ondoren, emaitza ordaindutako ekarpenen batura osoarekin zatituko da.

5. Prestazioei lotuta dauden pertsonen egotzi zaizkien aseguru kolektiboetarako ekarpenak egiten badira, zergaren foru arauak 19.2.c) artikulua a) eta b) letretan jasotako %25eko portzentajea aplikatzeko, ulertuko da kontratuaren indarraldian barruan ordaindu diren primen aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoa dutela, behin lehendabiziko prima ordaindu zenetik zortzi urte baino gehiago iraganda, primen batez besteko iraupen-aldia lau urtetik gorakoa izan denean.

Primen batez besteko iraupen-aldia kalkulatzeko, prima bakoitza bere iraupen-aldiaren urte kopuruarekin biderkatuko da lehenik eta, guztien batura egin ondoren, ordaindutako primen batura osoarekin zatituko da emaitza.

6. Prestazioei lotuta dauden pertsonen egotzi zaizkien aseguru kolektiboetarako ekarpenak egiten badira, zergaren foru arauak 19.2.c) artikuluan b') letran jasotako %25eko integrazio portzentajea edozein lanetarako erabateko ezintasun iraunkorraren eta elbarritasun handiaren kalte-ordainei aplikatuko zaie, eta kasu bietan pentsio plan eta fondoei buruzko araudian ezarritakoari jarraituko zaio.

7. Kapital moduan jasotako prestazioak zergaren foru arauak 18.a).6 artikuluan aipatutako bizi aseguruaren kontratuetatik datozen eta kontratu horiek aldizkako nahiz aparteko primak dituztenean, etekin osotik prima bakoitzari zein zati dagokion kalkulatzeko etekin oso hori zatidura honetatik ateratzen den ponderazio koefizientearekin biderkatuko da:

- Zatikizun gisa, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte iragandako urte kopurua primarekin biderkatuz ateratzen den emaitza jarriko da.

- Zatitzaile gisa, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte iragandako urte kopurua prima bakoitzarekin biderkatuz ateratzen diren biderkaduren batura jarriko da.

8. Zergaren foru arauak 19.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, entitate aseguratzaileak ordaindu den prima bakoitzari dagozkion zenbateko ordainduen zatia bereiziko du.

16. artikulua. Akzioen gaineko aukerak: integrazio portzentajeak aplikatzeko mugak.¹⁶

Lanaren etekinak lortzen badira zergaren foru arauak 20.1 artikuluan aipatutako akzioen gaineko aukerak baliatzeagatik, eta etekin horren zenbatekoa handiagoa bada 20.000 euroko kopurua etekinaren sorreratik urte kopuruarekin biderkatuta ateratzen dena baino, hortik gorako etekinari ez zaizkio %60ko edo %50eko integrazio portzentajeak aplikatuko.

Aurreko paragrafoan aipatu den zenbatekoa gainditzen bada, bere osoan konputatuko da soberakina.

Horretarako, ulertuko da lan etekin horien sorrerakia bi edo bost urtetik gorakoa dela eta ez direla aldizka edo noizean behin lortzen, baldin eta eskubide hori, hurrenez hurren, bi edo bost urte baino gehiago igaro ondoren erabiltzen bada, eskubidea eman den egunetik kontatzen hasita, eta, gainera, eskubideak ez badira urtero ematen.

II. kapitulua: jarduera ekonomikoen etekinak.

1. sekzioa: arau orokorrak.

17. artikulua. Jarduera bati atxikitako ondare elementuak.

¹⁶ Artikulu hau ekainaren 16ko 20/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluan hirugarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2009-06-23ko GAO). Aldaketa hau 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

1. Ondare elementu hauek zergadunaren jarduera ekonomikoari atxikitzen joko dira, kontuan hartu gabe titularitatea bi ezkontideek edo izatezko bikoteko bi kideek duten:

- a) Zergadunak jarduera garatzeko erabiltzen dituen ondasun higiezinak.
 - b) Jardueran aritzen diren langileei zerbitzu ekonomiko eta soziokulturalak ematea helburu duten ondasunak. Ez dira jarduerari atxikitzen hartuko aisialdi eta olgetarako ondasunak edo, oro har, jarduera ekonomikoaren titularraren erabilera pribatukoak.
 - c) Etekinak lortzeko beharrezkoak diren gainerako ondare elementuak. Inoiz ez dira jarduera ekonomikoari atxikitzen hartuko entitate baten fondo propioetan parte hartzea eta hirugarrenei kapitalak lagatzea ordezkatzeko duten aktiboak.
2. Ondare elementuak jarduera ekonomiko bati atxikita daudela joko da zergadunak jarduera horren xedeetarako bakarrik erabiltzen dituzenean.

Ez dira jarduerari atxikita egongo:

1.- Aldi berean jarduera ekonomikoetarako eta premia pribatu-erabiltzen direnak, salbu eta, azken kasu horretan, erabilera hori osagarria eta guztiz garrantzirik gabea denean artikuluko honen 4. apartatuan esandakoaren arabera.

2.- Zergadunaren titulartasunpean egon arren jarduera ekonomiko horrengatik berak eraman behar duen kontabilitatean edo erregistro ofizialetan agertzen ez diren elementuak, beti ere kontrakoa frogatzen ez bada.

3.- Ondare elementuak jardueraren xederako partzialki baino erabiltzen ez direnean, jardueran benetan erabiltzen den zatia bakarrik egongo da atxikita. Zentzu horretan, ondare elementuen zatiak jarduerari atxikita egongo dira gainontzekotik bereizita eta independenteki aprobetxatu daitezkeenean. Ondare elementu zatiezina inoiz ez dira partzialki atxikirik egongo.

4.- Ulertuko da jarduera ekonomikoa garatzeko eskuratutako ibilgetuaren ondasunak premia pribatu-erabiltzen direla eta erabilera hori osagarria eta guztiz garrantzirik gabea dela, baldin eta zergadunak erabilera pertsonalerako erabiltzen baditu lanordua edo lanegunetatik kanpo jarduera etenda dagoen bitartean.

Turismo ibilgailuak eta beren atoiak, ziklomotoiak, motozikletak eta kirol edo aisiarako aireontzi nahiz itsasontziak aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratuko dira, ondoko hauek izan ezik:

- a) Merkantziak garraiatzeko ibilgailu mistoak.
- b) Kontraprestazio baten bitartez bidaiariak garraiatzeko ibilgailuak.
- c) Kontraprestazio baten bitartez gidari edo pilotuak prestatzeko ibilgailuak.
- d) Merkataritzako ordezkari edo agenteek arrazoi profesionalengatik egin beharreko joan-etorrietarako erabilitako ibilgailuak.
- e) Ohikotasunez eta ordain truke erabiltzeko lagatzen direnak.
- f) Zaintza zerbitzuetan erabilitakoak.

Ondorio horietarako, turismo ibilgailuak, atoiak, ziklomotoreak eta motozikletak martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak, Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bateratua onartzekoak, I. eranskinean hala definitzen dituenak izango dira, bai eta, era berean, eranskin horretan ibilgailu misto moduan definituta daudenak ere eta, edozein kasutan, noranahiko ibilgailuak edo "jeep" motatakoak.

18. artikulua. Amortizazio askatasuna.

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua indarrean sartu ondoren eskuratutako ibilgetu materialaren elementuei zein zenbatekotan aplikatuko zaien foru arau horrek 50. artikuluan arautzen duen amortizazio askatasuna kalkulatzeko, eragiketa hauxe egin beharko da: eskuratze prezioa ken gutxieneko amortizazio kuotak edo, bestela, ken benetan egin direnak.

Ekitaldiren batean edo bat baino gehiagotan etekin garbia kalkulatzeko erabilitako metodo edo modalitateak amortizazio kuoten kengarritasuna espresuki onartzen ez duenean, benetan egindako kuotatzat hartuko dira epealdi horiei dagozkien gutxieneko amortizazioak.

Ondorio horietarako, gutxieneko amortizazio kuotak ondoko honen emaitza izango dira: Sozietateen gaineko Zergaren araudiak jasotako koefizienteen gehieneko amortizazio epetik eratorritako koefizientea ondare elementuari aplikatuta ateratzen direnak.

19. artikulua. Eragiketa bolumena.

Erregelamendu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketa bolumen osotzat hartuko da zergadunak bere jarduera enpresarial edo profesional guztietan egindako ondasun salmenta eta zerbitzu prestazioetan lortutako kontraprestazioen zenbatekoa, betiere Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta, hala badagokio, baliokidetasun errekarua kenduta.

20. artikulua. Jarduera ekonomikoei atxikitako ondare elementuak eskualdatzean agerian jartzen diren ondare irabaziak kalkulatzeari.¹⁷

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek garatutako jarduera ekonomikoei atxikitako ondare elementuak eskualdatzeagatik ondare irabaziak sortzen direnean, eta horiei Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 15.9 artikuluan xedatutakoa aplikagarri zaienean, erregela hauek hartuko dira kontuan:

a) Ondare elementuak horiek eskuratu ondoren jarduera ekonomikoei atxikita egon direnean, horiei noiz gelditu diren atxikita hartuko da eskurapen unetzat Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 15.9.a) artikuluan jasotakoa geroago aplikatzearen ondorioetarako.

b) Zergadunek jardueraren etekin garbia amortizazioen berariazko kenkarirako aukera ematen ez duen metodo edo modalitatearen arabera kalkulatu duten zergaldietan, amortizaziotzat hartuko da dena delako ondare elementuari

¹⁷ Artikulu hau maiatzaren 24ko 15/2011 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua lau apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2011-05-30eko GAO), eta aldaketak 2011-01-01etik aurrera ditu ondorioak

Sozietate Zergaren araudiak aipatutako gehieneko amortizazio epearen koefizientea aplikatuz atera-tzen dena, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 15.9.a) artikuluan jasotakoa aplikatzeko.

21. artikulua. Aparteko mozkinak berrinbertitzea.

1. Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 22. artikuluan jasotzen den aparteko mozkinen berrinbertsioa aplikagarria gertatzen denean, berrinbertitu diren ondare elementuek bost urtez egon beharko dute ondarean, berrinbertsioa egiten denetik aurrera, eta hiru urtez ondasun higikorren kasuan, non eta haien erabilgarritasun aldia, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren araudiak jasotzen duen gehieneko amortizazio epea aplikatuz kalkulatu, txikiagoa ez den. Beharrezkoa izango da, dena den, ondare elementu horiek Errenta Zergaren zergadunek garatutako jarduera ekonomikoei atxikita egotea eta zergadun horiek etekin garbia kalkulatzeko erabiltzen duten metodo edo modalitateak aukerarik ez ematea amortizazioen berariazko kenkaria egiteko.

2. Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 22. artikuluan berrinbertitzeko ezartzen duen epean zergadunak erabakitzen badu ez duela eskualdaketan lortutakoaren pareko zenbatekoa berrinbertituko, lortu den zergaldiari egotzi beharko dio integratu gabeko errenta-zatia.

Aurreko paragrafoaren arabera oinarri ezargarrian sartu behar den errentako kuota osoaren zatia erabaki hori hartzen den zergaldiko kuotarekin batera ordaindu beharko da, bidezko gerta litezkeen berandutza interesak gehituta.

3. Berrinbertsioa ez bada egiten Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 22. artikuluan ezarritako epean, zergadunak lortu den zergaldiari egotzi beharko dio integratu gabeko errenta zatia.

Aurreko paragrafoaren arabera oinarri ezargarrian sartu behar den errentako kuota osoaren zatia, berrinbertitzeko epea amaitzen den zergaldiko kuotarekin batera ordaindu beharko da, bidezko gerta litezkeen berandutza interesak gehituta.

22. artikulua. Errentak esleitzen ari diren entitateak enpresa txiki eta ertaintzat hartzea.

1. Errentak esleitzen dituen entitateak jarduera ekonomiko bat egiten badu, jarduera horri dagozkion etekinek izaera bera izango dute entitateko bazkide, oinordeko, komunero edo partaideentzat, jarduerari atxikitako produkzio bideen eta giza baliabideen antolaketan beren kontura, zuzenean, pertsonalki eta ohikotasunez esku hartzen dutenean.

Dena den, esleitutako etekinak kapital etekintzat hartuko dira bazkide, oinordeko, komunero edo partaideek ez badute antolaketa horretan esku hartzen eta entitatean duten partaidetza kapitala jartzera bakarrik mugatzen bada. Kasu horretan, eta kontrakoa frogatzen ez den bitartean, ulertuko da gehienez jarritako kapitalaren %15 egotz daitekeela.

2. Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak VIII. tituluaren II. kapituluaren enpresa txiki eta ertainen erregimen bereziaz xedatutakoa aplikatzearen ondorioetarako, eta haren 49. artikuluan ezarritako baldintzak betetzeari begira, bakar-bakarrik entitate horiek egindako jarduera ekonomikoen multzoa hartuko da

kontuan Errenta Zergaren Foru Arauak etekin garbia kalkulatzeko aurreikusten dituen modalitate bakoitzeko erregela bereziekin bat etorritz gero.

23. artikulua. Denboran zehar modu irregular nabarmenez lortutako jarduera ekonomikoen etekinak, eta zatika jasotako etekinak.

1. Zergaren foru arauak 26.7 artikulua jasotako %50eko integrazio portzentajea aplikatzeko, honako hauek bakarrik hartuko dira jarduera ekonomikoetatik etorrira denboran zehar modu irregular nabarmenez lortutako etekintzat, betiere zergaldi bakar bati egozten zaizkionean:

- a) Ibilgetuaren elementu amortizaezinak erosteko jasotako kapital subentzioak.
- b) Jarduera ekonomikoak uzteagatik jasotako kalte-ordainak eta laguntzak.
- c) Zerga honetan salbuetsita ez dauden literatur, arte edo zientzia sariak. Ondorio horietarako, ez dira saritzat hartuko jabetza intelektual edo industrialaren eskubideak lagaztetik datozen kontraprestazio ekonomikoak edo horien ordezk gisa ematen direnak.
- d) Iraupen mugagabea duten eskubide ekonomikoen ordezk jasotako kalte-ordainak.

2. Jarduera ekonomikoen etekin garbiek bi urtetik gorako sortzealdia dutenean eta zatika jasotzen direnean, zergaren foru arauak 26.7 artikuluan jasotako %60 edo %50eko integrazio portzentajeak aplikaziozkoak izango dira bakarrik baldin eta sortzealdiaren urte kopurua, datatik datara konputatuta, zergaldi zatikatuen kopuruarekin zatitzetik ateratzen den emaitza bi urtetik gorakoa bada lehendabiziko kasuan eta bost urtetik gorakoa bigarreanean.

3. Sortzealdia bi urtetik gorakoa dela agerian egon arren, ezin bada zehatz-mehatz finkatu, hiru urtekoa dela joko da.

24. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko metodoak.

1. Zergaren foru arauak 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko ondorengo metodoak izango dira:

1.- Zuzeneko zenbatespena. Hona hemen modalitateak:

- Arrunta.
- Erraztua.

2.- Zenbatespen objektiboa. Hona hemen modalitateak:

- Zeinu, indize edo moduluak.
- Hitzarmenak.

2. Zergadunek aurreko metodoak erabiliko dituzte kontuan hartuz aplikazio mugak, bateraezintasunari eta uko egiteari buruzko arauak, eta ondorengo artikuluetan jasotako gainerako xedapenak.

2. sekzioa: zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzea.

1. azpisekzioa: erregela orokorrak.

25. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko arau orokorrak.

1. Jarduera ekonomikoak burutzen dituzten zergadunek zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren arabera kalkulatu ahal izango dute beren jardueren etekin garbia, baldin eta ondoko baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Zergadunak garatutako jarduera guztien eragiketa bolumena, etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren arabera kalkulatzeko direnena sartu gabe, urteko 600.000 eurotik gorakoa ez izatea.

b) Zergadunak espresuki aukeratzea modalitate hau bere jarduera guztien etekin garbia kalkulatzeko, erregelamendu honek 36. artikuluan xedatutakoaren kaltetan gabe.

2. Zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko ezartzen den gehienezko eragiketa bolumena modalitate hau aplikatzen hasi aurreko lehen urteari dagokiona izango da.

Aurreko lehen urtean ez bada inolako jarduera ekonomikorik egin, etekin garbia modalitate honen arabera kalkulatu da baldin eta zergadunak modalitate hau aukeratzen badu ondorengo artikuluan esandakoari jarraikiz.

Aurreko lehen urtean jarduera bat hasi bada, eragiketa bolumena urtebetera eramango da.

26. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aukeratzea.

1. Zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren aplikazioa ondorioak izan behar dituen urte naturaleko martxoaren 1a baino lehen aukeratuko da; jarduera hasten baldin bada, aukera hori zentsuan alta emateko aitorpenean adieraziko da.

2. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen den aukerak modalitatea aplikagarria den hurrengo urteetarako ere izango du balioa, non eta zergadunak, aipatu 1. apartatuan jasotako epean, espresuki adierazten ez duen zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko aukeran atzera egiten duela.

3. Artikulu honen aurreko apartatuetan aipatu den zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aukeratzeko nahiz modalitate horretan atzera egiteko, Zentsu Aitorpenaren 036 eredia erabiliko da uztailaren 27ko 75/2004 Foru Dekretuak, enpresariak, profesionalak eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar dituzten zentsu aitorpenak arautzekoak, esandakoari jarraikiz.

4. Aurreko apartatuetan jasotakoa eragotzi gabe, eta bakar-bakarrik erregelamendu honek 29. artikuluan jasotako erregela bereziak aplikatzea aukeratzera doanean, zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua erabili ahal izango du basogintzako jarduera egiten duen zergadunak,

ekitaldi bakoitzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztean.

27. artikulua. Esleipen erregimenean dauden entitateak.

1. Zergaren foru arauak 11. artikuluan jasotako entitateek jarduera ekonomikoak garatzen dituztenean, haien etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren arabera kalkulatu ahal izango da, baldin eta:

1.- Bazkide, oinordeko, komunero edo partaide guztiak zerga honen pertsona fisiko zergadunak badira.

2.- Entitateak erregelamendu honek 25. artikuluan jarritako baldintzak betetzen baditu.

2. Oinordeko, komunero edo partaide guztiak aukeratu beharko dute modalitate erraztua aplikatzea, modalitate hori erabiltzeko aukeran atzera egitea eta, orobat, zergaren foru arauak 29.2 artikuluan aipatutako gastu kenkaridunak kuantifikatzeko erregela bereziak aplikatzea, erregelamendu honek 26. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, bazkide, oinordeko, komunero edo partaide guztiak aplikatu beharko dituzte erregela orokor edo berezi berberak, etekin garbia zuzeneko zenbatespen erraztuan zehaztean.

Etekin garbia zuzeneko zenbatespen erraztuaren arabera kalkulatzeko aplikatutako arauak ez badira berdinak bazkide, oinordeko, komunero edo partaide guztientzat, etekin garbia zuzeneko zenbatespen erraztuaren metodoaren erregela orokorreari jarraituz kalkulatu da.

3. Modalitate erraztua bazkide, oinordeko, komunero edo partaideen egoera indibidualak alde batera utzita aplikatuko da.

4. Etekin garbia kasu bakoitzean aplikagarri diren arau edo itunen arabera esleituko zaie bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei eta, horiek ez badira agerikoak Administrazioarentzat, etekin garbia zati berdinetan esleituko da.

28. artikulua. Modalitate erraztuaren eta modalitate arruntaren arteko bateraezintasuna zuzeneko zenbatespenean.

1. Erregelamendu honek 36. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, jardueretako baten etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntaren arabera kalkulatu duten zergadunek modalitate arrunta erabiliz kalkulatu beharko dute beren jarduera guztien etekin garbia.

Alabaina, urtean zehar jarduera ekonomikoren bat hasten denean, aurreko paragrafoan jasotako erregelak ez du urte horretarako ondorioz izango jarduera horri dagokionez.

2. Erregelamendu honek 36. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko baldintzak betetzen dituzten zergadunek modalitate horren arabera kalkulatu nahi badute beren jardueretako baten etekin garbia, modalitate hori aukeratu beharko dute jarduera guztietarako.

2. azpisekzioa: erregela bereziak.

29. artikulua. Baso jardueren etekin garbia zehazteko erregela bereziak, zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiliz.

1. Zergaren foru arauak 29.2 artikuluan jasotakoa garatze aldera, baso jarduerarako, erregela berezi hauek aplikatu behar dira etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez zehazteko:

a) Lehenik, sarrerak kalifikatu eta kuantifikatuko dira, zergaren foru arauak izaera orokorrean jasotako erregelak aplikatuta. Hortik kanpo geratuko dira jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak.

b) Gastu kenkaridunak nekez frogatu eta baloratu daitezkeenean, aurreko a) letran aipatu diren sarrerei %58,50eko portzentajea bakarrik aplikatuz konputatuko dira.

Ustiatu diren azalerak zergadunak basoberritzen dituenean, aurreko paragrafoan adierazitako gastu kenkaridunen portzentajea a) letran aipatu diren sarreren %70 izango da.

Basoberritzea artikuluko honen 2. apartatuan jasota dauden baldintza eta epeetan egingo da.

c) Ondoren, aurreko letretan aipatutako sarrera eta gastu horien arteko diferentzia kalkulatu da. Hala badagokio, diferentzia horri emango zaio zergaren foru arauak bi edo bost urtetik gorako epean sortzen diren baina aldizka edo noizean behin lortuta ez dauden jarduera ekonomikoaren etekin garbietarako jasotzen duen tratamendua.

d) Azkenik, jarduerari atxikitako ondare elementuetatik datozen irabazi eta galerak gehitu edo gutxituko dira, dagokionaren arabera, zergaren foru arauak 26.5 artikuluan ezarritakoari jarraituta; jardueraren etekin garbia izango da emaitza.

2. Mozketarako baimena ematen denetik hasi eta bi urteko epean basoberritu behar dira ustiatutako azalerak. Basoberritzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko Basozaintzako eta Natura Inguruneko Zerbitzuak luzaturiko ziurtagiria aurkeztuta frogatuko da.

Gertatzen bada, aurreko paragrafoan xedatutakoaren haritik, basoberritzea ez dela burutzen ustiatutako azalera mozten den urte berean, zergadunak mozketaren egiten den ekitaldiko autolikidazioan adierazi beharko du basoberritzea lehen aipatu baldintza eta epeetan egiteko asmoa duela.

3. Aurreko apartatuan ustiatutako azalerak basoberritzeko ezartzen diren baldintzak betetzen ez badira, zergadunak autolikidazio osagarri bat aurkeztu beharko du artikuluko honen 1.b) apartatutako bigarren paragrafoan aipatutako gastu kenkaridunen portzentajea aplikatu zen zergaldiari dagokionez.

Ondorio horietarako, zergadunak berriro kalkulatu beharko du aurreko paragrafoan aipatu den urtean baso jarduerak eman duen etekin garbia, eta horretarako, artikuluko honen 1. apartatutako b) letran jasotako gastu kenkaridunen portzentajea aplikatuko du. Ateratzen den kuota eta berandutza interesak ordaintzera beharturik egongo da.

Autolikidazio osagarria aurkezteko epea baldintzak bete ez diren egunean hasi eta horiek bete gabe gelditu diren zergaldia aitortzeko arauzko epea amaitzen den egunean bukatuko da.

3. sekzioa: zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea.

1. azpisekzioa: zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzea.

30. artikulua. Zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzeko arau orokorrak.

1. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikagarria izango zaie, banan-banan hartuta, erregelamendu honek 38. artikuluan jasotzen dituen jarduera guztiei, baldin eta zergadunek modalitate hori aplikatzea aukeratzen badute.

2. Zenbatespen objektiboaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikaziozkoa zaien jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko, sekzio honetako 2. azpisekzioan xedatutakoari jarraituko zaio.

31. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aukeratzea.

1. Zeinu, indize edo moduluen modalitatearen aplikazioa ondorioak izan behar dituen urte naturaleko martxoaren 1a baino lehen aukeratuko da; jarduera hasten baldin bada, aukera hori zentsuan alta emateko aitorpenean adieraziko da.

2. Artikulu honen 1. apartatuan aipatutako aukerak modalitatea aplikagarria den hurrengo urteetarako ere izango du balioa, non eta zergadunak, aipatu 1. apartatuan aurreikusitako epean, espresuki adierazten ez duen zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzeko aukeran atzera egiten duela.

3. Aurreko apartatuetan aipatu den zeinu, indize edo moduluen modalitatea aukeratzeko nahiz modalitate horretan atzera egiteko, Zentsu Aitorpenaren 036 eredua erabiliko da, uztailearen 27ko 75/2004 Foru Dekretuak, enpresariak, profesionalak eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar dituzten zentsu aitorpenak arautzekoak, esandakoari jarraikiz.

32. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatetik kanpo geratzea.

1. Erregelamendu honek 38. artikuluan ezartzen dituen kopuruen mugak gainditzea aski izango da zeinu, indize edo moduluen modalitatetik kanpo geratzeko.

Muga horiek gainditzen diren urte naturala amaitu eta ondoko lehen urtean sortuko ditu bere ondorioak kanpoan geratzeak.

2. Zeinu, indize edo moduluen modalitatetik kanpo geratzeak berarekin ekarriko du jarduera ekonomikoen etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntaren arabera zehazteko beharra, non eta zergadunak modalitate erraztua aukeratzen ez duen erregelamendu honek 26. artikuluan xedatutakoaren arabera.

33. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin koordinatzea.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztuari edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziari uko egiten bazaio, zergadunak ezingo du aukeratu, berak egiten dituen jarduera guztietarako, zenbatespen objektiboaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea, ez eta aukera horretan atzera egin ere.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jarduera ekonomikoen etekin garbia kalkulatzeko zergadunak erabiltzen duen metodo edo modalitateak ez du garrantzirik izango zergadunak Balio Erantsiaren gaineko Zerga kalkulatzeko aukeratzen dituen erregimenei dagokienez.

34. artikulua. Kontabilitate eta erregistro betebeharrak.

Zergaren foru arauak 115.4 artikuluan jasotakoak ez du eragotziko Balio Erantsiaren gaineko Zergarako ezarrita dauden zerga obligazioak betetzen ote diren egiaztatzeko frogagiri nahiz erregistroak egin, gorde edo eramatea.

35. artikulua. Egozpen erregimenean dauden entitateak.

1. Zergaren foru arauak 11. artikuluan aipatutako entitateek jarduera ekonomikoak garatzen dituztenean, haien etekin garbia Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren zeinu, indize edo moduluen modalitatean kalkulatu ahal izango da, baldin eta bazkide, oinordeko, komunero edo partaide guztiak zerga honen zergadun pertsona fisikoak badira.

2. Zenbatespen objektiboaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzeko aukera eta, orobat, modalitate horretan atzera egiteko erabakia, bazkide, oinordeko, komunero edo partaide guztiek hartu beharko dute, foru dekretu honek 31. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Modalitate horren aplikazioa ez badute bazkide, oinordeko, komunero edo partaide guztiek aukeratzen, edo horiek guztiek ez badute atzera egiten, etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntari jarraituz kalkulatu da.

3. Zenbatespen objektiboaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea bazkide, oinordeko, komunero edo partaideen egoera indibidualak alde batera utzita aplikatuko da.

4. Etekin garbia kasu bakoitzean aplikagarri diren arau edo itunen arabera esleituko zaie bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei, eta horiek ez badira agerikoak Administrazioarentzat, esleipena zati berdinetan egingo da.

36. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea eta zuzeneko zenbatespena bateragarriak izatea.

Gertatzen bada zergadunak jarduera ekonomiko bat baino gehiago egiten dituela eta horietako batzuen etekina zeinu, indize edo moduluen arabera kalkulatu daitekeela, zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatu beharko die jarduera guztiei, baina burutzen dituen gainerako jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren bitartez kalkulatzea eragotzi gabe.

Alabaina, urtearen barruan jarduera ekonomikoren bat hasten denean, aurreko paragrafoan jasotako arauak ez du urte horretarako ondoriorik izango.

2. azpisekzioa: etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize eta moduluen modalitatean zehaztea.

37. artikulua. Jarduera independenteak.

1. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzearen ondorioetarako, jarduera independenteak erregelamendu honek 38. artikuluan berariaz jasotakoak izango dira.

2. Jarduera bakoitzaren barruan sartzen diren eragiketa ekonomikoen zehaztapena Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren arauari jarraituz egin beharko da, aplikaziozkoak diren neurrian.

38. artikulua. Zeinu, indize edo moduluen modalitatearen aplikazio eremua.

1.¹⁸ Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea jarraian zerrendatzen diren jardueri edo jarduera sektoreei aplikatuko zaie, betiere horietako bakoitzerako ezartzen diren kopuruak gainditzen ez badira:

Taldea edo epigrafea (JEZ)	Jarduera ekonomikoa	Magnitudea
0 saila	Abeltzaintza independentea. Abereak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezitik kanpo dauden nekazari eta abeltzainek eginiko beste zerbitzu eta lan osagarri batzuk. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezian sar daitekeen nekazaritza edo abeltzaintza jarduera.	10 langile
—	Baxurako arrantza.	-----
647.1	Txikizka saltzea edozein motatako janari eta edariak establezimendu saltzailedunetan.	3 langile
647.2	Txikizka saltzea autozerbitzu erregimenean edo erregimen mistoan edozein motatako janari eta edariak, 120 metro karratuko azalera baino gutxiagoko saltokia duten establezimenduetan.	3 langile
662.2	Txikizka saltzea edozein motatako artikuluak, janari eta edariak barne, 661 taldean eta 662.1	3 langile

¹⁸ Apartatu hau abenduaren 23ko 39/2010 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua Bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunean jartzen da indarrean (2010-12-29ko GAO). Aldaketa honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

	epigrafean zehaztu ez diren establezimenduetan.	
663.1	Txikizka saltzea merkataritzako establezimendu finko batetik kanpo, elikagaiak, edari eta izozkiak barne.	2 langile
663.2	Txikizka saltzea merkataritzako establezimendu finko batetik kanpo, ehun eta jantzi gaiak.	2 langile
663.3	Txikizka saltzea merkataritzako establezimendu finko batetik kanpo, oinetakoak, larruak eta larrugaiak.	2 langile
663.4	Txikizka saltzea establezimendu finko batetik kanpo, drogeria, kosmetika eta, oro har, kimikazko produktuak.	2 langile
663.9	Txikizka saltzea merkataritzako establezimendu finko batetik kanpo, beste edozein motatako merkatalgaiak, beste inon sailkatu gabeak, salbu salgai jartzen diren artikuluei edo produktuei Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baliokidetasun errekaruaren erregimen berezia aplikagarri ez bazaie.	2 langile
671.4	Bi sardeskako jatetxeak.	10 langile
671.5	Sardeska bakarreko jatetxeak.	10 langile
672.1, 2 y 3	Kafetegiak.	8 langile
673.1	Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak.	8 langile
673.2	Bestelako kafetegi eta tabernak.	8 langile
681	Izar bat edo biko hotel eta moteletan ostatu ematea.	15 langile
682	Hostal eta pentsioetan ostatu ematea.	12 langile
683	Arroztegi eta apopilo etxeetan ostatu ematea eta zerbitzu berbera eskaintzea landa turismoko ostatueta hauek nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzaren jarduera osagarri ez direnean.	12 langile
691.1	Etxeko elektragailuak konpontzea	3 langile
691.9	Bestelako kontsumo gaiak, beste inon sailkatu gabeak, konpontzea (oinetako konponketa eta	2 langile

	artelanen, altzarien, zaharkinen eta musika tresnen zaharberrikuntza izan ezik).	
721.2	Autotaxi bidezko garraioa.	3 ibilgailu edozein egunetan
721.3	Bidaiarien errepide bidezko garraioa.	5 ibilgailu edozein egunetan
722	Merkantzien errepide bidezko garraioa	5 ibilgailu edozein egunetan

2. Artikulu honetan aipatzen den langile kopurua zehazteko, aurreko lehen urtean jardueran aritu den denboraren batez besteko ponderatua kalkulatu behar da.

Soldatapean daudenak nahiz ez daudenak hartuko dira langile enplegatutzat.

Soldatapean ez dagoen pertsona enpresaria da, baldin eta jardueran benetan lan egiten badu, ondorio hauetarako jardueraren zuzendaritza, antolaketa eta plangintza lanak barne hartuta eta, oro har, jardueraren titularitateari lotutako lanak.

Ezkontidea edo izatezko bikote laguna eta harekin bizi diren adingabeko seme-alabak ere halakotzat hartuko dira, baldin eta, jardueran benetan arituta, soldatapeko langileak ez badira ondorengo apartatuan jasotzen denaren arabera.

Soldatapeko langiletzat hartuko da jardueran aritzen den beste edozein pertsona.

Partikularki, soldatapeko langiletzat hartuko dira bere ezkontidea edo izatezko bikote laguna eta, adingabeak direnean, zergadunarekin bizi diren bere seme-alabak, baldin eta lan kontratua egon eta Gizarte Segurantzaren erregimen orokorra afiliazioa izan arren, zergadunaren jarduera enpresarialean iraunkortasunez lan egin ohi badu.

Apartatu honetan lehendabiziko paragrafoan aipatutako batez besteko ponderatua zehazteko, erregela hauek erabiliko dira:

- Kontuan hartuko den ordu kopuru bakarria aurreko lehen urtean jardueran egindakoa izango da.

- Jarduera batean aritzen denak urtean gutxienez 1.800 ordu egiten dituenean soldatapekoa ez den langile bezala konputatuko da. Urtean egindako ordu kopurua 1.800etik beherakoa denean, soldatapekoa ez den langilearen ordu kopurua kalkulatzeko urtean benetan egindako ordu kopuruaren eta 1.800 orduen arteko proportzioa hartuko da.

Unitatetik beherako konputua onartuko da baldin eta zergaren aitorpenarekin batera aurkezten badira urteko 1.800 ordu baino gutxiago egiten direla une bakoitzean frogatzen duten dokumentuak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, enpresaria denean, unitatetik beherako konputua bakarrik onartuko da ekitaldian zirkunstantzia hauetako bat gertatu denean:

- Jardueraren alta edo baja urte naturalaren barruan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.
- Nork bere kontura edo besteren kontura beste jarduera bat egitea.
- Aldi baterako ezintasuna dakarten egoerak.
- Jarduera etetea zergadunari leporatu ezin zaizkion zirkunstantzia bereziengatik.

Era berean, unitatetik beherako konputua onartuko da enpresariaren erretiroa, erabateko ezintasuna edo elbarritasun handia frogatzen denean. Kasu horietan, jardueraren zuzendaritza, antolaketa eta plangintza lanak eta, oro har, jardueraren titularitateari lotutako lanak kuantifikatzeko, enpresaria urteko 0,25 pertsona gisa konputatuko da, salbu benetako dedikazio handiagoa edo txikiagoa frogatzen bada.

- Jarduera batean aritzen denak dagokion hitzarmen kolektiboan langile bakoitzerako finkatutako urteko ordu kopurua egiten duenean, edo hitzarmen horren ezean, 1.800 ordu lan egiten baditu, soldatapeko langile bezala konputatuko da. Urtean egindako ordu kopurua txikiagoa edo handiagoa denean, soldatapeko langilearen ordu kopurua kalkulatzeko benetan egindako ordu kopuruaren eta hitzarmen kolektiboan finkatutako orduen arteko proportzioa hartuko da, edo bestela, egindako ordu kopuruaren eta 1.800 orduen arteko proportzioa.

Jardueraren lehen urtean, hasieran dauden langile edo ibilgailuen kopurua hartuko da kontuan.

Merkantzien errepide bidezko garraio jardueraren magnitudea konputatzeko (JEZaren 722 epigrafea), jarduera nagusia eta edozein jarduera osagarri egiteko erabiltzen diren ibilgailuak hartuko dira kontuan.

Ondorio horiei begira, jarduera bat osagarritzat hartuko da bere sarrera kopuru osoa jarduera nagusiaren kopuru osoaren %40 baino handiagoa ez denean.

39. artikulua. Etekin garbia zenbatespen objektiboaren zeinu, indize edo moduluen modalitatean kalkulatzea.

1. Zergadunek modalitate hau aplikagarri duen jarduera bakoitzagatik kalkulatu beharko dute dagokion etekin garbia.
2. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen den etekin garbia zergadunak berak kalkulatu beharko du jarduera bakoitzari Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak ekitaldi bakoitzerako onartzen dituen zeinu, indize edo moduluak egotziz eta berak ezartzen dituen instrukzioak aplikatuz.
3. Modalitate honetan dagoen jarduera urtarrilaren 1az geroztik hasi bada edo abenduaren 31 baino lehen amaitu, zergadunak proportzionalki aplikatuko ditu zeinu, indize edo moduluak, urte naturalean zehar jardueran aritu den denbora kontuan hartuz.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez da denboraldiko jardueretan aplikatuko.

4. Edonola ere, modalitate honen erregelak aplikatuz ateratzen den etekin garbiari jarduera ekonomikoari atxikita dauden elementuak besterenganatzeagatik izandako irabaziak edo galerak gehitu edo kenduko zaizkio, zergaren foru arauak 26.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

5. Zenbatespen objektiboaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzeak inoiz ez ditu zergapetu gabe utziko jarduera ekonomikoaren benetako etekinak.

Jarduera ekonomikoaren benetako etekinaren eta etekin garbia zehazteko modalitate hau egoki aplikatuz ateratzen denaren artean alderik sortzen bada, egokitzen den kuota ordaindu edo itzuli beharko da, eta ezingo da sarrera epez kanpo egiteagatik errekar gurik exijitu, ezta berandutza interesik edo zigorrik ere.

40. artikulua. Zeinu, indize edo moduluak murriztea eta etekina gutxitzea aparteko egoerak direla eta.

1. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikagarri duten jarduera ekonomikoetan lapurreta, sute, uholde, hondorapen edo antzeko beste egoera apartekoak gertatzen direnean eta horiek sektore edo zona jakin batean eragiten dutenean, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak zeinu, indize edo moduluak murriztea baimendu dezake salbuespen gisa.

2. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikagarria duten jarduera ekonomikoetan sute, uholde, hondorapen edo ekipo industrialaren matxura handiak gertatzen direnean anormaltasun egoera larriak ekarriz jardueraren garapenean, aipatu kalte horien ondorioz zeinu, indize edo moduluak murriztea nahi duten interesatuek idatzi bat aurkeztu beharko diote Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiari eta bertan egoera horiek gertatu direla adierazi. Horrekin batera, egoki irizten dituzten frogak aurkeztuko dituzte eta, hala badagokio, jasandako kalteengatik jaso beharreko kalte-ordainen aipamena ere egingo dute.

Aurkezteko epea hogeita hamar egunekoa izango da, kalteak gertatzen diren egunetik aurrera.

Kalte horiek egiazkoak direla behin ziurtatu ondoren erabakiko da zeinu, indize edo moduluen murrizpena, eta zein epealdiri aplikatuko zaion ere adieraziko da.

Ebazteko epea bi hilabetekoa izango da idazkia aurkezten den egunetik aurrera. Zergadunari egotzi dakizkion atzerapenak ez dira horretarako kontuan izango.

Murrizpen horrek ondorioak izango ditu baimentzen den unetik aurrera egin behar diren eta kalteak gertatu diren urteko ordainketa zatikatuetan.

3. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikagarri duten enpresa jardueretan sute, uholde, hondorapen edo antzeko beste egoera apartekoak gertatzen direnean, eta horiek jardueraren ohiko prozesuarekin zer ikusirik ez duten gastuak sorrarazten dituztenean, interesatuek gastu horien zenbatekoan gutxitu ahal izango dute ateratzen den etekin garbia. Horretarako, zergadunek idatzi bat aurkeztu beharko diote Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiari eta bertan aparteko egoera horiek gertatu direla adierazi. Horrekin

batera, egoki irizten dituzten frogak aurkeztuko dituzte eta, hala badagokio, kalteengatik jaso beharreko kalte-ordainen aipamena ere egingo dute.

Aurkezteko epea hogeita hamar egunekoa izango da, aparteko egoerak gertatu diren egunetik aurrera. Zerga Administrazioak etekinaren murrizpena eragin duen zioa benetakoa den ala ez egiaztatuko du, eta gauza bera egingo du haren zenbatekoarekin.

Zenbaki honetan jasotako gutxipena bateraezina izango da, ondare elementu berberentzat, artikulua honen 2. apartatuan jasotakoarekin.

III. kapitulua: kapitalaren etekinak.

1. sekzioa: kapital higiezinaren etekinak.

41. artikulua. Etxebizitzetatik eratorritako kapital higiezinaren etekintzat hartzea.

Zerga honen ondorioetarako, zergaren foru arauak 35.1 artikuluan jasotakoaren arabera etxebizitzetatik eratorritako kapital higiezinaren etekinak sartuta daude etxebizitzaren edo horien usufuktu eskubide errealeen titularrek lortutako etekinen artean, 2002ko abenduaren 30eko 316/02 Dekretuak, Etxebizitza Hutsaren Programa sustatu eta bultzatzekoak, jasotako xedapenetara biltzen direnean edo Sozietateen gaineko Zergaren araudiak jasotako etxebizitza errentamenduan aritzen diren entitateen erregimen berezira bildutako sozietateei etxebizitzak laga edo alokatzen dizkietenean.

42. artikulua. Etxebizitzatik eratorriak ez diren kapital higiezinaren etekinetatik ken daitezkeen gastuak.

Zergaren foru arauak 35.2. artikuluan aipatzen dituen kasuetan, etekin garbia kalkulatzeko ondoko hauek hartuko dira gastu kenkariduntzat: etekina lortzeko beharrezkoak izan diren gastu guztiak eta etekin horren sortzaile diren ondasun eta eskubideetan erabileraren edo denboraren poderioz eragindako narriaduraren zenbatekoa. Dena den, gastu kenkaridunen baturak ez du ekarriko, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.

Bereziki, aurreko paragrafoan aipatzen diren gastuen artean honako hauek sartuko dira:

a) Etekinen sortzaile diren ondasunak, eskubideak edo erabilera nahiz gozamen ahalmenak erosi, birgaitu edo hobetzeko inbertitzen diren besteren kapitalen interesak, eta gainerako finantzaketa gastuak.

b) Estatukoak ez diren zerga eta errekariguak eta, era berean, estatuko tasak eta errekariguak, beren izena edozein dela ere, baldin eta konputatutako etekinetan edo horiek sortzen dituzten ondasun eta eskubideetan eragiten badute eta zigortzaileak ez badira edo, bestela, zerga obligazioak berandu betetzeagatik ezarri ez badira.

c) Hirugarren batek zuzeneko edo zeharkako kontraprestazio gisa, edo zerbitzu pertsonalengatik, hala nola administrazio, zaintza, atezaintza edo antzekoengatik, sortutako zenbatekoak.

d) Eskubideak errentan edo azpierrean eman, laga edo eratzeagatik sortutakoak, eta ondasun, eskubide edo etekinen defentsa juridikoari dagozkion gastuak.

e)¹⁹ Artapen eta konponketa gastuak. Halakotzat hartuko dira ondoko hauek:

-Ondasun materialen ohiko erabilera mantentzeko noizean behin egiten direnak, hala nola instalazioen margoketa, entokadura edo konponketa.

-Berogailu instalazioak, igogailuak, segurtasun atekak eta abar bezalako elementuak aldatzeko egiten diren gastuak.

Ondasunak handitu edo hobetzera zuzendutako zenbatekoak ez dira kontzeptu honengatik kenkaridunak izango.

f)²⁰ Etekinak sortzen dituzten ondasun edo eskubideen gaineko aseguru kontratuak egiteko (erantzukizun zibilekoak, suteen aurkakoak, lapurretakoak, kristal apurketakoak edo antzeko beste batzuk) ordaintzen diren primak.

g)²¹ Zerbitzu eta horniduretarako zenbatekoak.

h)²² Ondorengo artikuluan ezartzen diren baldintzetan amortizatorako zuzentzen diren zenbatekoak.

43. artikulua. Etxebizitzatik eratorriak ez diren kapital higiezinaren etekinetatik ken daitezkeen amortizazio gastuak.

1. Zergaren foru arauak 35.2. artikuluan aipatzen dituen kasuetan, kapital higiezinaren etekin garbia kalkulatzeko, gastu kenkariduntzat hartuko dira ondasun higiezina eta honekin batera lagatako ondasunak amortizatzen zuzenduriko zenbatekoak, baldin eta beren benetako balio-galerarekin bat badatoz.

¹⁹ Letra hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUaren 1. artikuluan Lehen ordinaletako Bi apartatuak edukia kendu dio eta f) letra e) letra bezela izendatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den. (2009-12-30eko GAO).

²⁰ Abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUaren 1. artikuluan Lehen ordinaletako Bi apartatuak lehenagoko g) letra f) letra bezela izendatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den. (2009-12-30eko GAO).

²¹ Abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUaren 1. artikuluan Lehen ordinaletako Bi apartatuak lehenagoko h) letra g) letra bezela izendatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den. (2009-12-30eko GAO).

²² Abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUaren 1. artikuluan Lehen ordinaletako Bi apartatuak lehenagoko i) letra h) letra bezela izendatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den. (2009-12-30eko GAO).

2. Amortizazioek honako kasu hauetan beteko dute benetakotasun baldintza:

a) Ondasun higiezinak badira: ordaindutako erosketa kostuari %3 aplikatuz ateratzen den emaitza urte bakoitzean gainditzen ez dutenean, lurzoruaren kostua konputuan sartu gabe.

Lurzoruaren balioa ez bada ezagutzen, erosketa kostua urte bakoitzeko lurzoruaren eta eraikuntzaren balio katastralen artean hainbanatuz kalkulatu da.

b) Ondasun higikorrek badira, urtebetetik gorako epean erabil daitezkeenak eta ondasun higiezinarekin batera laga direnak: ordaindu diren erosketa-kostuei gutxieneko koefizienteak aplikatuz ateratzen den emaitza urtean gainditzen ez dutenean. Koefiziente horiek gehienezko amortizazio epeak aplikatuz aterako dira Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotzen den taularen arabera.

3. Etekinak ondasun eskubideen edo erabilera edo gozamen ahalmenen titularitateak datozenean, erosketa kostua amortizatu daiteke.

Kasu horretan, amortizazioa ondoko erregela hauen emaitza izango da:

a) Eskubide edo ahalmenaren iraupena mugatua denean, eskubide edo ahalmenaren erosketa kostua hark irauten duen urte kopuruarekin zatituz ateratzen dena.

b) Eskubide edo ahalmena biziartekoa denean, erosketa kostuari %3 aplikatuz ateratzen den emaitza.

4. Inoiz ere amortizazioen batura ez da handiagoa izango dena delako ondasun edo eskubidearen truke ordaindutako erosketa balioa baino.

44. artikulua. Denboran zehar modu irregular nabarmenez lortutako etxebizitzatik eratorriak ez diren kapital higiezinaren etekinak eta zatika jasotako etekinak, eta sortzealdiaren zehaztapena.

1. Zergaren foru arauak 33.3. artikuluan lehendabiziko paragrafoan jasotako %50eko integrazio portzentajea aplikatzeko, kapital higiezinaren etekinak denboran zehar modu irregular nabarmenez lortutakotzat joko dira honako hauek bakarrik direnean, beti ere zergaldi bakar bati egozten bazaizkio:

a) Negozio lokalen errentamendu kontratua eskualdatu edo lagaz lortutako kopuruak.

b) Ondasun higiezinaren eragindako kalteak direla-eta errentariak, azpierrentariak edo lagapen hartzaileak emandako kalte-ordainak.

2. Zergaren foru arauak 35.2 artikuluan jasotako kapital higiezinaren etekinek bi urtetik gorako sortzealdia dutenean eta zatika jasotzen direnean, zergaren foru arauak 33.3 artikuluan lehendabiziko paragrafoan jasotako %60 edo %50eko integrazio portzentajeak aplikatuko dira, baldin eta sortzealdiaren urte kopurua, datatik datara konputatuta, zatikapenaren zergaldien kopuruarekin zatituz ateratzen den emaitza bi urtetik gorakoa bada lehendabiziko kasuan eta bost urtetik gorakoa bigarrean.

3. Sortzealdia bi urtetik gorakoa dela agerian egon arren, ezin bada zehatz-mehatz finkatu, hiru urtekoa dela joko da.

2. sekzioa: kapital higikorren etekinak

45. artikulua. Aseguru kontratuen erabilpen partziala.

Gertatzen bada aseguru kontratuetan erabilpen partziala egiten dela, kapital higikorren etekina kalkulatzeko ulertuko da berreskuratu den kopurua lehenago ordaindu diren primei dagokiela, haien errentagarritasuna barne.

46. artikulua. Errenta geroratuak eratu arte lortutako errentagarritasuna zergapetzea.

Zergaren foru arauak 39.1.d) artikulua lehen paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, errenta geroratuak eratu arte lortzen den errentagarritasuna zergapeturik egongo da honako erregela hauen arabera:

1.- Errentagarritasuna eratzen den errentaren uneko balio finantzario-aktuarialak eta ordaindutako primen zenbatekoak elkarren artean duten aldea izango da.

2.- Errentagarritasun hori linealki banatuko da biziarteko errenta kobratzen den lehen 10 urteetan zehar. Aldi baterako errenta denean, linealki banatuko da hark irauten duen urteen artean, eta 10 urtez gehienez.

47. artikulua. Errenta modura jasotzen diren jubilazio edo elbarritasun prestazioengatik aseguru kontratu jakin batzuek bete beharreko baldintzak.

Zergaren foru arauak 39.1.d) artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoa aplikatu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1.- Prestazioak jasotzeko aukera ematen duten gertakizunak 2002ko azaroaren 29ko 1/02 Errege Dekretu Legegileak, Pentsio plan eta fondoan Legearen testu bateratuari buruzkoak, jasoak ditu 8.6 artikuluan, haietarako aurreikusitakoaren arabera.

2.- Aseguru kontratuak bere horniduretan mugimenduren bat izan duela ulertuko da, baldin eta betetzen ez badira 2002ko azaroaren 29ko 1/02 Errege Dekretu Legegileak, Pentsio plan eta fondoan Legearen testu bateratuari buruzkoak, eta hori hori garatzen duen araudiak eskubide ekonomikoen erabilerari buruz ezartzen dituzten mugak, enpresen aldetik pentsio konpromisoak hartzera eramaten duten aseguru kolektiboak dagokienez.

48. artikulua. Kapital higigarriaren zenbait etekinetan kenkaridunak diren gastuak.²³

²³ Artikulu hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUaren 1. artikulua lehen ordinalako Hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den. (2009-12-30eko GAO).

Kapital higigarriaren etekinak laguntza tekniko emateagatik, ondasun higigarri, negozio edo meategiak errentan emateagatik edo azpierrementuak egiteagatik lortzen direnean, etekin garbia zergaren foru arauaren 42.2 artikuluan aipatzen den eran kalkulatzeko, gastu kengarritzat hartuko dira erregelamendu honen 42. eta 43. artikuluetan jasotakoak eta behar bezala justifikatzen diren saldo kobragaitzak. Ondorio horietarako, ez da aplikatuko erregelamendu honen 42. artikuluko lehen paragrafoan gastu kengarrietarako ezarritako muga.

Honako kasuetan egongo dira saldo kobragaitzak behar bezala justifikatuta:

- Zorduna konkurtso egoeran dagoenean.

- Zergadunak kobratzeko egin duen lehen kudeaketatik zergaldiaren amaiera bitartean sei hilabete baino gehiago igaro denean inolako krediturik berritu gabe.

Saldo kobragaitz bat kenkaria egin ondoren kobratzen bada, sarrera bezala konputatuko da kobratzen den ekitaldian.

49. artikulua. Zergaren foru arauak 40 artikuluan jasotakoaren arabera denboran zehar modu irregular nabarmenez lortutako kapital higikorren etekinak, zatika jasotako etekinak, eta sortzealdiaren zehaztapena.

1. Zergaren foru arauak 42.3 artikuluan lehendabiziko paragrafoan jasotako %50eko integrazio portzentajea aplikatzeko, kapital higikorren etekinak denboran zehar modu irregular nabarmenez lortutakotzat joko dira honako hauek bakarrik direnean, beti ere zergaldi bakar bati egozten bazaizkio:

a) Errentamendu kontratua eskualdatu edo lagaz lortutako zenbatekoak.

b) Errentamendu kasuetan, kalteak direla-eta errentariak edo azpierrentariak emandako kalte-ordainak.

2. Kapital higikorren etekinek bi urtetik gorako sortzealdia dutenean eta zatika jasotzen direnean, zergaren foru arauak 42.3 artikuluan lehendabiziko paragrafoan jasotako %60 edo %50eko integrazio portzentajeak aplikatuko dira baldin eta sortzealdiaren urte kopurua, datatik datara konputatuta, zatikapen zergaldien kopuruarekin zatituz ateratzen den emaitza bi urtetik gorakoa bada lehendabiziko kasuan eta bost urtetik gorakoa bigarreanean.

3. Sortzealdia bi urtetik gorakoa dela agerian egon arren, ezin bada zehatz-mehatz finkatu, hiru urtekoa dela joko da.

IV. kapitulua: ondare irabaziak eta galerak.

50. artikulua. Erosketa balioaren zehaztapena.

1. Hala dagokionean, eskualdatzen diren ondare elementuen erosketa balioari fiskalki kenkaridunak diren amortizazioen zenbatekoa gutxituko zaio eta, edozein kasutan, gutxieneko amortizazioa konputatuko da, amortizazio hori gastutzat hartzen denentz kontuan hartu gabe.

Ondorio horietarako, gutxieneko amortizazioa honako hau izango da: dagokion ondare elementuari Sozietateen gaineko Zergaren araudiak aipatzen duen gehieneko amortizazio epetik eratorritako portzentajea edo, bestela, kasu bakoitzean dagokion portzentajea finkoa aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

2. Ondare elementua zergaren foru arauak 27. artikuluan aipatzen duen desafektazioaren ondoren eskualdatzen direnean, horien erosketa-balioa desafektazioaren egunari dagokion eguneratze koefizientea aplikatuz eguneratuko da.

3. Ondare irabazien edo galeren zenbatekoa zergaren foru arauak 49. artikuluan ezartzen dituen balorazio arau bereziak aplikatuz zehazten denean, eguneratze koefizienteak aipatu foru arauaren 47.2 artikuluan ezarritako eran aplikatuko dira. Aipatu koefizienteak erosketa balioa kalkulatzeko, kontuan izan beharreko zenbateko positibo eta negatiboak gertatzen diren urteetakoak izango dira.

51. artikulua. Salbuespena ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik.

1. Zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortzen diren ondare irabaziak zergapetu gabe egongo dira, baldin eta eskualdaketan lortutako zenbateko osoa beste ohiko etxebizitza bat erosteko berrinbertitzen bada artikulua honetan ezarritako baldintzetan. Eskualdatzen den etxebizitza erosteko zergadunak besteren finantzaketa erabili behar izan badu, eskualdatze balioari eskualdaketaren unean amortizatu gabe dagoen maileguaren tronkoa gutxituz ateratzen dena hartuko da, ondorio hauetarako bakarrik, lortutako zenbateko osotzat.

Ondorio hauetarako, etxebizitza birgaitzea erosketarekin parekatzen da zergaren foru arauak 90.6 artikuluan ezarritako eran.

Etxebizitza ohiko bezala kalifikatzeko, zergaren foru arauak 90.8 artikuluan eta erregelamendu honek 69. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Salmentan lortutako zenbateko osoa gehienez ere bi urteko epea igaro aurretik berrinbertitu beharko da, eskualdatu den egunetik aurrera, aldi bakarrean edo ondoz ondoko alditan.^{24 25}

²⁴ Abenduaren 23ko 84/2008 FORU DEKRETUAK, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta zerga horren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2009an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituenak, bere bigarren xedapen gehigarrian jarraian azaltzen dena ezartzen du:

«Bigarrena. Berrinbertsio epea ohiko etxebizitza etxebizitza berria erosi ondoren saltzen denean.

Bat. Ohiko etxebizitza 2006ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitartean erosi bada eta aurreko ohiko etxebizitza erosketa horren ondoren saltzen bada abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 51. artikuluan berrinbertsioagatik jasotzen duen salbuespena aplikatuta, hiru urtekoa izango da aurreko ohiko etxebizitzaren salmentarekin lortutako kopuruak berrinbertitzeko epea, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzeakoak, 51. artikulua 2. apartatuko azken paragrafoan aipatua.

Bi. Aurreko lehen apartatuan aipatutako kasuetan, etxebizitza bat ohiko etxebizitzatzat hartuko da abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 69.4 artikuluan jasotakoaren arabera, aurreko ohiko etxebizitza eskualdatzen den momentua edo, bestela, eskualdaketa egin aurreko hiru urteetako edozein egun aintzat hartuta.»

Xedapen gehigarri horrek Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (2008-12-31ko GAO).

²⁵ Abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUAK, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituenak, jarraian agertzen den xedapen gehigarria onartzen du:

Salmenta epeka edo prezio geroratuaz egiten denean, berrinbertsioa epe barruan egin dela ulertuko da baldin eta epeen zenbatekoa adierazitako helbururako erabiltzen bada epeak jasotzen diren zergaldiaren barruan.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa ez bada salmentaren urte berean egiten, zergadunak, ondare irabazia lortzen den ekitaldiko zergaren autolikidazioan, agerian utzi beharko du inbertitzeko asmoa duela adierazitako baldintza eta epeetan.

Era berean, berrinbertsioagatiko salbuespen eskubidea salmentan lortutako zenbatekoek ere emango dute baldin eta, ohiko etxebizitza saldu aurreko bi urteko epean ohiko etxebizitza berri bat erosi ondoren, zenbateko horiek etxebizitza berriaren prezioa ordaintzeko erabiltzen badira.

3. Berrinbertsioaren zenbatekoa salmentan lortutakoa baino txikiagoa denean, artikulua honetako baldintzetan inbertitutako kopuruari dagokion ondare irabaziaren zati proportzionala bakarrik salbuetsiko da zergatik.

4. Artikulu honetan ezartzen diren baldintzetako edozein ez betetzeak ondare irabazia zergapetzea ekarriko du berarekin.

Horrelakoetan, zergadunak ondare irabazia lortu den urteari egotziko dio salbuetsi ez den zatia, eta horretarako, autolikidazio osagarria egingo du, dagozkion berandutza interesak barne. Autolikidazio osagarria aurkezteko epea baldintzak bete ez diren egunean hasi eta baldintzak bete gabe gelditu diren zergaldiko autolikidazioa aurkezteko arauzko epearen amaiera bitartekoa izango da.

52. artikulua. Bazkide kopurua, ondarea eta partaidetzaren gehieneko portzentajea frogatzea inbertsio kolektiboko erakundeetan.

1. Zergaren foru arauak 50. artikuluan sozietate izaera duen inbertsio kolektiboko erakundeei exijitutako gutxieneko akziodun kopurua honela zehaztuko da:

a) Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen dituen eta zergaren foru arauak 50.1 artikuluan aipatzen dituen inbertsio kolektiboko erakundeetarako, erakundeak 1309/2005 Errege Dekretuak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduari buruzkoak, 25. artikuluan jasotakoaren arabera Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eskualdaketa edo itzulketaren aurretik bidali dion hiruhilabeteko azken txostenean jasota agertzen den akziodun kopurua.

“Bigarrena. Berrinbertsio epea ohiko etxebizitza zaharra etxebizitza berria erosi ondoren saltzen denean.

Bat. Ohiko etxebizitza 2009ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra bitartean erosi bada eta aurreko ohiko etxebizitza erosketa horren ondoren saltzen bada abenduaren 29ko 10/2009 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 51. artikuluan berrinbertsioagatik jasotzen duen salbuespena aplikatuta, hiru urtekoa izango da aurreko ohiko etxebizitzaren salmentarekin lortutako kopuruak berrinbertitzeko epea, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoak, 51. artikuluan 2. apartatuko azken paragrafoan aipatua.

Bi. Aurreko lehen apartatuan aipatutako kasuetan, etxebizitza bat ohiko etxebizitzatzat hartzeko abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 69.4 artikuluan jasotakoaren arabera, aurreko ohiko etxebizitza eskualdatzen den momentua edo eskualdaketa egin aurreko hiru urteetako edozein egun hartuko da aintzat.”

b) Zergaren foru arauak 50.2 artikuluan jasotako inbertsio kolektiboko erakundeetarako, Espainian establezimendua duen eta inbertsio kolektiboko erakundeak edo horren entitate kudeatzaileak horretarako izendatu duen entitate merkaturatzaile bakar batek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eskualdaketa edo itzulketa dataren aurretik merkaturatutako atal edo azpifondo bakoitzari buruz bidali dion urteko azken komunikazioan jasota agertzen den akziodun kopurua. Aurretik jasotakoaren eta ondorengo apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, komunikazio horretan ondoko hauek jaso beharko dira: atal edo azpifondo bakoitzaren akziodunen kopuru osoa, erakunde, atal edo azpifondoaren ondare osoa, eta aurreko datuen data; era berean, gehienez urtebeteko baliagarritasun epea izango du aipatu datatik aurrera.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak informazio hori jendaurrean jarriko du, eta letra honetan aipatutako informazioaren beharkizun teknikoak eta komunikazio prozedurak zehaztuko ditu.

2. Sozietate izaera duen inbertsio kolektiboko erakunderen batek esku hartzen duen eragiketei dagokien zergaren foru arauak 50. artikuluan jasotako gerorapen erregimenera bildu nahi duen zergadunak agiri bidez zera jakinarazi beharko die, eragiketa agintzerakoan, eskualdaketa edo itzulketako eta erosketako edo harpidetzako eragiketak egiten dituzten entitateei: inoiz ere ez duela parte hartu eragiketaren aurreko hamabi hilabeteen barruan inbertsio kolektiboko erakundearen kapitalaren %5ean baino gehiagotan. Aipatu entitateek zerga betebeharren iraungitze epearen barruan zergadunek jakinarazitako dokumentazioa gorde beharko dute, behar izanez gero Zerga Administrazioaren esku jartzeko.

V. kapitulua: balore edo partaidetza homogeenak.

53. artikulua. Balore edo partaidetza homogeenen kontzeptua.

Zerga honen ondorio soiletarako, balore edo partaidetza homogeenotzat hartuko dira jaulkitzaile berarengandik eratorri eta eragiketa finantzario berekoak direnak edo asmo bakar bati erantzuten diotenak, finantzaketaren lorpen sistematikoa barne, baldin eta eskualdaketa izaera eta erregimen berberak badituzte eta beren titularrei eskubide eta betebeharren antzeko eduki funtsezkoa ematen badiete.

Dena den, baloreen multzo baten homogeenotasunari ez dio eragingo haien artean ondokoak direla-eta balizko hainbat diferentzia egoteak: zenbateko unitarioa; zirkulazioan jartzeko datak; materiala eman edo prezioak finkatzeko datak; merkatuan jartzeko prozedurak, barne hartuta inbertsiogileen berariazko kategoriei zuzendutako tarte edo blokeak egotea; edo, izaera osagarria duen beste edozein aspektu. Partikularki, jaulkipena segidako tartetan zatikatzeak edo jaulkipenaren zabalkuntza aurreikusteak ez du aldatuko homogeenotasuna.

VI. kapitulua: denboraren arabera egozteak.

54. artikulua. Etekinak denboraren arabera egozteak.

1. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan eta berau garatzen duten arauetan etekinak denboraren arabera egozteko jasotzen diren irizpideak aplikatuko dizkiete beren jardueretatik datozen errentei, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotako berezitasunak eta hurrengo apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe. Era berean,

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak 59. artikulua 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoa ere aplikatuko da bertan aipatzen diren kasuetan egotzi gabeko errentei dagokienez.

2. 1.- Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzen dutenean, kobrantza eta ordainketa irizpidea aukeratu dezakete jarduera horietarako, sarrera eta gastuak denboraren arabera egozte aldera, betiere zergaren foru arauak 59.2.d) artikuluan aipatzen dituen baldintzak betetzen badira.

Irizpide hori Zerga Administrazioak onartua dela ulertzeko, autolikidazioan adieraztea baino ez da behar, eta gutxienez hiru urtez heldu beharko zaio hari.

2.- Apartatu honetan jasotako aukerak eraginkortasuna galduko du baldin eta aukera egin ondoren zergadunak etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arrauntari jarraituz zehaztu behar badu.

3. Etekinak hainbat urtetan sortutako egile eskubideen ustiapena lagatzetik datozenean, eskubideak sortu ahala egotzi ahal izango du zergadunak horien konturako aurrerakina.

4. Denboraren arabera egozteko irizpidea edo etekina zehazteko metodoa aldatzeak inoiz ere ez du berarekin ekarriko gastu edo sarreraren bat konputatu gabe geratzea edo beste ekitaldi batean berriro egozteak. Bidezko erregularizazioa aurretik egitea ezinbestekoa izango da egozpen irizpidea aldatzek.

5. Zergadunak atzerrira egoitza aldatuz gero zergadun izateari uzten badio, zergaren foru arauak 59.3 artikuluan jasotakoaren arabera, egoitza aldatu aurreko tokian zerga honengatik aitortu beharreko azken zergaldiari dagokion oinarri ezargarrian integratu behar dira egozteko dauzkan errenta guztiak. Gainera, hala badagokio, autolikidazio osagarri bat egin behar du, zigorrik, berandutza interesik eta inolako errekarrik gabe, hiru hilabeteko epean zergadunak egoitza aldatzeagatik zergadun izateari uzten dionetik aurrera.

VII. kapituluak: gauza bidezko errentak.

55. artikulua. Enpresako jantokiengatik sortutako gastuak gauza bidezko ordainketatzat ez hartzea.

1. Zergaren foru arauak 17.2.a) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, zerbitzu prestazioaren zuzeneko eta zeharkako formulak, lan legeriak onarturikoak, enpresako jantokietan enplegatuei prezio beheratuarekin egiten zaizkien produktu entregatzat hartuko dira baldintza hauek betetzen dituztenean:

1.- Zerbitzuaren prestazioa enplegatu edo langilearen lanegunetan egitea.

2.- Zerbitzuaren prestazioa enplegatu edo langileak erregelamendu honek 13. artikulua arabera zergatik salbuesten diren mantenu dietak sortarazten dituen egunetan ez egitea.

2. Zerbitzuaren prestazioa zeharkako formulen bidez egiten denean, aurreko apartatuan exijitzen diren baldintzez gainera, honako hauek bete beharko dira:

1.- Zeharkako formulen zenbatekoa ezingo da egunean 9 eurotik gorakoa izan. Eguneko zenbatekoa handiagoa bada, soberakina gauza bidezko ordainketa izango da. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak aldatu ahal izango du zenbateko hori.

2.- Enplegatu edo langileari zerbitzua emateko janari-txartelak edo antzeko agiriak, txartelak edo ordaintzeko beste edozein bitarteko elektroniko ematen bazaizkio, hau hartu beharko da kontuan:

a) Zenbatuta eta hartzailearen izen-deiturak adierazita egin beharko dira, eta enpresa emailea eta, paperean ematen direnean, zenbateko nominala jasoko dira bertan.

b) Transferiezinak izango dira, eta egun batean kontsumitu gabeko zenbatekoa ezin izango da beste egun baterako metatu.

c) Horien zenbatekoa ezingo da ez enpresatik ez hirugarren batengandik berreskuratu.

d) Ostalaritza establezimenduetan baino ezingo dira erabili.

e) Txartelak ematen dituen enpresak enplegatu edo langile bakoitzari emandako agirien zerrenda bat eduki eta gorde beharko du, eta bertan adierazi:

- Janari-txartelak edo antzeko agiriak badira, agiri zenbakia, emate eguna eta zenbateko nominala.

- Txartelak edo ordaintzeko beste edozein bitarteko elektroniko bada, agiri zenbakia eta egun bakoitzean emandako kopurua (egun horiek adierazita).

56. artikulua. Langileen seme-alabei haur hezkuntzako lehen zikloaren zerbitzua emateko erabilitako kopuruak.

Zergaren foru arauak 17.2.b) artikuluan langileen gizarte eta kultur zerbitzuetara zuzendutako ondasunei buruz jaso dituen zeharkako formulen ondorioetarako, ez da gauza bidezko ordainsaritzat hartuko urteko 1.000 euro gainditzen ez duen kopurua.

57. artikulua. Lanean diharduten langileei akzio edo partaidetzak ematea.

1. Zergaren foru arauak 17.2.c) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, lanean diharduten langileei ematen zaizkien akzio edo partaidetzak ez dira gauzen bidezko lan etekintzat hartuko honako kasuak direnean:

1.- Akzio edo partaidetzak sozietate batek ematen dizkienean bere langile aktiboei.

2.- Akzio edo partaidetzak Merkataritza Kodearen 42. artikuluko baldintzak betetzen dituen sozietate talde batenak direnean eta talde horretako sozietate batek ematen dizkienean azpitalde bereko sozietateetan ari diren eta zerga hau ordaintzen duten langileei. Akzio edo partaidetza horiek taldeko sozietate nagusiarenak badira, akzio edo partaidetzak talde horretako sozietateetan ari diren eta zerga hau ordaintzen duten langileei ematen zaizkienean.

Aurreko bi kasuetan, akzio edo partaidetzak langileak diharduen sozietateak berak nahiz taldeko beste sozietate batek eman ditzake, edo bestela akzioen titularrak den ente publikoak, sozietate estatalak edo herri administrazioak.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoa aplikatu ahal izateko honako beharkizun hauek bete beharko dira:

1.-²⁶ Batetik, eskaintza baldintza berdinetan egitea langileek enpresan nahiz enpresak talde edo azpitalde batean parte hartzeko plan batean jasotako kategoria edo kolektibo bakoitzean sartutako langile guztiei, soldata politika orokor baten barruan, eta, bestetik, eskaintza horrek langileek enpresan parte hartzen laguntzea. Zenbaki honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, partaidetza planak definitu egin beharko ditu, gutxienez, planak berak eragiten dien langileen kategoria eta kolektiboak identifikatu ahal izateko irizpideak. Artikulu honetan jasotakoa ez zaie aplikatuko onuradunak irizpide horien arabera izendatu ez diren partaidetza planetan oinarriturik egindako eskaintzei.

2.- Langile bakoitzak eta, honekin batera, ezkontideek edo izatezko bikote lagunek edo laugarren mailarainoko senideek ez edukitzea, zuzenean edo zeharka, %5etik gorako partaidetza lan egiten duen sozietatean edo taldeko beste edozeinetan.

3.- Tituluak bost urtez mantentzea gutxienez.

Aurreko 3. zenbakian aipatzen den epea ez betetzeak berarekin ekarriko du behar den zenbatekoa eta dagozkion berandutza interesak ordaintzea. Horretarako, autolikidazio osagarria aurkeztuko da baldintza bete ez den egunean hasi eta baldintza bete gabe gelditu den zergaldian autolikidazioa aurkezteko arazko epearen amaiera bitartean.

58. artikulua. Langileria eguneratu, trebatu eta erreziklatzera zuzendutako kopuruak.

Zergaren foru arauak 17.2.d) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, instituzioek, enpresek edo enplegu-emaileek beren langileak eguneratu, trebatu eta birziklatzeko agindu eta beraiek zuzenean ordaintzen dituzten ikasketak ez dira gauza bidezko ordainketatzat hartuko beren jardueraren garapenagatik edo lanpostuen ezaugarriengatik beharrezkoak gertatzen direnean, beste pertsona edo entitate espezializatuek prestatuak izanik ere. Kasu horietan, lokomozio, mantenu eta egonaldi gastuetarako ordainketak erregelamendu honek 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz arautuko dira.

59. artikulua. Sozietateen sortzaile edo sustatzaileen eskubideak.

Gertatzen bada sozietate baten sortzaile edo sustatzaileek zerbitzu pertsonalen ordainketa gisa beretzat gordetzen dituzten eduki ekonomikoko eskubide bereziak entitatearen mozkinen portzentajea bat direla, horien balorazioa, gutxienez, aipatu

²⁶ 57.2 artikuluko 1 apartatu hau abenduaren 23ko 39/2010 FORU DEKRETUaren 1. artikulua Hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunean jartzen da indarrean (2010-12-29ko GAO). Aldaketa honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

eskubideei mozkinetan aitortzen zaien partaidetza bera ahalbidetzen duen kapital sozialaren balio baliokidearen %35ekoa izango da.

60. artikulua. Langileak teknologia berrietan trebatzeko kopuruak.

Ez dira gauza bidezko ordainsaritzat hartuko enplegatzaileek langileak teknologia berrietan trebatzeko erabiltzen dituzten kopuruak, zergaren foru arauak 17.2.e) artikuluan jasotakoaren arabera. Gastu horien artean sartuta daude Interneteko lotura egin, erraztu edo finantzatzeko kopuruak, eta Interneten loturarako behar diren ekipoak eta terminalak erosteko dohainik edo prezio beheratuz maileguak edo diru laguntzak eskaini edo ematek eratorritako gastuak (software eta periferikoak lotuta), bai eta langileek haiek lantokiz eta ordutegiz kanpo erabili ahal dituztenean ere.

61. artikulua. Heriotza edo elbarritasun arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboaren primak.

Zergaren foru arauak 17.2.i) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, ez dira gauza bidezko ordainsaritzat hartuko heriotza edo elbarritasun arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboko kontratuen primak, 500 euroko mugaraino.

VIII. kapitulua: aurrezpenaren errenta.

62. artikulua. Aurrezpenaren errenta, eta kapital propioak zergadunarekin lotutako entitateei lagaz lortu diren etekinak.²⁷

Zergaren foru arauak 65.b) artikuluan jasotako salbuespenaren ondorioetarako, foru arau horrek 38. artikuluan jasotzen dituen eta zergadunarekin lotutako entitateei kapital propioak lagaz lortuak diren kapital higigarriaren etekinak aurrezpenaren errentaren zati izango dira, handiagoak ez badira kapital lagapena zergadunak entitatearen fondo propioetan duen partaidetzaren hirukoitza izango balitz egokituko liratekeen etekinak baino. Soberakina errenta orokorraren zati izango da.

Muga hori zehazteko, kontuan hartuko da, alde batetik, entitate lotuak zergaren sortzapenaren aurretik itxitako azken ekitaldiko balantzean jasota dituen fondo propioen zenbatekoa eta, bestetik, zergadunak data horretan duen partaidetza portzentajea.

Baldin eta lotura bazkide edo partaideen eta entitatearen arteko harremanaren arabera definitzen ez bada, 100eko 5eko partaidetza portzentajea hartuko da kontuan.

IV. TITULUA: OINARRI LIKIDAGARRI OROKORRA.

63. artikulua. Aurreikuspen plan aseguruak.

²⁷ Artikulu hau abenduaren 23ko 39/2010 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunean jartzen da indarrean (2010-12-29ko GAO). Aldaketa honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

1. Zergaren foru arauak 72.5.b artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, ulertuko da aseguru kontratu batek estaldura nagusia erretiroa izateko beharkizuna betetzen duela, baldintza hau egiaztatzen denean: urte bakoitzaren amaieran lortutako erretiro eta mendekotasunerako hornikuntza matematikoen balioa gutxienez izatea heriotza edo ezgaitasun kapitalerako planaren hasieratik ordaindutako primen baturaren hirukoitza.

2. Aurreikuspen plan aseguruak aurrerapenez erabiltzea pentsio planen araudian jasotako kasuetan baimenduko da bakarrik.

Eskurapen aurreraturako eskubidea baloratzeko, hornidura matematikoaren zenbatekoa konputatuko da, eta hornidura horri ezin izango zaio aplikatu zigorrik, gasturik edo deskonturik.

Dena den, entitateari lotutako inbertsioak badaude, aurrerapenez erabiltzeko eskubidea horretarako atxikitako aktiboen merkatuko balioaz baloratuko da.

3. Aurreikuspen plan aseguru baten hartzaileak hartzaile den beste aurreikuspen plan aseguru batera edo batzuetara aldatu dezake bere hornidura matematiko osoa edo horren zati bat, edo, bestela, partaide den sistema banakakoaren edo elkartuaren pentsio plan batera edo batzuetara. Behin kontingentzia gertatuta, bakarrik planaren baldintzek horretarako aukera ematen badute aldatu ahal izango da hornidura.

Horretarako, hartzaile edo onuradunak helburuko entitate aseguratzaile edo kudeatzaileari jo behar du, eta eskaerarekin batera adierazi behar du zeintzuk diren mobilizazioa egingo duen sorburuko aurreikuspen plan aseguru eta sorburuko aseguru entitatea eta, hala badagokio, mobilizatuko den zenbatekoa. Eskaerarekin batera aseguru entitateari zuzendutako komunikazioa joango da, horrek traspasoa agindu dezan, eta hartzaile edo onuradunak aseguru entitateari emandako baimena ere jasoko da horrek haren izenean sorburuko aseguru entitateari eskatu diezaion hornidura matematikoa mobilizatu dezala eta hori egiteko behar den informazio finantzario eta fiskal guztia eman dezala.

Baldin eta hitzarmen edo kontraturik badago bitartekarien bidez edo beste entitate batzuetako sare komertzialen bidez mobilizazio eskaerak egiteko, eskaera establezimendu horietako edozeinetan aurkeztea entitate aseguratzaile edo kudeatzaileak egindakotzat hartuko da.

Gehienez bi laneguneko epean, helburuko entitate aseguratzaile edo kudeatzaileak beharrezko dokumentazio osoa edukitzen duenetik aurrera, horrek eskaera jakinarazi behar dio sorburuko aseguru entitateari, mobilizatorako arauko baldintzak bete izana egiaztatzearekin batera. Eta gutxienez honakoak adierazi behar dizkio: helburuko aurreikuspen plan aseguru, helburuko aseguru entitatea eta transferentziarako kontuaren datuak; edo, bestela, helburuko pentsio plana, atxikita dagoen helburuko pentsio fondoa, helburuko fondoaren entitate kudeatzaile eta gordailuzaina, eta transferentziarako kontuaren datuak jakinaraziko dizkio.

Gehienez bost laneguneko epean, sorburuko aseguru entitateak dokumentazioa jasotzen duenetik aurrera, horrek banku transferentzia agindu behar du eta helburuko entitate aseguratzaile edo kudeatzaileari traspasorako behar den dokumentazio finantzario eta fiskal osoa bidali.

Sorburuko aseguru entitatea aldi berean helburuko aurreikuspen plan aseguratua entitate aseguratzailea edo helburuko pentsio planaren kudeatzailea bada, hartzaileak eskaeran adierazi behar ditu mobilizatu nahi duen zenbatekoa eta traspasoa hartuko duen aurreikuspen plan aseguratua edo, bestela, helburuko pentsio plana eta atxikita dagoen helburuko pentsio fondoa. Sorburuko aseguru entitateak gehienez hiru laneguneko epean eman behar du transferentzia agindua, eskaera aurkezten denetik aurrera.

Hornidura matematikoa baloratzeko, mobilizazioa gauzatzen den eguna hartuko da kontuan. Dena den, aseguru kontratuan mobilizazioa gauzatu aurreko lan eguna har daiteke kontuan hornidura baloratzeko.

Entitateak berari atxikitako inbertsioak baditu, aldatzeko hornidura matematikoaren balioa aktiboen merkatuko balioa izango da.

Aldaketaren zenbatekoari ezin izango zaio zigorrik, gasturik edo deskonturik aplikatu.

Apartatu honetan aipatutako mobilizazioak egiteko, erabil daiteke Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta Pentsio Plan eta Fondoen Erregelamenduari buruzko 2004ko otsailaren 20ko 304/04 Errege Dekretua aldatzen duen 2007ko martxoaren 30eko 439/07 Errege Dekretuko 49.3 artikulua azken aurreko paragrafoan baimenduta dagoen sistema.

Artikulu honen 1. apartatuan jasotako baldintza betetzeko, aurreikuspen plan aseguratua batetik beste aurreikuspen plan aseguratua batera edo pentsio plan batetik aurreikuspen plan aseguratua batera mobilizatuz gero, aseguru kontratu berriaren primak eta hornidura matematikoa bakarrik konputatuko dira. Horretarako, sorburuko aurreikuspen plan aseguratuan, artikulu honen 1. apartatuan jasotako baldintza ere bete beharko da mobilizazioaren momentuan.

64. artikulua. Jarduera ekonomikoaren titularrak enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten duten borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpen propioak.

Jarduera ekonomikoaren titularrak oinarri ezargarri orokorretik murriztu ahal izango ditu, zergaren foru arauak 73.1.b) artikuluan jasotako eran, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpen propioak honako baldintzak betetzen direnean:

a) Ekarpenak borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egitea eta bera aldi berean bazkide babesle eta onuradun gisa agertzea.

b) Jarduera ekonomikoaren titularrak enplegatutako langileak edukitzea, enpleguko borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei kontribuzio edo ekarpen enpresarialak egitea eta azken horiek langile guztiei eragitea.

Ondorio horietarako, enplegatutako langiletzat hartzen da besteren kontura edo soldatapean aritzen den langilea bazkide babeslearekin lan harreman bat dela medio lotuta dagoenean, lan harreman berezia duten langileak barne hartuta.

Ondorengo baldintzak betetzen direnean ulertuko da jardueraren titularrak borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako kontribuzioek langile guztiei eragiten dietela:

a') Jarduera ekonomikoaren titularra bazkide babeslea izatea.

b') Enplegatutako langile guztiak jardueraren titularra bazkide babesle duen gizarte aurreikuspen enpresarialeko entitate batera bilduta egotea edo biltzeko moduan izatea, bertan sartzeko bi urtetik gorako antzintasuna eskatu gabe.

c') Kontribuzio enpresarialak akordio kolektiboaren edo antzeko xedapenen bidez finkatutako irizpideen arabera egin beharko dira edo, bestela, jardueraren titularra bazkide babesle duen borondatezko gizarte aurreikuspen enpresarialeko entitateak ezarriak dituen zehaztapenen arabera. Irizpide horiek proportzionaltasuna gorde behar dute zenbait parametro zenbakarriekin, hala nola soldatarekin, adinarekin, antzintasunarekin, langileen ekarpenen zenbatekoarekin edo bestelakoekin, eta proportzionaltasun horrek, bere aldetik, jarduera ekonomikoaren titularrari eta enplegatutako langile guztiei eragin beharko die.

65. artikulua. Autolikidazio osagarriak aurkezteko epea, gizarte aurreikuspeneko sistemen eskubide kontsolidatuak erabiltzean.

Zergaren foru arauak 72.10 eta 74.4 eta 3.c) artikuluetan eta zortzigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuko azken paragrafoan jasotakoaren ondorioetarako, gizarte aurreikuspeneko sistemetan kontsolidatutako eskubideak aurrerapenez erabiltzeagatik oinarri ezargarrian oker egin diren murrizpenak lehengoratzeko asmoz, autolikidazio osagarriak aurkeztu beharko dira erabilpen aurreratuaren egunetik aurrerapenez erabili diren zergaldiko autolikidazioaren arauzko epearen mugara bitarteko epean.

66. artikulua. Ekitaldiko oinarri ezargarrian murriztu ez diren soberakinen zerga tratamendua.

1. Partaideek, mutualistek, aseguratuek eta bazkideek zera eskatu ahal izango dute: zergaren foru arauak 73.3. eta 74.2. artikuluetan eta zortzigarren xedapen gehigarriaren 3.b) apartatuan jasotakoaren arabera oinarri ezargarri orokorrean murriztu ez diren kopuruak ondorengo bost ekitaldietan murriztu ahal izatea.

2. Mugak gainditzeagatik edo oinarri ezargarri orokorra nahikoa ez izateagatik ekarpenak murriztu ezin izan diren ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan egin beharko da eskaera.

3. Soberakin hori gertatzen den zergaldian aldi berean gertatzen direnean zergadunaren ekarpenak eta sustatzaileak edo bazkide babesleak egotzitako kontribuzioak, batzuei eta besteei dagokien soberakinaren zatia hurrenez hurreneko ekarpen eta kontribuzioen zenbatekoen proportzioan zehaztuko da.

4. Oinarri ezargarri orokorrari konpentsaziozko pentsioen zenbatekoa eta urteko mantenua gutxitzean emaitza positibo ateratzen den lehen ekitaldian egotziko dira, ondorengo bost ekitaldien barruan, soberakinak. Soberakinak egotziko badira, bete behar dira zergaren foru arauak 72., 73. eta 74. artikuluetan eta zortzigarren xedapen gehigarrian jarritako baldintza eta mugak.

5. Ekitaldian egindako ekarpenak eta aurreko zergaldietako soberakinen egozpenak aldi berean gertatzen direnean, ulertuko da aurreko urteetako ekarpenak murriztu direla lehenik.

V. TITULUA: KUOTAREN KENKARIAK.

I. kapitulua: kenkariak ezgaitasun eta mendekotasunarengatik.

67. artikulua. Minusbaliotasun maila frogatzea.

1. Zergaren foru arauak 24. eta 84. artikuluetan aipatutako ezgaitasuna zuzenbidean onartutako edozein bide erabiliz frogatu ahal izango zaio Zerga Administrazioari.

Dena den, ezgaitasunaren legezko izaera kasu hauetan hartuko da frogatutzat:

a) Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak edo autonomia erkidegoetako organoak ziurtatua denean.

Zentzu horretan, ziurtagiriak ez dira ondorio horietarako bereziki zertan eginak izan, eta aipatutako organoek luzatutako beste edozein agiri ere baliagarria izan daiteke, baldin eta bertan argi eta garbi adierazten bada zein den ezgaitasun maila eta nolako lotura duen zergaren foru arauak 24. eta 84 artikuluetan hurrenez hurren aipatutako baremoekin.

b) Gizarte Segurantzak edo Klase Pasiboen Erregimen Bereziak ezintasun iraunkorra dela-eta aitortutako prestazioa jasotzen denean, baldin eta hura aitortzeko zergaren foru arauak 24. eta 84. artikuluetan aipatutako minusbaliotasun edo ezgaitasun maila exijitzen bada.

Bereziki, honako kasutan joko da %33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila frogatuta dagoela: ezintasun iraunkor osoagatik, erabatekoagatik edo elbarritasun handiagatik pentsio bat aitortua duten Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, eta lanerako ezintasun iraunkorragatik edo baliaezintasunagatik jubilazio edo erretiro pentsio bat aitortua duten klase pasiboetako pentsiodunen kasuan.

Edozein modutara ere, ezintasunaren aitortpen judiziala Kode Zibilean jasotako arrazoiengatik ematen bada, zerga honetan %65eko edo hortik gorako minusbaliotasun maila duten pertsona ezgaituentzat aurreikusita dauden berariazko xedapenak aplikatuko dira.

2.²⁸ Zergaren foru arauak 24.3 artikuluan aipatutako hobariak izateko, langile aktibo eta desgaituaren izaerak aldi berean izaten direla frogatu behar da.

3.²⁹ Zergaren foru arauak 84. artikuluan aipatutako kenkaria izateko, ezintasuna ekarri duten zirkunstantziak zergaren sortzapen egunean gertatzen direla frogatu behar da.

²⁸ Apartatu hau maiatzaren 24ko 15/2011 FORU DEKRETUaren 1. artikulua bost apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2011-05-30eko GAO), eta aldaketak 2011-01-01etik aurrera ditu ondorioak

²⁹ Apartatu hau maiatzaren 24ko 15/2011 FORU DEKRETUaren 1. artikulua bost apartatuak gehitu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2011-05-30eko GAO), eta aldaketak 2011-01-01etik aurrera ditu ondorioak

Dena den, minusbaliotasun edo ezgaitasunaren izaera iraunkorra espresuki jasotzen denean edo horien kalifikazioaren balio epea zergaren sortzapen dataren barruan dagoenean, ez da exijituko minusbaliotasun edo ezgaitasunaren frogagiria sortzapen datari buruzkoa izatea.

68. artikulua. Mendekotasun maila frogatzea.³⁰

1. Pertsonak mendetasun egoeran daudela joko da, zergaren foru arauak 85. artikuluan jasotako eran, mendetasuna apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuak jasotakoaren arabera aitortua dutenean. Mendetasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean mendetasuna baloratzeko ezarrita dagoen baremoa onartu zuen aipatutako errege dekretuak.

2. Mendeko pertsona izatea eta mendetasun maila jakin bat edukitzea frogatzeko, Foru Aldundiko organo eskudunaren ziurtagiria, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuarena edo autonomia erkidegoetako dena delako organoaren ziurtagiria aurkeztu behar da.

Alde horretatik, ez da beharrezkoa izango ziurtagiriak ondorio horietarako bereziki eginak izatea. Aipatutako organoek luzatutako beste edozein agiri ere baliagarria izango da, baldin eta bertan argi eta garbi adierazten bada mendetasun maila zein den eta artikulua honen 1. apartatuan aipatutako baremoekin zer lotura duen.

3. Zergaren foru arauak 85. artikuluan aipatzen dituen kenkariak egin ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da mendetasun egoera zergaren sortzapen egunean bertan badagoela frogatzea.

II. kapitulua: kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik.

69. artikulua. Ohiko etxebizitzaren kontzeptua.

1. Oro har, ohiko etxe-bizitzatzat hartuko da zergadunak gutxienez hiru urteko epe jarraituan egoitza gisa daukan eraikina.³¹

³²Hala ere, etxebizitza ohikoa izan dela joko da, epe hori igaro ez arren, zergaduna hiltzen denean, edo ezinbestez etxebizitzaz aldatzera behartzen duten bestelako zirkunstantziak gertatzen direnean, hala nola: Etxebizitza ez egokitzea zergadunaren edo harekin bizi den ondorengo edo aurreko ahaidearen,

³⁰ Artikulu hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua Lehena ordinaletan Lau apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den. (2009-12-30eko GAO).

³¹ Paragrafo hau azaroaren 23ko 32/2010 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua Bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010-12-01eko GAO).

³² Paragrafo hau ekainaren 16ko 20/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua laugarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2009-06-23ko GAO). Aldaketa hau 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

ezkontidearen edo izatezko bikote lagunaren desgaitasun mailara edo zergaren kuota osoan kenkaria egiteko eskubidea ematen duen pertsonarenera, senar-emaztegaiak ezkontzea, senar-emazteak banantzea, izatezko bikotea desegitea, lantokia aldatzea, lehen enplegua edo beste enplegu bat lortzea, zirkunstantzia ekonomikoengatik etxebizitza epe barruan ezin ordaintzea, eta antzeko beste egoera batzuk gertatzea.

Ohiko etxebizitza kontzeptutik kanpo geratuko dira lorategiak, parkeak, igerilekuak eta kirol instalazioak, garajeak eta, oro har, etxebizitzatik bertatik kanpo dauden beste eranskin edo elementu guztiak, salbu elementu horiek etxebizitzarekin batera finka erregistratzen direnak osatzen badute.

Famili unitateko kideek ondasun higiezin hiritar bat baino gehiago dutenean jabetzan, horietako bakar bat hartuko da ohiko etxebizitzatzat. Horretarako, famili unitateak bere bizitza interesen eta harreman pertsonal, sozial eta ekonomikoen gune nagusitzat duena hartuko da ohikotzat.

2. Etxebizitza bat zergadunaren ohiko etxebizitza izateko, zergadunak berak benetan eta modu iraunkorrean bizi behar du bertan, hamabi hilabeteko epean etxebizitza erosi edo obrak amaitu direnetik aurrera.

Dena den, etxebizitza batek ohiko izaera galdu ez duela ulertuko da honelako zirkunstantzietan:

a) Zergaduna hiltzen denean, edo etxebizitzan bizitzea derrigorrez eragozten duten bestelako zirkunstantziak gertatzen direnean, artikuluko 1. apartatuan jasotakoari jarraikiz.

b) Zergadunak kargua edo enplegua dela-eta ohiko etxebizitza duenean eta berak erositako etxebizitza erabiltzen ez denean. Hori gertatzen denean, lehen aipatutako hamabi hilabeteko epea kargua edo enplegua uzten duenetik aurrera kontatuko da.

Lokalak etxebizitza gisa gaitzen badira, etxebizitza lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentzia ematen denetik aurrera hasiko da kontatzen apartatu honen lehen paragrafoan aipatutako hamabi hilabeteko epea.

3. Aurreko apartatuetan jasotako salbuespenak aplikagarriak direnean, ohiko etxebizitzaren erosketari dagokion kenkaria etxebizitza derrigorrez aldatzea dakarten edo bertan bizitzea eragozten duten zirkunstantziak gertatu arte egingo da, salbu zergadunak kargu edo enplegua dela-eta ohiko etxebizitza daukanean. Azken kasu honetan, kenkariak egiten jarraitu dezake kontzeptu horregatik, egoera horrek iraun eta etxebizitza erabiltzen ez den bitartean.

Ondorio horietarako, aurrekoarekin parekatuko da zergadunak etxebizitzaren beharra konpentsatzeko kopuruak jasotzen dituztenean eta, gainera, etxebizitza famili unitatetik kanpoko pertsonak erabilia ez denean.

4. Zergaren foru arauak 44.3.b) eta 51. artikuluetan jasota salbuespenak aplikatzeko bakarrik, zergaduna ohiko etxebizitza eskualdatzen ari dela ulertuko da artikuluko honetan jasotakoaren arabera eraikin hori une horretan bere ohiko etxebizitza denean edo, bestela, eskualdatu aurreko bi urteetako edozein egunetara arte halakotzat hartu denean.

70. artikulua. Ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatutako kasuak.

1. Ondorengo kasu hauek ohiko etxebizitzaren erosketaren parekoak izango dira:

a) Etxebizitza handitzea, baldin eta estali gabeko zatia estaliz edo beste edozein modu erabiliz bizitzeko azalera gehitzen bada modu iraunkorrean eta urteko sasoi guztietan.

b) Etxebizitza eraikitzea, subjektu pasiboak obren gastuak zuzenean ordaintzen dituzenean edo haien sustatzaileari aldezturik konturako zenbatekoak ordaintzen dizkionean, baldin eta obrak inbertsioa hasi zenetik lau urteko epea igaro baino lehen amaitzen badira.

c) Ohiko etxebizitza izango den ondasun higiezinaren azalera eskubidea erostea, hori herri titularitateko lurzoru baten gainean eratu denean.

d) Ohiko etxebizitzan egokitze lan eta instalazioak egitea, etxearen eta kalearen artean nahitaezko pasabide gisa erabiltzen diren elementu komunak aldatzea, hala nola eskailerak, igogailuak, korridoreak, atariak edo beste edozein elementu arkitektoniko, eta, era berean, ezgaituen edo mendetasuneko pertsonen komunikazio sentsorialaren oztopoak gainditu edo segurtasuna emateko balio duten dispositibo elektronikoak jartzea.

Era berean, kontzeptu honen barruan sartuta daude letra honetako azken aurreko paragrafoan aipatu diren pertsonetako batek errentari, azpierrenerari edo usufuktudun gisa okupatutako etxebizitzetan egiten diren egokitze lan eta instalazioak.

Egokitze lan eta instalazioak beharrezkoak izan behar dira, ezgaituen edo mendetasuneko pertsonen irisgarritasuna eta komunikazio sentsoriala errazten dutelako eta duintasunez moldatzeko aukera ematen dietelako. Aipatu beharra frogatzeko, erregelamendu honetako 67.1.a) eta 68.2 artikuluetan hurrenez hurren aipatutako organoetako batek egin behar du hari buruzko ziurtagiria.

Aipatu obrak honako hauek eginak behar dira izan: ezgaitua edo mendetasuneko pertsona den zergadunak, ezgaitu edo mendekotasuneko pertsona batekin bizi den zergadunak -hau da, aurreko edo ondorengo ahaide batekin, ezkontidearekin edo izatezko bikoteko lagunarekin-, zergaren foru arauak 84. edo 85. artikuluan, hurrenez hurren, jasotako kenkaria egiteko eskubide ematen dion ezgaitu edo mendeko pertsona batekin bizi den zergadunak eta, azkenik, beren ohiko etxebizitzaren elementu erkideak aldatzeko lanak ordaintzera behartuta dauden jabeak.

Letra honetan jasotako ondorioetarako, mendetasuneko pertsonatzat hartuko dira zergaren foru arauak 85.1 artikuluan jasotakoaren arabera halakotzat hartzen den pertsona guztiak.

2. Epaileak onartutako konkurtsoaren ondorioz, sustatzaileak eraikuntza lanak artikuluan honen 1. apartatuko b) letran aipatutako lau urteko epea bukatu aurretik amaitzen ez baditu edo etxebizitzak ezin baditu epe berean eman, aipatu epea beste lau urtez luzatuko da.

Hori gertatzen denean, aurreko artikulua 2. apartatuko lehen paragrafoan aipatutako hamabi hilabeteko epea etxebizitza ematen den egunetik aurrera hasiko da.

Apartatu honetan jasotako epe luzapenak ondorioa izateko, hasierako epea bete ez den zergaldiko aitorpenarekin batera zergadunak aurkeztu beharko ditu etxebizitza inbertsioen frogagiriak nahiz aipatu egoeretakoa bat gertatu izanaren beste edozein frogagiri.

Apartatu honetan aipatutako kasuetan, zergaduna ez dago diru sarrerarik egitera behartuta eraikitze lanak amaitzeko lau urteko epe orokorra ez-betetzeagatik.

3. Zergadunari leporatu ezin zaizkion eta obren etena dakarten salbuespeneko bestelako zirkunstantziengatik, obra horiek artikulua honen 1. apartatuko b) letran aipatutako lau urteko epea iragan aurretik amaitu ezin direnean, zergadunak epea luzatzeko eskatu diezaioke Zerga Administrazioari, lau urteko epea bete ez den egunaren ondorengo hilabetearen barruan.

Eskaeran epea ez betetzearen arrazoiak agertu behar dira, bai eta eraikuntza lanak amaitzeko behar den denbora ere. Azken epe hori ezingo da lau urtetik gorakoa izan.

Aurreko paragrafoan jasotakoaren ondorioetarako, zergadunak frogagiriak aurkeztu beharko ditu.

Zergadunak aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, Zerga Administrazioak epea luzatzea bidezkoa den eta zenbat luzatuko dion erabakiko du. Azkenean erabakitako epea ez da zergadunak eskatutakoarekin lotuta joango derrigorrez.

Hiru hilabeteko epean espresuki ebazten ez diren luzapen eskaerak ezetsizat hartuko dira.

Epearen ez betetzea gertatu den ondoko lehen egunetik aurrera hasiko da luzapenaldia.

4. Ez dira etxebizitza erosketatzat hartuko:

a) Artapen edo konponketa gastuak, erregelamendu honek 42. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

b) Hobekuntzak.

c) Garajeko plaza, lorategi, parke, igerileku eta kirol instalazioen erosketa eta, oro har, eranskinak edo erregelamendu honek 69.1 artikuluan jasotakoaren arabera ohiko etxebizitzaren kontzeptuaren barruan sartzen ez den beste edozein elementu.

5.³³ Birgaikuntzatzat hartuko dira jabeak bere ohiko etxebizitzan egindako obrak, baldin eta ebazpen batek jarduketa babestutzat kalifikatu edo aitortu baditu Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare hiritartua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera, edo, hala badagokio, abenduaren 12ko 2066/2008 Errege Dekretuak, etxebizitzari eta birgaitzeko jarduketei buruzko 2009-2012 estatu plana arautzekoak, edo hori

³³ Apartatu hau maiatzaren 24ko 15/2011 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua sei apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2011-05-30eko GAO), eta aldaketak 2011-01-01etik aurrera ditu ondorioak

ordezteko emandako antzeko araudiak jasotakoaren arabera jarduketa babestu gisa kalifikatu badira.

Aurreko paragrafoan jasotako ondorioetarako, jabeak ohiko etxebizitzan egindako obratzat hartuko dira zergadunak bere lokal batean etxebizitza gisa gaitzeko asmoz egindako lanak, betiere zergadunaren ohiko etxebizitza izango bada erregelamendu honek 69. artikuluan jasotakoaren arabera.

71. artikulua. Etxebizitza kontua.

1. Ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatuko dira kreditu entitateetan, beste edozein ezarpen mota batetik bereizitako kontuetan, gordailutatuko diru kopuruak, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosteko erabiltzen badira sei urte baino lehen.

Dena den, gordailutatuko kopuruak beste etxebizitza kontu batean ezarri arren ez da betetzat hartuko azken baldintza hori.

2. Kenkarirako eskubidea ondoko kasuotan galduko da:

a) Zergadunak kenkarirako eskubidea sortu duten eta etxebizitza kontuan gordailatu diren kopuruak bere ohiko etxebizitza erostea ez diren helburuetarako erabiltzen dituzenean eta, zergaren sortzapena gertatu baino lehen, kopuru horiek kreditu entitate bereko edo beste entitate bateko beste kontu batean osorik birjarri edo aldatzen ez direnean. Kopuruaren zati bat erabiliz gero, zergadunak erabilitako kopuruak lehendabizi gordailutatukoak direla ulertuko da.

b) Kontua ireki zenetik sei urte igaro direnean eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosteko erabili ez direnean.

c) Ohiko etxebizitza geroago erostean kenkari honetarako eskubidea sortzen duten baldintzak betetzen ez direnean.

3. Zergadun bakoitzak etxebizitza kontu bakarra izan dezake.

4. Etxebizitza kontuak bereizita identifikatuko dira zergaren autolikidazioan. Gutxienez datu hauek jarri beharko dira:

- Kontuari dagokion entitatea.
- Kontuaren zenbakia.
- Kontuaren irekitze data.
- Kontuaren saldoak ekitaldian izan duen gehikuntza.

72. artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik, eta salbuespena berrinbertitzeagatik.

Ohiko etxebizitzaren berrinbertsio salbuespena aukeratzen bada, zergaren foru arauak 90.3 artikuluan jasotako 36.000 euroko zifra gutxitzeko, zergadunak ondare irabazi salbuetsiaren %18 egotzi behar du, lehendabizi, etxebizitzaren salmenta ekitaldian.

73. artikulua. Familiaren etxebizitzara zuzendutako kopuruak ordaintzeko betebeharra, epaileak erabakita.

1. Epaileak erabakita, zergadunari bakarrik ezarri bazaio familiaren etxebizitzarengatik zergaren foru arauak 90.1. artikuluan aipatutako diru kopuruetako bat ordaintzeko betebeharra, hark eskubidea izango du autolikidazioan artikulua horretan aipatutako kenkaria egiteko.

Kasu horretan, kenkariak zergaren foru arauak 90. artikuluan aipatutako zergadun honen 36.000 euroko zifra gutxituko dute. Era berean, zergaren foru arauak eta erregelamendu honek jarritako gainerako baldintzak eta mugak aplikatuko dira.

2. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatu eta bakoitzaren autolikidazioan egingo da norberari dagokion proportzioan, zergaren foru arauak 90. artikuluan jasotako ehunekoak eta muga aplikatuta.

III. kapitulua: kenkaria jarduera ekonomiko bat hasteko inbertsioan kreditu entitateetan egiten diren gordailuengatik.

74. artikulua. Kenkaria egiteko baldintzak.

1. Zergadunek kenkaria egin ahal izango dute kreditu entitateetan, beste edozein motatako ezarpenetatik bereizitako kontuetan, gordailatzen diren kopuruengatik, baldin eta erabiltzen badira jarduera ekonomiko bat hasteko behar diren gastu eta inbertsioak gauzatzeko, zergaren foru arauak hogeita batgarren xedapen gehigarrian eta artikulua honen ondorengo apartatuetan jasotako beharkizun eta zirkunstantziak betez.

2. Aurreko apartatuan aipatutako kontuaren saldoa bakar-bakarrik erabili beharko da, hiru urte igaro baino lehen hura ireki denetik, jarduera ekonomiko bat abiatzeko edo bazkide fundatzaile gisa Sozietateen gaineko Zergari lotutako entitate sortu berri baten partaidetzak harpidetzeko.

Kenkari horren ondorioetarako, jarduera ekonomikoa egiten dela ulertuko da baldin eta zergaduna ez bada lehenago aritu, zuzenean edo zeharka, berri gisa egindakoaren antzeko izaera duen jarduera batean.

3. Honako gastu eta inbertsioak jotzen dira, besteak beste, jarduera ekonomiko bat hasteko beharrezkotzat:

a) Bakarrik jarduerari lotutako ibilgetu material eta inmateriala erostea, zergaren foru arauak 27. artikuluan jasotakoari jarraituz.

b) Eraketa gastuak eta lehen aldiz finkatzeko gastuak.

4. Baldin eta kontuaren saldoa erabiltzen bada Sozietateen gaineko Zergari lotutako entitate sortu berri baten partaidetzak harpidetzeko, partaidetzak ezin izango dira inter vivos moduan eskualdatu horiek erosi edo harpidetu ondorengo bi urteetan barruan. Gainera, entitate sortu berriak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Ondare sozietatetzat hartzeko zirkunstantziak ezin izango dira gertatu entitatea eratu ondorengo bi urteen barruan.

b) Entitate sortu berriak aurreko 3. apartatuan aipatutako gastu eta inbertsioetara zuzendu beharko ditu gehienez urtebeteko epean, balio osoz eratu denetik aurrera, kenkarira bildutako bazkideek jarri dituzten fondoak.

5. Kenkarirako eskubidea ondoko kasuotan galduko da:

a) Zergadunak kenkari eskubidea sortu duten eta artikulu honetan aipatutako kontuan gordailatu diren kopuruak aurreko apartatuan aipatutakoez besteko helburuetarako erabiltzen dituztenean eta kopuru haiek kreditu entitate bereko edo beste entitate bateko beste kontu batean osorik birjarri edo aldatzen ez direnean. Kopuruaren zati bat erabiliz gero, zergadunak erabilitako kopuruak lehendabizi gordailatutakoak direla ulertuko da.

b) Kontua ireki zenetik hiru urte igaro direnean, kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak artikulu honen 2. apartatuan jasotako helbururako erabili gabe.

c) Zergadunak hasitako jarduera ekonomikoak kenkari honetarako eskubidea sortzen duten baldintzak betetzen ez dituztenean.

d) Partaidetzek zergadunaren ondarean irauteko epea edo entitate sortu berriari jarritako baldintzak betetzen ez dituztenean.

6. Zergadun bakoitzak kontu bakarra eduki ahal izango du artikulu honen 2. apartatuan jasotako helburura zuzendutako diru kopuruak gordailatzeko, eta kenkari hau behin bakarrik gozatuko du zergadun bakoitzak.

7. Mota horretako kontuak bereizita identifikatuko dira zergaren autolikidazioan. Gutxienez datu hauek jarri beharko dira:

- Zein entitatetan ireki den kontua.
- Kontuaren zenbakia.
- Kontuaren irekitze data.
- Kontuaren saldoak ekitaldian izan duen gehikuntza, aurreko ekitaldiaren aldean.

IV. kapitulua: kenkari eskubidea galtzea.

75. artikulua. Kenkari eskubidea galtzea.

Zergaren foru arauak 90. eta 91. artikuluetan eta hogeita batgarren xedapen gehigarrian jasotako kenkarietan, horiek aplikatu ondorengo zergaldietan egindako kenkarirako eskubidea osorik edo zati batean galtzen denean, zergaduna behartuta egongo da beharkizunak bete ez diren ekitaldian sortutako kuota likidoari ondoko kopuruak gehitzera: okerreko kenkariaren zenbatekoak, eta Zergen Foru Arau Orokorrek aipatutako berandutza interesak.

VI. TITULUA: ZERGAREN KUDEAKETA.

I. kapitulua: autolikidazioak.

76. artikulua. Autolikidatzeko betebeharra.

1. Zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu eta sinatzera behartuta daude zergaren foru arauaren 104. artikuluan eta erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.

2. Autolikidazio ereduak eta autolikidazio modalitate erraztu edo berezien erabilera, era berean, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak onartuko ditu, eta horrexek finkatuko ditu aurkezpen modu, tokiak eta epeak nahiz euskarri telematikoen bitartez autolikidazioak aurkezteko kasuak eta baldintzak.

Zergadunek beraiei buruz eskatzen diren datu guztiak bete beharko dituzte autolikidazioetan, bai eta finkatuta dauden eta finkatzen diren dokumentu eta frogagiriekin batera aurkeztu ere.

3. Baterako tributazioa aukeratzen denean, famili unitatean adinez nagusiak diren kideek sinatu eta aurkeztuko dute aitorpena, eta horiek famili unitateko seme-alabak ordezkatzeko dituzte Zergen Foru Arau Orokorrak 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak zehaztutako bitartekoak, prozesu informatikoak edo beste mota batekoak eta zerbitzuak erabiliz edo baliatuz egin daitezke autolikidazioak.

77. artikulua. Autolikidatzeko betebeharretik salbuestea.³⁴

1. Zergadunek ez dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarik autolikidatu behar, lortu dituzten errentak honako hauek bakarrik direnean:

a) Lanaren etekin gordinak, 12.000 euroko mugarekin urtean, banakako tributazioan, ondorengo artikuluko h) letran aipatzen diren kasuetako batean sartuta daudenean izan ezik. Baterako tributazioan, muga hori etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

b) 12.000 eurotik gorako eta 20.000 euro bitarteko lan etekin gordinak urtean, banakako tributazioan, ondorengo artikuluan aipatzen diren kasuetako batean sartuta daudenean izan ezik. Baterako tributazioan, muga hori etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio

c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuetsitakoak barne bi kasuetan, baldin eta batera hartuta horien urteko kopurua 1.600 eurokoa baino handiagoa ez bada.

2. Aurreko apartatuan jasotakoa eragotzi gabe, konturako ordainketen itzulketa lortzeko, nahitaezkoa da autolikidazioa aurkeztea.

78. artikulua. Autolikidatzeko betebeharraren kasu bereziak.

1. Aurreko artikulua 1. apartatuko b) letran jasotakoa jasota ere, ondorengo kasu hauetako batean dauden zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztera behartuta daude:

³⁴ Artikulu hau ekainaren 16ko 20/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua bosgarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2009-06-23ko GAO). Aldaketa hau 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

a) Zergaldiaren barruan ordaintzaile batetik baino gehiagotik edo ordaintzaile beretik lan etekinak jasotzen dituzten zergadunak, baldin eta atxikipena egiterakoan etekin horiek ez badira metatzen kontzeptu berdinen edo desberdinen ondorioz ordainduak izateagatik, bai eta zergaldiaren barruan lan kontratu bat baino gehiago edo harreman laboral, administratibo edo antzeko bat baino gehiago izenpetu dutenak ere.

b) Kontratu edo lan harreman batean aurreikusitako epea behin amaiturik, enplegu emaille berarentzat lanean jarraitzen duten zergadunak edo zergaldiaren barruan berriro lanean hasten direnak, eta, halaber, beren lan kontratua edo harreman laboral, administratibo edo beste edozein motatakoa luzatu dutenak.

c) Epaileen aginduz, ezkontidearengandik edo izatezko bikote lagunarengandik pentsio konpentsagarriak edo gurasoenak ez diren urteko mantenurako ordainketak jasotzen dituzten zergadunak.

d) Foru erakundeek onartu ez duten araudi baten arabera kalkulatu diren edo Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiren batean ordaindu ez diren lanaren atxikipenak edo konturako sarrerak jasan dituzten zergadunak.

e) Ordainsariak egunbeteko sarika jasotzen dituzten zergadunak.

f) Arrantzontzietako langileak, baldin eta jasotzen dituzten ordainsariak, osorik edo zati batean, lortutako arrantzaren balioaren partaidetza bat badira.

g) Eraitzen edo antzeko parametroen arabera ordainsari aldakorak jasotzen dituzten zergadunak, beti ere ordainsari horiek atxikipen portzentajea edo konturako sarrera zergaren foru arauak 109. artikuluan jasotako moduan kalkulatzeko kontuan hartu direnak baino handiagoak badira.

h) Salbuespen, hobari, murrizketa, kenkari edo beste edozein zerga onuraz gozatzeko ezarrita dauden baldintza, epe edo zirkunstantzietako bat betetzen ez duten zergadunak, baldin eta horrek berarekin badakar Zerga Administrazioari zirkunstantzia horren berri ematea edo erregularizazio edo diru sarreraren bat egin behar izatea.

2. Aurreko apartatuko a) letratik g) letrara jasotako egoeretako batean aurkitzeagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztera behartuta dauden pertsonak honela aukeratu ahal izango dute:

- Zergaren xedapen orokorren arabera ordaintzea zerga; edo

- soilik lan etekinak kontuan hartuta ordaintzea zerga, ondoko araei jarraikiz:

a) Lan etekinetarako finkatutako atxikipen portzentajeen taulak aplikatuko dira, sortutako etekin mota horren zenbateko osoaren gainean, salbu zergaren foru arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita daudenak. Ondorio horietarako, atxikipenari lotutako etekinen zenbatekoak zehazteko arauak kontuan hartuko dira, bai eta zergaren sortzapen egunean indarrean dauden atxikipen taulen finkapen eta aplikazio arauak ere.

b) Lan etekinei egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa gutxituko zaio aurreko a) letran ezarritakoa aplikatu ondoren ateratzen den kopuruari. Hortik ateratzen den kopurua ordainduko zaio Foru Aldundiari, eta erregelamendu honek

80.2 artikuluan jasotakoaren arabera zatikatu daiteke. Tributatzeko prozedura hau erabiliz gero, inoiz ez da itzulketarik egingo.

c) Inoiz ez da aplikatuko gastu kenkaridunik, hobaririk, murrizpenik, kenkaririk, baterako tributazioaren erregelarik edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian jasota dagoen beste edozein pizgarririk.

79. artikulua. Autolikidazio proposamenak.

1. Foru Aldundiak autolikidazio proposamena bidal diezaieke ofizioz autolikidatzera behartutako zergadunei.

Proposamena ez jasotzeak ez du zergaduna salbuetsiko autolikidazioa aurkezteko betebeharretik.

2. Zergadunak uste badu bidalitako autolikidazio proposamenak ongi jasotzen duela bere zerga egoera dagokion zerga honen ondorioetarako, proposamena izenpetu edo baieztatu dezake telematikoki edo telefonoz, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak horretarako erabakitzen duen prozedurari jarraituta..

Apartatu honetan jasotakoaren arabera izenpetu edo baieztatutako proposamena aurkeztutako autolikidaziotzat hartuko da ondorio guztietarako, bereziki erregelamendu honek 80. eta 81. artikuluetan jasotako ondorioetarako.

3. Zergadunak ez badu sinatzen edo ez badio adostasunik ematen aurreko artikulua 2. apartatuan jasotakoaren arabera bidalitako autolikidazio proposamenari, jarduketa administratiboa ez dela egin joko da, eta zergadunak autolikidazioa aurkeztu beharko du Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak horretarako erabaki dituen beste prozeduretako bat erabilita.

4. Foru Aldundiak bidalitako autolikidazio proposamena artikulua honen 2. apartatuan jasotakoaren arabera izenpetu edo baieztatu duen zergadunari ezingo zaio zigorrik ezarri proposamenean adierazi diren datuak direla eta.

80. artikulua. Autolikidazioa eta zerga zorraren ordainketa.

1. Zergadunek, autolikidazioa aurkeztearekin batera, zerga zorra zehaztu behar dute, eta Ogasuneko eta Finantzetarako foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epeetan ordaindu.

³⁵2. Zilegi da autolikidaziotik ateratzen den zenbatekoa bi zatitan ordaintzea, batere interesik eta errekaririk gabe, eta horrek ez du eragotziko ordainketa geroratu edo zatikatzea martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, 64. artikuluan dioen moduan eta zergabilketa erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/20065 Foru Dekretuak 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituta. Honela zatikatuko da:

a) Lehen zatia, zenbatekoaren %60, autolikidazioa aurkezten den unean. Dena den, autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko modua, tokia eta epeak zergaldi

³⁵ Apartatu hau ekainaren 16ko 20/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua seigarren apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2009-06-23ko GAO).

bakoitzerako ezartzen dituen foru aginduan beste egun bat finkatu daiteke lehen ordainketa zatikatua helbideratze bankarior egiten den kasuetarako.

b) Bigarren zatia, gainerako %40a, autolikidazioa aurkeztu behar den urteko azaroaren 10ean beranduenik.

Ordainketa prozedura honetara biltzeko, ezarrita dagoen epearen barruan aurkeztu behar da autolikidazioa. Autolikidazio osagarrien ordainketa ezingo da zatikatu aurreko paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera.

3. Autolikidazio zerbitzu edo modalitate bereziak erabiltzen badira, autolikidazioaren zenbatekoa hura aurkeztu ondorengo egun batean ordaindu daitekeela xedatu daiteke.

81. artikulua. Ofizioz itzultzea.

Zergaren foru arauak 113. artikuluan aipatutako itzulketak eta ordainketa moduak Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak Foru Aginduan erabakitako moduan egingo dira.

II. kapitulua: betebeharrak formalak, eta kontabilitate eta erregistro alorrekoak.

1. sekzioa: zergadunen betebeharrak formalak.

82. artikulua. Betebeharrak formal orokorrak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak behartuta daude preskripzioaren gehieneko epean edo, bestela, bereziki jarritako epean, euren autolikidazioetan jaso beharreko edozein motatako eragiketa, errenta, gastu, sarrera, murrizpen eta kenkarien frogagiri eta egiaztatagiriak gordetzera, hala dagokionean horiek autolikidazio horiekin eta komunikazioekin batera ematera eta, horretarako eskatzen zaienean, Zerga Administrazioako organo eskudunei erakustera.

2. sekzioa: kontabilitate eta erregistro betebeharrak zuzeneko zenbatespenaren metodoan.

83. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arruntera bildutako zergadunen betebeharrak.

Etekina zuzeneko zenbatespen metodoaren modalitate arruntaren bitartez zehazten zaien jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek eta errenten esleipen erregimeneko entitateek Merkataritza Kodean xedatutakoari lotutako kontabilitatea eraman beharko dute, eta baita Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatu edo finkatzen diren erregistro osagarriak ere.

84. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztura bilduta dauden edo merkataritza izaerarik gabeko jarduera ekonomikoa egiten duten zergadunen betebeharrak.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek eta errenten esleipen erregimenean dauden entitateek, baldin eta etekina zuzeneko zenbatespen

metodoaren modalitate erraztuaren bitartez zehazten badute edo beren jarduera ekonomikoak Merkataritza Kodearen arabera merkataritza izaerarik ez badu, ondorengo erregistro liburuak eraman beharko dituzte:

a) Salmenta eta sarreraren erregistro liburua. Liburu horretan, jardueraren ondorioz izandako sarrerak jarriko dira eta, gutxienez, datu hauek adieraziko dira:

- Oharpenaren zenbakia.

- Salmenta edo sarrera bakoitzaren sortzapen eguna, denborazko egozpenari buruzko irizpidearen arabera.

- Salmenta edo sarrera jasotzen duen fakturaren edo agiri baliokide edo ordezkoren zenbakia. Faktura edo fakturazio agiria egiteko betebeharririk ez dagoenean, salmentak eta sarrerak elkarren segidan zenbatuko dira, eta erregistro liburuan dagokien zenbakia jarriko da.

- Oharpenaren kontzeptua.

- Sarreraren zenbatekoa, eragiketan sortutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga bereizita.

b) Erosketa eta gastuen erregistro liburua. Liburu horretan jardueran izandako gastuak jarriko dira, eta, gutxienez, datu hauek adieraziko dira:

- Oharpenaren zenbakia.

- Erosketa edo gastu bakoitzaren sortzapen eguna, denborazko egozpenari buruzko irizpidearen arabera.

- Igorlearen izen-deiturak edo bere sozietatearen izena.

- Gastua sortu duen kontzeptua, behar bezala zehaztuta.

- Gastuen zenbatekoa, eragiketan jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga bereizita.

c) Inbertsio ondasunen erregistro liburua. Liburu horretan, zergadunaren jarduera profesionalari atxikitako ibilgetu material eta ez materialaren osagaiak banan-banan erregistratuko dira, erosketa eta gastuen erregistro liburuan inskribatuta ote dauden kontuan hartu gabe. Gutxienez, datu hauek adieraziko dira:

Ibilgetu materialari dagokionez, datu hauek jasoko dira ondasun bakoitzeko:

- Oharpenaren zenbakia.

- Ondasunaren deskripzioa, behar bezala identifikatzen laguntzen duten datu guztiak adierazita.

- Erosketa balioa.

- Erabilpenaren hasierako eguna.

- Amortizazio kuota eta, hala dagokionean, errebertsio fondoaren zuzkidura.

Ibilgetu inmaterialari dagokionez, datu hauek jasoko dira ondasun bakoitzeko:

- Oharpenaren zenbakia.
- Elementuaren deskripzioa, behar bezala identifikatzen laguntzen duten datu guztiak adierazita.
- Erosketa balioa.
- Elementuaren eman edo erosi den eguna.
- Hala behar denean, amortizazio kuota.

Ibilgetu materialari nahiz ibilgetu inmaterialari dagokionez, ondasun edo eskubidearen irteera ere jasoko da, noiz eta zergatik gertatu den adierazita.

d) Kutzako liburua.

Liburu honetan, kutxako mugimenduak eta jarduera bakoitzari dagokion kontu korrante bankario bakoitzaren mugimenduak bereizita jasoko dira.

Nolanahi ere, datu hauek jasoko dira:

- Kobru edo ordainketa eguna.
- Kobru eta ordainketen arteko bereizketa.
- Mugimendu bakoitzaren zenbatekoa.
- Eragiketaren sorburua edo helburua behar bezala identifikatuko duen kontzeptua.
- Kontu bakoitzaren saldoa.

Era berean, kutxaren eta kontu bankarioen arteko traspasoak ere erregistratuko dira. Horretarako, helburuko kontua, sorburuko kontua nahiz jardueraren titularrak egindako erabilpenak edo sarrerak identifikatuko dira.

Kutzako liburuan, mugimendu bakarrean erregistratu ahal izango da eskudiruz egun batean jasotako kobruen zenbatekoa.

Kutzako liburuan kontu korronteei buruz oharpenak jasotzeari dagokionez, horien ordeztu-erretxak emandako laburpenak erabil daitezke, baldin eta laburpen horiek letra honetan jasotako beharkizunak bete eta kontua jarduera bakarrean egindako eragiketarako oso-osorik erabiltzen bada.

85. artikulua. Jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunen betebeharrak.

1. Jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunak eta errenten esleipen erregimenean dauden entitateak behartuta egongo dira sarreren erregistro liburua, gastuen erregistro liburua, inbertsio ondasunen erregistro liburua eta kutxako liburua aurreko artikuluan jasotako arauetara jarraituz eramatera.
2. Era berean, jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunak eta errenten esleipen erregimenean dauden entitateak behartuta egongo dira fondo horniduren eta osakinen erregistro liburua eramatera, datu hauek adierazita:

- Oharpenaren zenbakia.
- Eragiketaren izaera (fondoan hornidura edo osakina).
- Fondo horniduren edo osakinen sorrera edo ordainketa eguna.
- Fondo horniduren eta osakinen zenbatekoa.
- Horniduraren ordaintzailearen edo osakinaren jasotzailearen izen-deiturak edo bere sozietatearen izena.
- Eragiketa jasota dagoen fakturaren edo agiri baliokide edo ordezkoren zenbakia. Faktura, agiri baliokide edo ordezkoa egiteko betebeharrak ez dagoenean, fondoak eta osakinak elkarren segidan zenbatuko dira, eta erregistro liburuan bakoitzaren zenbakia jasoko da.

3. sekzioa: kontabilitate eta erregistro betebeharrak zenbatespen objektiboaren metodoan.

86. artikulua. Zenbatespen objektiboaren metodora bildutako zergadunen betebeharrak.

1. Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten eta haien etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren bitartez kalkulatzen duten zergadunak behartuta egongo dira, metodo horren bitartez etekina kalkulatzen zaien jarduerengatik, liburu edo erregistroak eramatera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez.
2. Dena den, metodo horretara bildutako zergadunek gorde beharko dituzte enpresariak eta profesionalek faktura egin eta emateko duten betebeharrari buruzko araudiak jasotakoaren arabera egindako fakturak, daten ordenaren arabera zenbatuta eta hiruhilekotan multzokatuta, beraiek jasotako bestelako faktura edo frogagiriak eta, beharrezkoa bada, aplikatutako zeinu, indize edo moduluen frogagiriak, horiek onartzen dituen xedapenean jasotakoaren arabera.

4. sekzioa: berariazko arauak.

87. artikulua. Errenten egozpenaren erregimenean dauden entitateak.

Jarduera ekonomikok egiten dituzten errenten egozpenaren erregimeneko entitateek egindako jarduerari dagozkion derrigorrezko liburu bakarrak eramango dituzte, euren bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei dagokienean egin beharreko etekin-egozpena eragotzi gabe.

88. artikulua. Erregistro liburuak eramateko betebeharraren salbuespena.

Kontabilitatea Merkataritza Kodean jasotakoaren arabera eramaten duten zergadunak ez daude behartuta kapitulu honetako aurreko artikuluetan jasotako erregistro liburuak eramatera.

5. sekzioa: erregistro liburuak eramateko modua eta diligentziatua.

89. artikulua. Liburuak bitarteko informatikoez eramatea.

Zerga ondorioetarako eskatzen diren liburuak, fakturazioa eta erregistroak informatikaren bidez eramaten badira, aurrekoek gain, fitxategi informatiko hauek gorde beharko dira:

- a) Aplikazio informatikoez sortutako datuen fitxategiak, hala historikoak nola jatorrizkoak, baldin eta haietatik diligentziatu beharreko liburuak eratortzen badira.
- b) Programen fitxategiak, aurreko datuen fitxategiak prozesatzen dituztenak.

90. artikulua. Liburuetako oharpenak.

1. Oharpenak edozein prozedurari jarraituz egin ahal izango dira orrietan eta, ondoren, orri horiek hurrenez hurren koadernatu beharko dira, derrigorrezko erregistro liburuak osatzeko.

2. Kapitulu honetan aipatu diren erregistro liburuetan denboraren arabera egingo dira oharpenak, tarte zuririk, tartekadurarik, ezabaketarik eta harraskadurarik gabe, eta hiruhileko eta urte naturalei jarraikiz zenbatuko dira beti. Ondoren, konturatu ahala, oharpenetan izandako okerrak edota hutsegiteak zuzendu beharko dira.

3. Enpresari eta profesionalek fakturak egin eta emateko duten betebeharrari buruzko araudiak jasotakoaren arabera faktura, agiri baliokidea edo ordezko agiria egiteko obligaziorik ez dagoenean, eguneko idazpen laburgarri bat egin ahal izango da fakturatu gabeko eragiketa guztiak bertan jasotzeko.

Idazpen horretan datu hauek jasoko dira gutxienez:

- Oharpenaren zenbakia.
- Idazpenaren data.
- Fakturarik gabeko eragiketen idazpen laburgarria dela aipatzea.
- Zenbatekoa. Eragiketan sortutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga bereizita adieraziko da.

4. Egun berean egindako fakturak, agiri baliokideak edo ordezkoak idazpen orokor laburgarri batean idatzi ahal izango dira, baldin eta zenbateko osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne, 6.000 eurotik gorakoa ez bada. Idazpen horretan fakturen data, zenbakia, oinarri ezargarri orokorra, zerga tasa eta kuota osoa agertuko dira, eragiketetan sortutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga bereizita adieraziko delarik.

5. Egun berean jasotako fakturak idazpen laburgarri batean adierazi ahal izango dira, baldin eta haien zenbateko osoa 6.000 eurotik gorakoa ez bada, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utzita, eta faktura bakoitzean dokumentatutako eragiketen banakako zenbatekoak, BEZa sartu gabe, 500 euroko kopurua gainditzen ez badu. Idazpen horretan honako datuak adierazi beharko dira: jasotako fakturei hartzaileak esleitutako zenbakiak, oinarri ezargarrien batura osoa eta jasandako BEZaren zerga kuota osoa..

91. artikulua. Erregistro oharpenen epea.

Erregistroan azaldu behar diren eragiketak erregistro-liburuetan jaso behar dira idatzita, erregelamendu honek VI. tituluaren V. kapituluaren aipatutako ordainketa zatikatuak aitortu eta ordaintzeko epea amaitu baino lehen.

Dena den, zergadunak egindako eragiketak, horiei buruzko fakturarik egin ez denean edo bestelako agiri baliokideak edo ordezkagiriak egin direnean, zazpi eguneko epean jaso beharko dira erregistro liburuetan, eragiketak egiten direnetik edo agiriak luzatu direnetik aurrera, baldin eta epe hori aurreko paragrafoan aipatutakoa baino txikiagoa bada.

92. artikulua. Elkarri lotu gabeko jarduerak.

Jarduera bat baino gehiago egiten dituzten zergadunek eta errenten esleipen erregimenean dauden entitateek jarduera horietako bakoitzeko aparteko liburuak egingo dute, eta lehen orrian zein jarduerari dagozkion adieraziko dute.

93. artikulua. Bateragarritasuna beste liburu batzuekin.

Balio Erantsiaren gaineko Zergan jasotako erregistro edo kontabilitate betebeharrak konpliz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eta errenten esleipen erregimenean dauden entitateek eraman behar dituzten liburuak edo erregistroak zerga honen ondorioetarako erabili ahal izango dira, baldin eta kapitulu honetan jasotako beharkizunak betetzen badituzte.

94. artikulua. Erregistro liburuaren diligentziatua.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 115. artikuluan jasotakoaren arabera diligentziatu beharreko erregistro liburuak aurkeztu behar dituzten zergapekoek, beren betebeharra konplitzeko, komunikazio bat aurkeztuko diote Gipuzkoako Foru Aldundiari, liburu mota eta elkarri lotu gabeko jarduerak bakoitzeko. Datu hauek emango dituzte:

- Ale kopurua.
- Erabilitako orri kopurua.
- Zergaldian egindako idazpen kopurua.
- Azken idazpenaren data.

Datuen komunikazioa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan egingo da.

Ondorio horietarako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazio ereduari atal berezi bat gehituko zaio, subjektu pasiboak erregistro liburuaren diligentziatuaren betebeharra konplitzeko erabili beharko duena.

6. sekzioa: bestelako informazio betebeharrak formalak.

95. artikulua. Bestelako informazio betebeharrak formalak.

1. Etxebizitzak erosteko maileguak ematen dituzten entitateek mailegu horiei buruzko aitortpen informatiboa aurkeztu behar dute, ondoko lehen urteko urtarrilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan, maileguei buruzko datu hauek jasota:

a) Mailegu hartzaileen identifikazioa: izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Maileguaren zenbateko osoa.

c) Mailegu hartzaileek ekitaldiaren barruan interesak eta kapitalaren amortizazioa direla-eta ordaindutako diru kopuruak.

d) Maileguaren eraketa urtea eta iraupenaldia.

2. Kreditu entitateek zergaren foru arauak 90.5.b) artikuluan aipatutako etxebizitza kontuei buruzko aitorten informatiboa aurkeztu behar dute, ondoko lehen urteko urtarrilaren lehendabiziko hogeita hamar egun naturaletan, datu hauek jasota:

a) Etxebizitza kontuaren titularren izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Zergadun bakoitzak etxebizitza kontuan duen titulartasun ehunekoak.

c) Noiz ireki den etxebizitza kontua.

d) Etxebizitza kontuaren ekitaldi bakoitzeko hasiera eta amaiera saldoa.

e) Horretarako onartzen den inprimakian jasotako beste datu batzuk.

3. Langileen sindikatuek aitorten informatiboa aurkeztu behar dute, ondoko lehen urteko urtarrilaren lehendabiziko hogeita hamar egun naturaletan. Aitorpenean, datu hauek jaso behar dituzte:

a) Afiliatuen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Ordaindutako urteko kuota sindikalaren zenbatekoa.

Aitorten informatibo hau aurkeztekotan, afiliatuak ados egon behar dira horrekin.

Zergaren foru arauak 95.2 artikuluan jasotakoaren arabera, apartatu honetan aipatutako eredu informatiboan sartutako zergadunek bakarrik egin dezakete langileen sindikatuen aldeko kuoten kenkaria.

4.³⁶ Alderdi politikoek aitorten informatiboa aurkeztu behar dute ondoko lehen urteko urtarrilaren lehendabiziko hogeita hamar egun naturaletan, eta bertan honako datu hauek adierazi:

a) Erakunde politikoari afiliazio kuotak ordaindu edo borondatezko zein derrigorrezko ekarpenak egin dizkieten pertsona fisikoen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b)³⁷ Ordaindutako afiliazio kuotaren edo/eta egindako ekarpenaren zenbatekoa.

³⁶ 4. apartatu hau Abenduaren 23ko 84/2008 FORU DEKRETUAK, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta zerga horren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2009an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituenak, aldatu du. (BOG 31-12-2008). Aldaketa abenduaren 31an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da.

Ekarpen egileak ados egon behar du aitoren informatibo honetan sartzearekin.

Zergaren foru arauak 23.b) eta 95.3 artikuluetan jasotakoaren arabera, apartatu honetan aipatutako eredu informatiboan sartutako zergadunek bakarrik aplikatu ahal izango dute lan etekinen gastu kengarria edo kuotako kenkaria.

5. Aurreko apartatuetan aipatutako aitoren informatiboak Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako moduan eta tokian egingo dira. Era berean, zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarrian edo bitarteko telematikoez aurkezteko behar den prozedura eta baldintzak zehaztu ahal izango ditu foru diputatuak.

96. artikulua. Babespeko ondareen titular diren zergadunen informazio betebeharrak.

Pertsona ezgaituen ondarea babestu eta Kode Zibila aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legeak, Auzibideratze Zibilaren Legeak eta horri buruzko zerga araudiak erregulatutako ondare babestuaren titularrak diren zergadunek eta, horiek pertsona ezgaituak badira, ondare haien administratzaileek aitorena aurkeztu behar dute urte natural bakoitzean jasotako ekarpenei eta egindako erabilpenei buruz. Gainera, identifikazio datuekin batera, informazio hau jaso behar dute aitorenean:

a) Ekarpenei eta ondare erabilpenen onuradunen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Jasotako ekarpenen eta erabilpenen mota, zenbatekoa eta identifikazioa.

Aitoren informatiboa urte bakoitzeko urtarilaren lehen hogeita hamar egun naturaletan aurkeztu behar da, aurreko lehen urtean egindako atxikipenei eta erabilpenei dagokienez.

Aurkezten den lehen aitoren informatiboarekin batera, babespeko ondarearen eraketaren eskritura publikoaren kopia soila aurkeztu behar da, hasieran hura osatu zuten ondasun eta eskubideen zerrenda jasota. Gainera, babespeko ondarea eratu zenetik lehen aitorena aurkeztu arte jasotako ekarpenen eta egindako erabilpenen zerrenda xehatua ere aurkeztu behar da.

Artikulu honetan aipatutako aitoren informatiboa zein eredutan eta nola eta non aurkeztu behar den Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakiko du, bai eta ordenagailuz irakur daitekeen euskarrian edo bitarteko telematikoez noiz aurkeztu behar den ere.

VII. TITULUA: KONTURAKO ORDAINKETAK.

I. kapitulua: atxikipenak eta konturako sarrerak. Arau orokorrak.

³⁷ Letra hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua Lehen ordinaletan Bost apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatutako diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarilaren 1etik aurrera aplikatuko den. (2009-12-30eko GAO).

97. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsona eta entitateek titulu honetan ezarritakoa aplikatuko dute, baldin eta zenbateko horiek Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu behar badira hurrengo 2. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Dena den, entitate ordaintzaileari Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren araudia aplikagarri zaionean, titulu honetan xedatutakoa aplikatuko da atxikipenak eta konturako sarrerak izan dituzten errentak honako hauek direnean:

- Administrazio kontseiluetako, horien ordezkoko batzordeetako eta beste ordezkari organoetako administratzaile eta kide izateagatik jasotako ordainsariak.

- Edozein entitatearen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak, eta obligazio eta antzeko tituluen interesak zein bestelako kontraprestazioak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, autolikidazioak non, nola eta zein epetan aurkezteko arauak zerga ordainarazteko eskumena duen administrazioak ezarriko ditu.

2. Atxikipenak eta konturako sarrerak Gipuzkoako Foru Aldundian ordainduko dira haiei lotutako etekinak honako hauek direnean:

a) Gipuzkoan egindako lan edo zerbitzuetatik datozenak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Gipuzkoan edo Gipuzkoan eta beste lurralde historikoetako edozeinetan egiten badira, zerbitzuak Gipuzkoan egiten direla ulertuko da, aurkako frogarik ezean, langilearen lantokia lurralde horretan kokatuta dagoenean.

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen Erregimen Publikoetatik, Enpleguaren Institutu Nazionaletik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko fondoetatik, pentsio planetatik eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetatik datozen pentsio, hartzeko pasibo eta prestazioak, edo enpresen eta beste entitate batzuen prestazio pasiboak, jasotzailearen ohiko egoitza Gipuzkoan dagoenean.

c) Administrazio-kontseiluetako, horien ordezkoko batzordeetako eta beste ordezkari organo batzuetako administratzaile eta kide izateagatik jasotako ordainsariak, entitate ordaintzailearen zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

Entitateak Gipuzkoan exijitzen den Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak badira eta zerga hori eragiketa bolumenaren arabera exijitzen bazaie, Gipuzkoari dagozkion atxikipenak bolumen horren proportzioan egingo dira. Horretarako, Sozietateen gaineko Zergaren azken autolikidazioan adierazitako proportzioa aplikatuko da.

d) Atxikipenak eta konturako sarrerak jarduera ekonomikoen etekinengatik egin badira, Gipuzkoako Foru Aldundian ordainduko dira atxikitzen eta kontura sartzera behartutakoaren ohiko egoitza Gipuzkoan dagoenean. Edozein kasutan ere, atxikipen eta konturako sarrerak Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindutako etekinei badagozkie, Gipuzkoako Foru Aldundiak exijituko ditu.

e) Edozein entitatearen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak nahiz obligazio eta antzeko tituluen interes eta bestelako kontraprestazioak, etekin horiek ordaintzen dituzten entitateek Sozietateen gaineko Zerga Gipuzkoan bakarrik ordaintzen dutenean.

Entitateak Gipuzkoako Foru Aldundiak exijitzen duen Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak badira eta zerga hori eragiketa bolumenaren arabera exijitzen bazaie, Gipuzkoari dagozkion atxikipenak bolumen horren proportzioan egingo dira. Horretarako, Sozietateen gaineko Zergaren azken autolikidazioan adierazitako proportzioa aplikatuko da.

f) Gipuzkoako Foru Aldundiak, udalek eta Gipuzkoako lurralde-administrazioa eta erakunde-administrazioa beste enteek jaulkitako zor eta jesapenen interes eta bestelako kontraprestazioak, edozein tokitan ordainduta ere.

g) Banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba eta antzeko entitateek egindako eragiketa pasiboen interesak eta gainerako kontraprestazioak, baita beste edozein kreditu-etxetan edo finantza-etxetan egindakoetatik lortutakoak ere, baldin eta etekina jaso duenaren ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan badago.

h) Kapitalizazio-eragiketetatik eta bizi edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik datozen etekinak, baldin eta horien onuradunak edo, erreskate kasuan, aseguru-hartzaileak Gipuzkoan badu ohiko egoitza edo zerga helbidea.

i) Kapital-ezarpenen ondorioz jasotzen diren bizi arteko errentak eta aldi baterako beste batzuk, onuradunaren ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

j) Jabetza intelektualetik datozen etekinak, jasotzailea egilea ez bada, eta edozein kasutan, jabetza industrialetik eta laguntza teknikoak ematek eratorritakoak, horiek ordaintzen dituen pertsona edo entitatearen zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

k) Ondasun, eskubide, negozio, meatze eta antzekoak errentan ematek datozenak, Gipuzkoan kokatuta badaude.

l) Ondasun higiezinaren hipoteka bidez bermatutako maileguen interesak badira, berme modura erabilitako ondasunak Gipuzkoan kokatuta daudenean.

Hipotekatutako ondasunak Gipuzkoan eta lurralde erkidean edo beste edozein lurralde historikotan kokaturik badaude, Gipuzkoako Foru Aldundiak atxikipena exijitzeko garaian interesak hainbanatuko ditu hipotekatutako ondasunen balioaren proportzioan, non eta lehendik berme-asignazio berezirik ez den egin. Halakorik badago, hainbanaketa egiteko orduan zifra hori erabiliko da oinarri modura.

m) Ondasun higikorren hipotekaz edo lekualdaketarik gabeko bahiaz bermatutako maileguen interesak badira, bermea Gipuzkoan inskribatzen denean.

n) Mailegu soilen interesen kasuan, salerosketan geroratutako prezioen kasuan eta kapitalak merkaturatzeagatik lortutako beste etekin batzuen kasuan, establezimendua Gipuzkoan kokatzen denean edo atxikitzen behartutakoaren ohiko egoitza edo zerga helbidea lurralde horretan dagoenean.

ñ) Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien atxikipenak badira, akziodunaren edo partaidearen ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

o) Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan emandako sariak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak badira -sari guztiak ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon edo ez-, ordaintzen dituenaren ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean. Edozein kasutan ere, atxikipen eta konturako sarrerak Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindutako sariei dagozkienean, berak exijituko ditu.

p) Ondasun higiezinak errentan edo azpierrean emateagatik lortutako etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak badira, atxikitza eta kontura sartzera behartutakoaren ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

q) Atxikipenak eta konturako sarrerak egitearen arrazoia entitateei ordaindu baina, errentak egozteko erregimenaren indarrez, Errenta Zergaren zergadunei egotzi behar zaizkien zenbatekoengatik egiten badira, atxikitza eta kontura sartzera behartutakoaren ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

3. Atxikipenak ez dira Gipuzkoako Foru Aldundian ordainduko honako etekinak direnean:

a) Funtzionarioek eta lan nahiz administrazio kontratupeko langileek Estatuko Administrazioetik jasotzen dituzten ordainsari aktibo zein pasiboak, jasotzailea ez den beste pertsona batek sortutako pentsioak barne, erakunde autonomoetako eta enpresa entitate publikoetako funtzionario eta langileek jasotakoak izan ezik.

b) Kapitalak ezartzearen ondorioz jasotzen diren biziarteko nahiz aldi baterako errentak, horietarako eskubidea sortu duen pertsona jasotzailea ez denean eta Estatuko Administrazioak ordaintzen dituenean.

4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egindako ordainketa zatikatuak titulu honetan jasotakoaren arabera exijituko dira, zergadunaren ohiko bizilekua Gipuzkoan dagoenean.

98. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko betebeharra.

1. Erregelamendu honek 101. artikuluan aipatutako pertsona edo entitateek ondorengo artikuluan jasotako errentak ordaintzen dituztenean, atxikipena egin beharko dute eta zenbateko hori Foru Aldundiari ordaindu, jasotzaileari dagokion Errenta Zergaren konturako ordainketa gisa, erregelamendu honetan jasotako araei jarraituz.

Atxikipena eta sarrera egiteko betebeharra egongo da, orobat, erregelamendu honetan ezarritako baldintzei jarraikiz, aktibo finantzarioak eskualdatzen direnean eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskualdatu nahiz itzultzen direnean.

2. Aipatu errentak gauza bidez ordaintzen direnean, erregelamendu honek 101. artikuluan aipatutako pertsona edo entitateek konturako sarrera bat egin beharko dute, erregelamendu honetan jasotzen diren araei jarraituz, jasotzaileari dagokion Errenta Zergaren konturako ordainketa gisa.

3. Erregelamendu honetan jasotakoaren ondorioetarako, atxikitzaileari buruzko erreferentziak konturako sarrerak egitera behartutakoari ere egiten zaizkiola ulertuko da bi konturako ordainketak batera arautu behar direnean.

99. artikulua. Atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak.

1. Ondorengo errentak atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta egongo dira:

a) Lanaren etekinak.

b) Kapital higikorren etekinak.

c) Jarduera ekonomiko hauen etekinak:

- Jarduera profesionalen etekinak.

- Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekinak.

- Baso jardueren etekinak.

- Erregelamendu honek 114.6.2 artikuluan jasotako jarduera enpresarialen etekinak, betiere etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren arabera zehazten bada.

d) Inbertsio kolektiboko erakundeen ondare edo kapitalaren akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako ondare irabaziak.

2. Ondoko errentak ere atxikipenari edo konturako sarrerari egongo dira lotuta, beren kalifikazioa edozein dela ere:

a) Hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrean ematek datozen etekinak.

Ondorio horietarako, errentan emateari buruzko erreferentziak azpierrean emateari ere egiten zaizkiola ulertuko da.

b) Jabetza intelektual nahiz industrialetik datozen etekinak, laguntza teknikoa ematek datozenak, ondasun higiezin, negozio eta meategiak errentan emategatik lortutakoak, aurreko ondasunak azpierrean ematek datozenak eta irudia ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik eskuratutakoak.

c) Jokoetan, sariketetan, zozketetan edo konbinazio aleatorioetan parte hartzeagatik ematen diren sariak, ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon ala ez.

100. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharrak salbuestea.

Ez da derrigorrezkoa izango ondoko errenten gainean atxikipenik edo konturako sarrerarik egitea:

a) Errenta salbuetsiak, alde batera utzita zergaren foru arauak 9.25 artikuluan jasotakoa, eta joan-etorrien gastuetarako eta mantenu gastu arruntetarako ematen diren zergapetu gabeko dietak eta diru-esleipenak.

b) Espainiako Bankuak jaulkitako baloreen etekinak, baldin eta moneta merkatuko esku hartzea arautzeko tresna badira, eta Altxorreko Letren etekinak.

Guztiarekin ere, kreditu entitateek eta gainerako finantza erakundeek beren bezeroekin Altxorreko Letren eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten dituztenean, behartuta egongo dira atxikipena egitera kontu horien titularrek lortutako etekinengatik.

c) Obligazioak akzio bihurtzeko primak.

d) Atzerriko kontuen etekinak, lurralde espainiarrean egoitza duten kreditu entitateek nahiz establezimendu finantzarioek establezimendu iraunkorren bidez atzerrian ordaindu dituztenean.

e) Entitateak banatzen dituen dibidenduak eta mozkin partaidetzak, baldin eta horiek sortu diren zergaldietan entitate banatzaileak gardentasun fiskaleko erregimenean tributatu badu.

f) Etekin esplizitua duten aktibo finantzarioak eskualdatzeak edo itzultzeak sortutako etekinak, baldin eta beharkizun hauek betetzen badituzte:

1.- Kontuko oharpenen bitartez adierazita egotea.

2.- Espainiako bigarren mailako balore merkatu batean negoziatuak izatea.

Aktibo finantzario horiek eskualdatu, amortizatu edo itzultzean esku hartzen duten entitate finantzarioak behartuta egongo dira balorearen titularrari egotzitako etekina kalkulatzera eta horren berri titularrari nahiz Zerga Administrazioari ematera. Era berean, lehenago aipatutako eragiketetan esku hartzen duten pertsonen buruzko datuak emango dizkiote Zerga Administrazioari.

Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak letra honetan araututako atxikipen salbuespena gauzatzeko behar den prozedura ezar dezake.

Dena den, f) letra honetan jasotakoa jasota ere, kreditu entitateek eta gainerako finantza erakundeek beren bezeroekin aurreko baloreei buruzko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten dituztenean, behartuta egongo dira atxikipena egitera kontu horien titularrek lortutako etekinengatik.

Era berean, atxikipenari lotuta geratuko da kupoiaren mugaeguna iritsi aurreko lehen 30 egunen barruan egindako aktibo finantzarioak eskualdatzeko eragiketetan kupoi korrituari dagokion prezioaren zatia, beharkizun hauek betetzen direnean:

- Eskuratzailerak lurralde espainiarrean egoiliarra ez den pertsona edo entitatea izatea, edo Sozietate Zergaren subjektu pasiboa izatea.

- Balore eskualdatuetatik eratorritako etekin esplizituak atxikitzeko betebeharretik salbuetsita egotea eskuratzaileri dagokionez.

g) Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duen 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoaren Legeak edo Zori, enbido eta adur jokoaren eta apustuen alderdi penal, administratibo eta fiskalak arautzen dituen 1977ko otsailaren 25eko 16/77 Errege Dekretu Legeak jasotakoaren babesean antolatutako jokoaren ondorioz ematen diren sariak, bai eta 300 eurotik gorako atxikipen oinarriak ez duten sariak ere.

h) Hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrean ematetik datozen etekinak, ondorengo kasuetan:

- Enpresek beren langileentzat errentan hartutako etxebizitzak direnean.
- Errentariak errentatzaile berberari urtean ordaindutako errentak 900 eurotik gorakoak ez direnean.
- Errentatzailearen jarduera 1993ko apirilaren 20ko 1/93 Foru Dekretu Araugileak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duenak, jasotako tarifen lehen sekzioaren 861 taldeko epigrafeetako batean sailkatuta dagoenean, edota, bestela, hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrean emateko ahalbidetzen duen beste edozein epigraferen arabera tributatu beharra izanik, errentan edo azpierrean ematen diren ondasun higiezinen balio katastralari 861 taldeko epigrafeetan ezarritako kuota kalkulatzeko arauak aplikatuta zero kuota ateratzen ez denean.

Ondorio horietarako, errentatzaileak beharkizun hori bete duela frogatu beharko dio errentariari, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakiko duenaren arabera.

i) Akzio edo partaidetzen jaulkipen prima itzultzearen eta ekarpenak bueltatuz kapitala murriztearen ondorioz sortutako etekinak, salbu banatu gabeko mozkinetatik badatoz, zergaren foru arauak 44.2.a) artikularen bigarren paragrafoan jasotakoaren arabera.

j) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen, pentsio planen, enpresen gizarte aurreikuspeneko planen edo gizarte aurreikuspeneko mutualitateen alde egindako kontribuzio edo ekarpen enpresarialak, erregelamendu honetan jasotakoaren arabera.

k) Gizarte Segurantzaren aldeko kotizazio gisa, langile autonomoen erregimen berezian eta araudia betez, kooperatibek bazkide langileen edo lanaren estaldura sozial eta asistentzialerako ordaindu dituzten kopuruak.

l)³⁸ Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak edo akzioak berreskuratu edo eskualdatzeagatik sortutako ondare irabaziak, zergaren foru arauak 50. artikuluan jasotakoaren ondorioz konputatu behar ez direnean, eta, orobat, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduak, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 49. artikuluan araututako fondo edo sozietateetako partaidetzak edo akzioak berreskuratu edo eskualdatzeagatik sortutakoak.

m)³⁹ Higiezinaren merkatuetan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuen araubide bereziaren aplikazioa aukeratu duten sozietateek banatutako dibidenduak.

101. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuak.

³⁸ Letra hau azaroaren 23ko 32/2010 FORU DEKRETUaren 1. artikulua Hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010-12-01eko GAO).

³⁹ Letra hau abenduaren 23ko 39/2010 FORU DEKRETUaren 1. artikulua Bost apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2010-12-29ko GAO). Aldaketa honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

1. Izaera orokorrez, ondoko hauek daude atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta, betebehar honi lotutako errentak ordaintzen dituzten heinean:

a) Pertsona juridikoak eta gainontzeko entitateak, jabekideen komunitateak eta errentak esleitzeko erregimenean dauden entitateak barne.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoak egiten dituztenean eta jarduera horietan aritzeagatik errentak ordaintzen dituztenean.

c) Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako entitateak, bertan establezimendu iraunkorraren bidez aritzen direnean.

d) Egoitza lurralde espainiarrean izan gabe, bertan establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten pertsona fisikoak, juridikoak eta bestelako entitateak, beraiek ordaintzen dituzten lan etekinei dagokienez, bai eta atxiki edo kontura sartu beharreko beste etekin batzuei dagokienez ere, baldin eta 1999ko apirilaren 26ko 2/99 Foru Arauak, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, 23.2 artikuluan aipatutako errentak lortzeko gastu kengarriak badira.

Ordainketa batean bitartekari soila izatera mugatzen denean, ezingo da esan pertsona edo entitate batek errentak ordaintzen dituenik.

Ordainketa batean bitartekari soila dela ulertuko da hirugarren baten kontura eta honen aginduz diru-kopuru bat ordaintzen denean.

Jarraian adierazten diren eragiketak ez dira sartuko ordainketa bitartekaritza soilarekin zer ikusia duten eragiketetan. Beraz, lehen aipatu diren pertsona eta entitateek honako kasuotan egin beharko dute atxikipena eta konturako sarrera:

- Lurralde espainiarrean egoiliarrek direnen atzerriko baloreak gordailatzen dituztenean edo balore horietatik eratorritako errenten kobrantzaz arduratzen direnean, baina beti ere errenta horiek aldeztu aurretik atxikipenik izan ez badute Espainian.

- Beren langileei Gizarte Segurantzaren konturako prestazioak ordaintzen dizkietenean.

- Beren langileei hirugarren batek emandako eskupekoak, zerbitzuen ordainsariak edo antzekoak ordaintzen dizkietenean.

- Nekazaritza kooperatiben kasuan, beren bazkideen ustialekuetan ekoiztutako produktuak banatu edo komertzializatzen dituztenean

2. Bereziki:

a) Atxikitzen behartuta daude entitate egoiliarrek edo establezimendu iraunkorrek, zergadunak horientzat aritzen direnean, baldin eta zergadun horiek ordaintzen zaizkien lan etekinak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 16. artikuluan jasotakoaren arabera haiei lotuta dagoen beste entitate batek, egoiliarra izan ala ez, ordaintzen baditu, edo lurralde espainiarrean kokaturiko establezimendu iraunkorrek atzerrian duen titularrak ordainduak badira.

b) Aktibo finantzarioei buruzko eragiketetan, honako hauek daude atxikitzen behartuta.

1.- Aktibo finantzarioak amortizatuz edo itzuliz lortutako etekinak badira, entitate edo pertsona jaulkitzaileak. Alabaina, eragiketa horiek egitea finantza entitate baten esku uzten denean, finantza entitate horrek egin beharko du atxikipena.

Beren jaulkipena egin ondoren aktibo finantzario bihurtu diren igorpen baliabideak direnean, horien epemuga behin iritsita, fede emaileak egingo du atxikipena edo, bestela, haien kobrantzaz arduratzen den finantza entitateak.

2.- Aktibo finantzarioak, aurreko zenbakian aipatu diren igorpen baliabideak barne, eskualdatzean lortutako etekinak badira, eta eskualdaketa hori finantza entitate batek edo gehiagok bideratu badute, eskualdatzailearen izenean diharduen bankuak, aurrezki kutxak edo finantza entitateak egingo du atxikipena.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da eskualdatzailearengandik aktibo finantzarioak saltzeko agindua jasotzen duen banku, aurrezki kutxa edo finantza entitatea diharduela haren izenean.

3.- Aurreko apartatuetan aipatzen ez diren kasuetan, eragiketan nahitaez esku hartu behar duen fede-emaile publikoak egingo du atxikipena.

c) Estatuko Zorraren baloreak eskualdatzen direnean, eskualdaketa esku hartzen duen Oharpen bidezko Zor Publikoko Merkatuaren entitate kudeatzaileak egingo du atxikipena.

d) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean, honako pertsona edo entitate hauek egongo dira behartuta atxikipena edo konturako sarrera egitera:

1.- Inbertsio fondoan partaidetzak itzultzen badira, sozietate kudeatzaileak.

2.- Kapital aldakorreko inbertsio sozietate batek, ez burtsan ez baloreak negoziatzeko beste merkatu edo sistema antolatu batean akziorik kotizatzen ez duenak, berriro erosten baditu zergadunak bere kabuz zein merkaturatzaile baten bitartez sozietateari aurrez erositako akzioak, atxikipena edo konturako sarrera sozietateak berak egingo du. Alabaina, sozietate kudeatzaile batek esku hartzen badu, honek egingo du atxikipena edo konturako sarrera.

3.- Atzerrian helbideraturik dauden inbertsio kolektiboko erakundeak badira, atxikipena edo konturako sarrera akzio edo partaidetzak komertzializatzen dituzten entitateek nahiz komertzializatzeke ahalmena duten bitartekariak egingo dute, eta subsidiarioki, baloreak harpidedun posibleen artean merkaturatu nahiz banatzen dituzten entitateek, betiere itzulketa egiten dutenean.

4.- Zerbitzuen prestazio libreko erregimenean jarduten duten kudeatzaileak badira, 2004ko apirilaren 6ko 2/04 Foru Arauak, zenbait zerga neurri onartzen dituenak, bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera izendatutako ordezkaria egongo da horretara behartuta.

5.- Atxikipena ezin bada egin aurreko zenbakietan adierazitakoaren arabera, eskualdaketa egin duen edo dirua itzuli zaion bazkide edo partaideak konturako ordainketa bat egin beharko du. Ordainketa hori erregelamendu honetako 115., 116. eta 117. artikuluetan jasotako arauari jarraituz egingo da.

e) Zerbitzuen prestazio libreko erregimenean jarduten diren aseguru entitateek Espainian egindako eragiketetan, atxikipena edo konturako sarrera egitera

behartuta egongo da Hainbat zerga neurri buruzko 2004ko apirilaren 6ko 2/04 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera izendatutako ordezkaria.

f) Atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dago zergaren foru arauak 108.1 artikuluan jasotakoaren arabera fondoek izendatu duten ordezkaria, Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratuta dauden eta legeria espainiarrari lotuta dauden enpleguko pentsio planek egindako eragiketetan, beti Europar Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio fondoan jardueri eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EE Zuzentarauak jasotakoari jarraituta.

3. Atxikipena egitera behartuta dauden subjektuek hura ordaintzeko obligazioa ere hartuko dute beren gain, eta ez dira obligazio horretatik salbuetsita geldituko atxikitzeke obligazioa bete ez arren.

Etekinak Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaintzen duenean, atxikipena eta sarrera zuzenean egingo da.

102. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.

1. Atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, atxikipen oinarriari ondorengo II. kapituluan jasotakoaren arabera dagokion atxikipen tasa aplikatuko zaio. Ordaintzen den zenbateko osoa izango da atxikipen oinarria, eragotzi gabe erregelamendu honek 105. artikuluan lan etekineterako jasotakoa, 109. artikuluan kapital higikorraren etekineterako xedatutakoa eta 115. artikuluan inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazietarako jasotakoa.

2. Gauza bidez jasotzen diren ordaintzetatik egin behar den konturako sarrera kalkulatzeko, erregelamendu honetako arauak jarraituta zehaztutako balioari ondorengo III. kapituluan jasotakoaren arabera dagokion portzentajea aplikatuko zaio.

103. artikulua. Atxikitzeke edo kontura ordaintzeko betebeharra sortzea.

1. Izaera orokorrez, errentak ordaintzen diren unean sortuko da atxikitzeke edo kontura sartzeko betebeharra.

2. Kapital higikorraren etekinetan eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazietan, erregelamendu honek 113. eta 117. artikuluetan esandakoari jarraituko zaio hurrenez hurren.

104. artikulua. Atxikipenen edo konturako sarreraren denboraren arabeko egozpena.

Atxikipena edo konturako sarrera izan duten errentak egozteko erabili den zergaldiari egotziko dizkiote zergadunek atxikipenak edo konturako sarrerak, noiz egin diren alde batera utzita.

II. kapitulua: atxikipenen kalkulua.

1. sekzioa: lan etekinak.

105. artikulua. Lan etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

1. Lan etekinen gainean egin beharreko atxikipena lan etekinen zenbateko osoari ondokoan artean dagokion portzentajea aplikatuz ateratzen den emaitza izango da:

a) Izaera orokorrez, zergadunaren etekinen eta zirkunstantzia pertsonalen arabera ondoko artikuluan jasotako taulari eta jarraibideen arabera egokitzen den portzentajea.

b) Ordainsariak administrazio kontseiluetako edo horien ordezkotako batzordeetako administratzaile eta kideek nahiz beste ordezkari organoetako partaideek jasotzen dituztenean, atxikipen portzentajea % 35 izango da.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, lan errenta jakin batzuei zergaren foru arauak 19., 20 edo 21. artikuluetan aipatutako portzentajek aplikagarri zaizkienean, errenta horien zenbateko osoa portzentajea horiek aplikatuz kalkulatu da.

3. Jasotzaile berberari diruz eta gauzen bidez ordaintzen zaizkionean lan errentak, atxikipena ordaindutako kontraprestazio edo onura guztien gainean egingo da.

4. Atxikipenaren portzentajea aurreikus daitezkeen diruzko nahiz gauzen bidezko ordainsari finko nahiz aldakorrek kontuan hartuz kalkulatu da.

Alabaina, atxikipen portzentajea kalkulatzeko kontuan hartu behar den oinarrian ez dira sartuko borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen bazkide babesleek egindako kontribuzioak, ez eta enpresariak pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako kontribuzioak ere, baldin eta oinarri ezargarri orokorra murrizten badute zergaren foru arauak 73.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz ateratzen den gehieneko mugaraino.

Era berean, atxikipen oinarritik kanpo geratuko dira Gizarte Segurantzaren aldeko kotizazio gisa, langile autonomoen erregimen berezian eta araudia betez, kooperatibek bazkide langileen edo lanaren estaldura sozial eta asistentzialerako ordaindu dituzten kopuruak.

Aurreko paragrafoetan aipatutako portzentajea kontraprestazio eta onura guztiei aplikatzean lortzen den zenbatekoa ordaindutako diruzko etekinetatik murriztuko da.

106. artikulua. Atxikipen portzentajeen taula eta aplikaziorako arauak.

1.⁴⁰ Atxikipen portzentajeen taula orokorra:

Urteko etekina	Ondorengo ahaideen kopurua
----------------	----------------------------

⁴⁰ Apartatu hau abenduaren 23ko 39/2010 FORU DEKRETUaren 1. artikulua Sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2010-12-29ko GAO). Aldaketa honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

eurotan /									
Gutxienez	Gehienez	0	1	2	3	4	5	Gehiago	
0,01	12.230,00	0	0	0	0	0	0	0	
12.230,01	12.720,00	1	0	0	0	0	0	0	
12.720,01	13.250,00	2	0	0	0	0	0	0	
13.250,01	13.820,00	3	1	0	0	0	0	0	
13.820,01	14.450,00	4	2	0	0	0	0	0	
14.450,01	15.140,00	5	3	1	0	0	0	0	
15.140,01	15.900,00	6	4	2	0	0	0	0	
15.900,01	16.970,00	7	5	3	0	0	0	0	
16.970,01	18.260,00	8	6	5	1	0	0	0	
18.260,01	19.460,00	9	8	6	3	0	0	0	
19.460,01	20.630,00	10	9	7	4	1	0	0	
20.630,01	21.560,00	11	10	8	5	2	0	0	
21.560,01	22.790,00	12	11	9	7	3	0	0	
22.790,01	23.910,00	13	12	10	8	4	1	0	
23.910,01	25.830,00	14	13	11	9	6	2	0	
25.830,01	28.260,00	15	14	13	10	8	4	0	
28.260,01	31.200,00	16	15	14	12	9	6	0	
31.200,01	34.810,00	17	16	15	13	11	8	0	
34.810,01	37.820,00	18	17	16	14	12	10	2	
37.820,01	40.490,00	19	18	17	16	14	11	4	
40.490,01	43.350,00	20	19	19	17	15	13	7	
43.350,01	46.670,00	21	20	20	18	17	15	9	
46.670,01	50.540,00	22	21	21	20	18	16	11	
50.540,01	53.700,00	23	22	22	21	19	18	12	
53.700,01	57.260,00	24	23	23	22	21	19	14	
57.260,01	61.320,00	25	25	24	23	22	20	16	
61.320,01	66.010,00	26	26	25	24	23	22	17	
66.010,01	71.060,00	27	27	26	25	24	23	19	
71.060,01	75.470,00	28	28	27	26	25	24	20	
75.470,01	80.490,00	29	29	28	27	27	25	22	
80.490,01	86.190,00	30	30	29	29	28	27	23	
86.190,01	92.780,00	31	31	30	30	29	28	25	
92.780,01	100.450,00	32	32	31	31	30	29	26	
100.450,01	109.500,00	33	33	32	32	31	30	28	

109.500,01	120.310,00	34	34	33	33	32	32	29
120.310,01	133.500,00	35	35	35	34	34	33	31
133.500,01	149.790,00	36	36	36	35	35	34	32
149.790,01	169.760,00	37	37	37	36	36	35	34
169.760,01	195.880,00	38	38	38	37	37	36	35
195.880,01	231.490,00	39	39	39	38	38	38	36
231.490,01	Hortik gora	40	40	40	40	39	39	38»

2. Taula aplikatzeko erregela orokorrak.

1.- Taula aplikatzeko kontuan izan beharreko ondorengo ahaideen kopurua zergaren foru arauak 81. artikuluan jasotzen duen kenkarirako eskubidea ematen dutenena izango da. Ondorio horietarako, famili egoera urte naturalaren lehen egunean dagoena izango da edo, bestela, harremana hasi den egunean dagoena, harreman hori data horren ondoren hasi bada.

Atxikipena aplikagarria den zergaldian 30 urte baino gehiago bete behar dituzten ondorengoak ez dira konputatuko, non eta zergaren foru arauaren 84. artikuluan aipatzen den kenkaria egiteko eskubidea ematen ez duten.

2.- Taula aplikatzeko kontuan izan beharreko ordainsarien bolumena jasotako ordainketa osoaren arabera kalkulatu da. Kontuan hartuko dira, horretarako, zergadunak, arau edo baldintza kontraktual aplikagarrien arabera eta gainerako egoera aurreikusgarri jarraikiz, urte naturalean zehar normalki jasoko dituen diruzko nahiz gauzen bidezko ordainsariak.

Ordainsari finkoak nahiz aurreikus daitezkeen aldakorrak ere hartuko ditu urteko ordainsari osoak.

Aurreko ordainsarien artean zergaren foru arauak 19., 20. edo 21. artikuluetan xedatutakoa aplikagarri duenik baldin badago, atxikipen portzentajea kalkulatzeko, etekin gisa konputatuko da aipatu artikuluetan jasotako portzentajeetatik dagokiona aplikatuz ateratzen den etekina.

3.- Horrela kalkulatu atxikipen portzentajea ematen diren ordainsari guztiei aplikatuko zaie. Aurreko ordainsarien artean zergaren foru arauak 19., 20. edo 21. artikuluan xedatutakoa aplikagarri duenik baldin badago, kalkulatu atxikipen portzentajea aplikatuko da aipatu artikuluetan jasotako portzentajeetatik dagokiona aplikatuz ateratzen den etekinaren gainean.

Diruz nahiz gauza bidez ematen diren ordainsarien zenbatekoa urtean zehar aldatzen denean, beste portzentajea bat kalkulatu da izandako aldaketak kontuan hartuz. Portzentaje berria aipatu aldaketak gertatzen diren egunetik aurrera aplikatuko da bakarrik.

Urtebetetik beherako kontratu edo lan harreman batean aurreikusitako epea behin amaiturik, langileak enplegu emaile berberarentzat lanean jarraitzen badu, edo urte naturalaren barruan berriro lanean hasten bada, beste atxikipen portzentajea bat kalkulatu da lehenik ordaindutako ordainsariak eta urte naturalaren barruan normalki jasoko dituenak kontuan hartuz.

4.- Aurreko apartatuetan xedatutakotik ateratzen den atxikipen portzentajea ezingo da txikiagoa izan %15ekoa baino etekinak menpekotasunezko lan harreman berezietatik datozenean, ez eta %2koa baino txikiagoa ere urtebetetik beherako kontratu edo lan harremanen kasuan.

Alabaina, aurreko paragrafoan aipatutako %15eko gutxieneko atxikipena ez zaie aplikatuko kartzeletan espetxeratuta daudenek lortutako etekinei eta pertsona ezgaituek izaera bereziko lan harremanen ondorioz jasotako etekinei.

3. Taula aplikatzeko erregela bereziak.

1.- Pentsioak eta hartzeko pasiboak direnean, ondorengo bat duten zergadunentzat taularen zutabeen ezarrira dauden atxikipen portzentajeak aplikatuko dira.

Aplikaziozkoa den atxikipen portzentajea zehaztearen ondorioetarako, eta horretarako bakarrik, bidezkoa izango da pentsiodunek edo hartzeko pasiboen titularrek jasotako kopuruak urte osokotzat hartzea ekitaldian zehar izaera hori bereganatzen badute.

Edonola ere, zergadunak, bere egoera pertsona nolakoa den, atxikipenen taula orokorra aplikatzea aukeratu dezake, baina kasu horretan kopuruak ezingo dira urte osokotzat hartu.

2.- Esku langileen kasuan, enplegu emailearekin duten harremana noizbehinkakoa eta egunekoa denean eta beren ordainsariak peonadaka edo egunsarika jasotzen dituztenean, taula aplikatzeko kontuan izan beharreko ordainsarien bolumena jasotako peonadaren edo egunsariaren zenbatekoa 100ekin biderkatuz kalkulatu da.

3.- Lan etekinen jasotzaileak, epaileen erabakiz, pentsio konpentsagarri bat ordaindu behar dionean ezkontideari edo izatezko bikote lagunari, bere zenbatekoak atxikipen portzentajea kalkulatzeko kontuan hartu beharreko ordainsarien bolumena gutxitu ahal izango du.

Horretarako, zergadunak zirkunstantzia horren berri eman beharko dio bere ordaintzaileari, erregelamendu honek 107. artikuluan zehazten den eran, bai eta pentsioari buruzko erabaki judizialaren hitzez hitzezko testigantza erantsi ere.

Arau honetan jasotako murrizpena langileak iraupen mugagabeko kontratu batekin diharduenean bakarrik aplikatuko da, eta ezingo da inbokatu pentsioa judizialki finkatu den zergalditik aurrera baizik.

Arau honetan jasotzen diren kasuetan %2tik beherako atxikipen portzentajea ateratzen bada, azken hau aplikatuko da.

4.⁴¹ Langile aktibo desgaituak.

⁴¹ Apartatu hau abenduaren 23ko 39/2010 FORU DEKRETUaren 1. artikulua Sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2010-12-29ko GAO). Aldaketa honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Langile aktibo desgaituei artikuluko honetako 1. apartatuan aipatzen den atxikipen portzentajeen taula orokorra aplikatuko zaie. Taula orokorra aplikatuta ateratzen den atxikipen portzentajeari ondorengo eskalan adierazitako puntuak gutxituko zaizkio, aipatutako langilea egoera hauetako batean aurkitzen denean:

a) Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65etik beherakoa duten langile aktibo desgaituak.

b) Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten langile aktibo desgaituak, baldin eta mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.

c) Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten langile aktibo desgaituak.

Urteko etekina		Minusbaliotasun maila		
		4.a) apartatua	4.b) apartatua	4.c) apartatua
Gutxienez	Gehienez			
0,01	20.630,00	9		12
20.630,01	22.790,00	7		12
22.790,01	28.260,00	6		11
28.260,01	40.490,00	5		10
40.490,01	57.260,00	4		8
57.260,01	86.190,00	3		6
86.190,01	149.790,00	2		5
149.790,01	Hortik gora	1		3

Apartatu honen lehen paragrafoan xedatutakoaren indarrez atxikipen portzentajea gutxitu nahi duten langile aktibo desgaituek ziurtagiri bat aurkeztu beharko diote ordaintzaileari gutxipen horretarako eskubidea izateko eskatutako beharkizunak betetzen dutela frogatzeko. Gizarte Politikako Departamentuak edo beste organo eskudun batek eman beharko du ziurtagiria.

107. artikulua. Lan errentak jasotzen dituenak bere datuen berri ematea ordaintzaileari.

1. Erregelamendu honek 106.1 artikuluan jasotako taula aplikatzeko, zergadunek ordaintzaileari jakinarazi beharko dio zenbat ondorengok ematen duten zergaren foru arauaren 81. artikuluan jasotzen den kenkarirako eskubidea eta, hala badagokio, epaileen erabakiz ezkontideari edo izatezko bikote lagunari pentsio konpentsagarri bat ordaintzeko obligazioa duela ere adieraziko dio.

Era berean, zergaren foru arauak 24.3 artikuluan jasotako egoera jakinarazi eta frogatu beharko dute langile aktibo ezgaituek.

2. Ordaintzaileari ez bazaio aurreko apartatuan aipaturiko datuen berri ematen, hark datu horiek kontuan hartu gabe aplikatuko du dagokion atxikipen portzentajea, eta daturik ez emateak edo horien komunikazioa zuzena ez izateak bidezko zigorrak ezartzea ekar dezake, hala badagokio.

3. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den datu komunikazioa urte natural bakoitzeko lehen eguna baino lehen edo harremana hasten den unean egingo da.

Zergadunak egindako azken komunikaziotik datuak aldatu ez badira, ez da beharrezkoa izango ordaintzaileari ekitaldi bakoitzean ematea datu horien berri.

4. Zergadunek edozein unetan eskatu ahal izango diete beren ordaintzaileei erregelamendu honetan jasotakotik ateratzen direnak baino atxikipen portzentajea handiagoak aplikatzea, arau hauei jarraituz:

a) Eskaera idatziz aurkeztuko zaie ordaintzaileei, nominak prestatzen hasteko behar den aurrerapenaz, eta horiek derrigorrez erantzun beharko diote eskatutakoari.

b) Eskatutako atxikipen portzentaje berria ezingo da aldatu eskaera egunetik hasi eta urte amaiera bitarteko epean –salbu erregelamendu honetako 106.2 artikulua 3. erregelari aipaturiko kasuetan-. Zergadunari ondorengo ekitaldietan aplikatuko zaio, harik eta aipatu portzentajeari idatziz uko egin edo atxikipen portzentajea handiagoa eskatzen den arte, eta, beti ere, zirkunstantziaren bat aldatzeagatik tasa handiago bat ezartzea beharrezkoa gertatzen ez bada, atxikipen portzentajeen taulen arabera.

5. Pentsiodunek atxikipen portzentajeen taula orokorraren alde egin dezaketen aukera idatziz aurkeztuko zaio ordaintzaileari edo entitate kudeatzaileari. Urte bakoitzeko abenduaren barruan egingo da aukera hori edo, bestela, pentsiodun eta hartzeko pasiboaren titular bihurtzen den hilabetearen aurrekoan.

6. Ordaintzaileak zergadunak aurkeztutako frogagiri eta komunikazioak gorde beharko ditu, eta Zerga Administrazioaren esku jarri honek eskatzen dituenean.

108. artikulua. Lan etekinen gaineko atxikipenak zehazteko prozedura berezia, egoitza aldatzen denean.

1. Zerga honen zergadunak ez diren baina lurralde espainiarrera aldatuta izaera hori hartuko duten besteren konturako langileek Zerga Administrazioari jakinarazi ahal izango diote zirkunstantzia hori, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak onartzen duen komunikazio ereduaren bitartez. Era berean, diputatuak zehaztuko du komunikazioa nola, non eta noiz aurkeztu, bai eta horri erantsi beharreko dokumentazioa ere.

Aipatu komunikazioan ondoko hauek adierazi beharko dira: langilearen eta lan etekinen ordaintzailearen identifikazioa, noiz sartu den lurralde espainiarrean eta noiz hasi den lan prestazioa lurraldean ordaintzaile horri dagokionez. Era berean, adierazi beharko da lan harreman horretan ba ote dauden datu objektiboak lan harremanaren ondorioz lurralde espainiarrean ehun eta laurogeita hiru egunetik gorako egonaldia gertatzeari buruz, lan prestazioa lurralde espainiarrean hasten denetik aurrera, lekualdaketa gertatzen den urtearen barruan edo, hori horrela ez bada, ondorengo urtean.

2. Behin komunikazioa eta dokumentazioa aztertutik, hala badagokio Zerga Administrazioak frogagiria luzatuko dio langileari, komunikazioa aurkeztu ondorengo hamar laneguneko gehieneko epean. Frogagirian zerga honen atxikipenak noizdanik aurrera egingo diren adieraziko da.

3. Zerga Administrazioak luzatutako dokumentuaren ale bat emango dio langileak lan etekinen ordaintzaileari, hark han adierazitako datatik aurrera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduntzat har dezan, atxikipenak egiteko.

4. Behin dokumentua jasota, atxikitzea behartuta dagoenak atxikipenak egingo ditu zerga honen araudian xedatutakoaren arabera, aipatu data kontuan hartuz.

5. Interesatuak bera lurraldez aldatu den urtean zerga honen zergadun izaera lortzen ez duenean, zerga honen kontura egindako atxikipenen kenkaria egin ahal izango du Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan.

Era berean, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak 30.bis artikuluan jasotakoa aplikaziozkoa izan denean eta langileak bera atzerrira aldatu den urtean Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari zergadun izaera lortu ez duenean, zerga horren atxikipenak eta konturako sarrerak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketatzat hartuko dira.

2. sekzioa: kapital higikorren etekinak.

109. artikulua. Kapital higigarriaren etekinei egin beharreko atxikipenen zenbatekoa.⁴²

Atxikipen oinarriari 100eko 19ko tasa aplikatuz aterako da kapital higigarriaren etekinei egin beharreko atxikipena.

110. artikulua. Aktibo finantzarioen kontzeptua eta sailkapena.

1. Besteren kapitalak bereganatu eta erabili izana adierazten duten balore negoziagarriak hartzen dira aktibo finantzariotzat, zeinahi eran dokumentatzen direla ere.

2. Etekin inplizituko aktibo finantzariotzat hartuko badira, aktibo horien etekina sortu behar da aktiboa jaulkitzean, lehen aldiz merkaturatzean edo endosua egitean ordaindutako zenbatekoak diferentzia bat izateagatik eragiketa horien epemugan itzultzeko aginduta zegoenaren aldean, betiere eragiketa horien etekina, osorik edo zati batean, modu inplizituan finkatu bada besteren kapitalak bereganatzeko erabilitako edozein balore higikorren bidez.

Jaulkipen, amortizazio edo itzulketa primak etekin inplizituen barruan sartzen dira.

⁴² Artikulu hau Abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUaren 1. artikulua bigarrena ordinaleko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2010ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den (2009-12-30eko GAO).

Etekin inplizituen kontzeptutik kanpo geratzen dira jaulkipen prezioaren gainean egindako hobariak edo kokapen primak, baldin eta merkatuko praktiken barruan sartzen badira eta beren osoan diru-sarrerara bat osatzen badute xedapen honetan araututako aktibo finantzarioen jaulkipen edo zirkulazioan parte hartzen duen bitartekari edo merkaturatzaile finantzarioarentzat.

Igorpen baliabide guztiak, baita merkataritzako eragiketetan sortutakoak ere, endosatu edo eskualdatzen diren momentutik etekin inplizituko aktibo finantzariotzat hartuko dira. Endosua edo lagapena hornitzaileen kredituak ordaintzeko egiten denean, ordea, ez da halakotzat hartuko.

3. Interesak sortzen dituzten etekinak etekin esplizituko aktibo finantzariotzat hartuko dira. Halakotzat joko dira, era berean, kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik kontraprestazio gisa hitzartzen den beste edozein ordainketa era, betiere aurreko apartatuan etekin inplizituei buruz emandako kontzeptuan sartzen ez bada.

4. Etekin mistoko aktibo finantzarioek urtean sortzen duten efektiboa jaulkipenaren unean indarrean dagoen erreferentzia-tasaren berdina edo handiagoa bada, etekin esplizituko aktibo finantzarioen erregimena izango dute, nahiz eta jaulkitzeko, amortizatzeko eta itzultzeko baldintzetan, inplizituki, beste etekin gehigarri bat finkatuta izan. Erreferentzia-tasa hori honako hau izango da hiruhileko natural bakoitzean: aurreko hiruhilekoan Estatuaren bono edo obligazioekin egindako azken enkantuz ateratako batez besteko prezio ponderatu eta biribilduari dagokion tasa efektiboaren %80. Enkanteak izan daitezke hiru urtetarako bonoenak, lau urteko edo hortik beherako epea duten aktibo finantzarioak badira, bost urtetarako bonoenak, lau eta zazpi urte bitarteko epea duten aktibo finantzarioak badira, eta hamar, hamabost edo hogeita hamar urtetarako obligazioenak, epe handiagoa duten aktibo finantzarioak izanez gero. Epe bati buruzko erreferentzia-tasa zehazterik ez dagoenean, pentsatutako jaulkipenari gehien hurbiltzen zaion epearena aplikatuko da.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, etekin aldakor edo flotakorra duten aktibo finantzarioak jaulki baldin badira, barruko etekin tasa hartuko da eragiketaren interes efektibotzat, eta etekin esplizituko etekinak baino ez dira kontuan izango. Sortutako etekinen behin betiko zenbatekoa aldian behin finkatzeko erabilitako parametroaren hasierako balorazioari begiratuko zaio tasa kalkulatzeko.

111. artikulua. Aktibo finantzarioak eskualdatu, itzuli eta amortizatzeko baldintza fiskalak.

1. Gertatzen bada etekin inplizituko titulu edo aktibo finantzarioak nahiz etekin esplizitukoak saldu edo itzuli nahi direla, eta horiek eskualdatu, amortizatu edo itzultzean atxikipena izan behar dutela, derrigorrez egiaztatu beharko da horiek atxikipena egitera behartuta dauden fede emaile edo finantza entitateek parte hartuz eskuratu direla alde zuzenetik, eta eragiketaren prezioa ere frogatu beharko da.

Zirkulazioan jarri ondoren igorpen baliabide bat aktibo finantzario bihurtzen denean, lehen endosua edo lagapena fede emaile publiko batek edo finantza entitate batek egin beharko du, non eta endosu hartzailea edo eskuratzailea finantza entitate bat ez den. Fede emaileak edo finantza entitateak aktibo finantzario bat dela adieraziko dute agirian, eta lehen eskuratzaile edo edukitzailea zein den ere azalduko dute.

2. Aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, pertsona edo entitate jaulkitzaileak, horren izenean diharduen erakunde finantzarioak, fede emaile publikoak nahiz eskuratzaille edo gordailu egilearen izenean diharduen edo esku hartzen duen erakunde finantzarioak, bidezkoa denaren arabera, ziurtagiria luzatu beharko dute ondoko xehetasun hauek adieraziz:

- a) Eragiketaren eguna eta aktiboaren identifikazioa.
- b) Eskuratzaillearen izena.
- c) Eskuratzaillearen edo gordailu egilearen identifikazio fiskaleko zenbakia.
- d) Eskuratzete prezioa.

Ziurtagiriaren hiru ale luzatuko dira. Horietako bi eskuratzaileri emango zaizkio eta, bestea, aldiz, pertsona edo entitate ziurtagilearen esku geratuko da.

3. Erakunde finantzarioek edo fede emaile publikoek ez dute aktibo horien eskualdaketa bitartekaritza izango edo eskurik hartuko, eskualdatzaileak ez badu eskurapena frogatzen artikulu honetan xedatutakoaren arabera.

4. Artikulu honetan aipatutako aktibo finantzarioak jaulkitzen dituzten pertsona edo entitateek ezingo dituzte haiek itzuli, edukitzaileak aurrez eskuratu dituenik frogatzen ez duenean aurreko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera egindako ziurtagiriaren bitartez.

Eragiketaz arduratzen diren jaulkitzaileak edo erakunde finantzarioek ez badiote, aurreko paragrafoaren arabera, itzulketarik egin behar titulu edo aktiboaren edukitzaileari, kopuru horren pareko gordailua eratu beharko dute eta agintari judizialen esku utzi.

Aktiboak berrerosi, erreskatatu, deuseztatu edo aldeztu aurretik amortizatzeko, ezinbestekoa izango da erakunde finantzario batek edo fede emaile publiko batek esku hartzea edo bitartekari izatea. Aktiboa jaulki duen pertsona edo entitatea eskuratzaille soil gisa geratuko da titulua berriz zirkulazioan jarriz gero.

5. Tituluaren edukitzaileak eskurapenaren ziurtagiria galduz gero, beste bat jaulkitzeko eskatu ahal izango dio ziurtagiria jaulki zuen pertsona edo entitateari.

Pertsona edo entitate horrek delako ziurtagiria ale bikoiztua dela adierazi beharko du, zein egunetan luzatzen duen ere agerian utziko duelarik.

6. Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, eskualdaketa musu truke egitekotan, eskuratzaillea eskualdatzailearen eskurapen balioan subrogatzen dela ulertuko da, baldin eta kostu hori behar bezala frogatzen bada.

112. artikulua. Kapital higikorren etekinen gaineko atxikipen oinarria.

1. Oro har, exijitu daitekeen edo ordaindu den kontraprestazio osoa izango da kapital higikorren etekinen oinarria. Inoiz ere, ondorio horietarako ez da kontuan hartuko zergaren foru arauak 9.25 artikuluan jasotako salbuespena.

2. Aktibo finantzarioak amortizatu, itzuli edo eskualdatzen direnean, atxikipen oinarria hauxe izango da: aktibo horien amortizazio, itzulketa edo eskualdatze balioaren eta beren eskurapen edo harpidetza balioaren arteko diferentzia

positiboa. Eskuratze baliotzat eskurapenaren ziurtagirian ageri dena hartuko da. Ondorio horietarako, eragiketaren gastu osagarriak ez dira gutxituko.

Eskualdatzaileari egin dakioken atxikipenaren kaltetan gabe, entitate jaulkitzaileak aktibo bat eskuratzen bada eta aktibo hori berak jaulkitakoa bada, atxikipena eta konturako sarrera titulua geroko edozein eskualdaketatan lortutako etekinaren gainean egingo da, amortizazioa kanpo utzita.

3. Atxikitzeko betebeharra erregelamendu honek 100.f) artikulua azken paragrafoan jasotakoaren ondorio denean, atxikipen oinarria eskualdatutako balorearen kupoi korrituari dagokion prezioaren zatia izango da.

4. Zergaren foru arauak 40. artikuluan jasotako etekinei foru arau berak 42.3 artikuluan aipatutako portzentajeak aplikaziozkoak bazaizkie, portzentaje horiek kontuan hartuz kalkulatu da atxikipen oinarria.

5. Aseguru kontratuengatik jasotzen diren zenbatekoetan eta kapitalen ezarpenaren ondorioz eskuratzen diren biziarteko nahiz aldi-baterako errentetan, zergaren foru aruari jarraituz kalkulatu da oinarri ezargarrian sartu beharreko zenbatekoa izango da atxikipen oinarria.

⁴³6. Atxikitzeko obligazioa sortzen bada sozietateen gaineko zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 16.8 artikuluan aipatutakotik eratorritako bigarren doiketetatik, atxikipenaren oinarria hitzartutako balioaren eta merkatuko balioaren arteko aldea izango da.

113. artikulua. Kapital higikorren etekinaren gainean atxikitzeko eta kontura ordaintzeko betebeharra sortzea.

1. Atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta dauden kapital higikorren etekinak, diruzkoak nahiz gauza bidezkoak, exigigarri egiten diren unean edo, lehenago bada, ordaintzen nahiz entregatzen direnean, sortuko da, izaera orokorrez, atxikitzeko eta kontura ordaintzeko betebeharra.

Partikulariki, interesak exigigarriak izango dira eskrituran edo kontratuan likidazio edo kobrantzarako ezartzen diren mugaegunetan edo, bestela, kontuan beste moduren batez adierazten denean, nahiz eta jasotzaileak horien kobrantza erreklamatu ez edo etekinak eragiketaren tronkoari metatuak egon. Dibidenduak, berriz, banatzeko akordioan ezarritako egunean izango dira exigigarriak, eta horretarako egunik jarri ez bada, orduan akordioa hartu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Kapital higikorren etekinak aktibo finantzarioak eskualdatuz, amortizatuz edo itzuliz lortu badira, atxikitzeko obligazioa aktibo horiek eskualdatu, amortizatu edo itzultzen diren unean sortuko da.

Atxikipena eskualdaketa gauzatzen den egunean egingo da, kobrantzarako hitzartu diren baldintzak edozein direla ere.

⁴³ Apartatu hau ekainaren 16ko 20/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua zazpigarren apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2009-06-23ko GAO).

3. sekzioa: jarduera ekonomikoen etekinak.

114. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekinei egin beharreko atxikipenen zenbatekoa.

1. Etekinak jarduera profesional baten kontraprestazio direnean, ordaindutako sarrera osoen gainean %15eko atxikipena aplikatuko da.

Alabaina, zergadunek jarduera profesionala hasi badute, atxikipen tasa %7koa izango da jarduera hasi den zergaldian eta hurrengo bietan, baina beti ere jarduera hasi aurreko urtean inolako jarduera profesionalik egin ez badute.

Aurreko paragrafoan aipatu den atxikipen tasa aplikatzeko, zergadunek zirkunstantzia hori betetzen dela jakinarazi beharko diote etekinen ordaintzaileari, eta honek komunikazioa gorde beharko du behar bezala sinatuta.

Atxikipena %7koa izango da etekinak jasotzen dituztenak honako hauek direnean:

- Udal zergabiltzaileak.
- Kanpoko zerbitzu osagarriak erabiltzen dituzten bitartekariak.
- Estatuaren Loteria eta Apustuak entitate publiko enpresarialeko ordezkari komertzialak.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera profesionalen etekinen barruan ondoko hauek sartzen direla joko da:

a) Orokorrean, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Araugileak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga dela-eta onartutako tarifetako bigarren eta hirugarren sekzioetan jasotako jardueretatik datozenak.

b) Bereziki, ondoko hauek lortutakoak joko dira etekin profesionaltzat:

1) Idazlanen egileek edo itzultzaileek lortutakoak, jabetza intelektual edo industrialetik datozenean. Egile edo itzultzaileek zuzenean argitaratzen dituztenean beren lanak, etekinak jarduera enpresarialeki dagozkien barruan sartuko dira.

2) Komisionistek lortutakoak. Kontratua egin nahi duten alderdiak hurbiltzera mugatzen direnak joko dira komisionistatzat.

Aldiz, aurreko paragrafoan aipaturiko lana egiteaz gain, merkataritza eragiketa horien arriskua edo mentura ere bere gain hartzen dutenean, komisionisten zereginak egitera ez direla mugatzen joko da, eta orduan jarduera enpresarialeki dagozkien barruan sartuko da etekina.

3) Irakasleek lortutakoak, edozein izanik ere beren irakaskuntza mota, jarduera hori norberaren etxean, etxe partikularretan, akademietan edo establezimendu irekian burutzen dutenean. Akademia edo establezimendu propioetan irakastea jarduera enpresarialtzat hartuko da.

4) Hitzaldiak, mintegi edo ikastaroetako ponentziak edo antzeko ekintzak, lan harreman baten ondorioz ematen ez direnean.

3. Enpresa batetik kobratu eta bertan burutzen dituzten eginkizunengatik elkargo profesioaletan izena ematera behartuta dauden pertsonak jasotzen dituzten kopuruak ez dira jarduera profesionalen etekintzat hartuko, ezta, oro har, harreman laboral edo menpeko baten ondorioz sortutakoak ere. Kopuru horiek lan etekinen barruan sartuko dira.

4. Etekinak nekazaritza edo abeltzaintzako jarduera baten kontraprestazio direnean honako atxikipen portzentajeak aplikatuko dira:

- Txerri aziendaren gizentzea eta hegazti-hazkuntza: %1.

- Gainerako kasuak: %2.

Portzentajea horiek ordaindutako etekin osoei aplikatuko zaizkie, diru laguntza arruntak eta kapitalekoak nahiz kalte-ordainak kanpo utzita.

Ondorio horietarako, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueratzat ulertuko da produktu naturalak, landareenak nahi abereenak, ustialekutik zuzenean lortzen dituztenak eraldaketa, elaborazio edo manufaktura prozesurik gabe.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifetan jarduera industrialei dagokien epigrafe batean alta hartzea derrigorrezkoa duen jarduera oro hartzen da eraldaketa, elaborazio edo manufaktura prozesutzat.

Nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren barruan ondoko hauek sartuko dira:

a) Abeltzaintza independentea.

b) Nekazariak edo abeltzainak, beren ustialekuetan ohikoak diren bitartekoez baliatuz, nekazaritza edo abeltzaintzako lan edo zerbitzu osagarriak eskaintzea.

c) Abereak hazi, zaindu eta gizentzea.

5. Etekinak baso jarduera baten kontraprestazio direnean, %2ko atxikipena aplikatuko da ordaindutako sarrera osoen gainean, diru laguntza arruntak eta kapitalekoak nahiz kalte-ordainak kanpoan utzita.

6. 1.- Etekinak apartatu honetako 2. zenbakian aurreikusitako jarduera ekonomikoetako baten kontraprestazio direnean, eta jardueraren etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoan kalkulatzen denean, ordaindutako sarrera osoei %1eko atxikipen tasa aplikatuko zaie.

2.- Apartatu honetan xedatutakoa Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifetako lehen sekzioan biltzen diren ondoko talde eta epigrafeetan sailkatutako jarduera ekonomikoari aplikatuko zaie:

Jarduera ekonomikoa

JEZaren talde edo epigrafea

Metal arotzeria, metalezko egituren fabrikazioa eta galdaragintza.

314 y 315

Burdingintza, sarrailagintza, torlojugintza eta alanbregintza gaiak, etxeko tresneria eta metalezko artikuluak, beste inon sailkatu gabeak, egitea.

316.2,3,4 y 9

Jantziak eta jantzien osagarriak seriean egitea, salbu gehienbat beste batzuei aginduta egiten denean.	453
Jantziak eta jantzien osagarriak seriean egitea enpresak berak zuzenean, hirugarrenentzat eta beste batzuen aginduz bakarrik egiten duenean	453
Eraikuntzarako zurgintza piezak, parketa eta egurrezko egiturak seriean egitea.	463
Egurrezko altzarigintza	468
Testu edo irudiak inprimatzea.	474.1
Igeltserotza eta eraikuntza lan txikiak oro har.	501.3
Instalazio eta muntaiak (iturgintzakoak, hotz-berokoak, eta aire girotuzkoak izan ezik)	504.1
Iturgintza, hozkintza, berokuntza eta aire girotuko instalazioak.	504.2 y 3
Tximistorratzak eta antzekoak instalatzea. Era guztietako sukaldeak, osagarriak barne, muntatu eta instalatzea. Edozein mota eta klasetako igogailuen muntaia eta instalatzea. Instalazio telefonikoak, telegrafikoak, haririk gabeko telegrafikoak eta telebistarenak, edozein motatako eraikin eta eraikuntzetan. Muntaia elektrikoak eta industri instalazio elektrikoak, ez makinaria ez eta instalazio edo muntaiarako elementuak saltzen edo aportatzen ez direnean.	504.4, 5, 6, 7 y 8
Estaldurak eta zoladurak egitea eta isolamenduak jartzea.	505.1, 2, 3 y 4
Zurgintza eta sarrailagintza.	505.5
Eraikin eta lokaletan edozein motatako pintura lanak eta paper, ehun edo plastikozko estaldurak egitea, akabera eman eta dekoratzea.	505.6
Eraikin eta lokaletan igeltsu nahiz eskaiolazko lanak egin eta dekoratzea.	505.7
Merkantzien errepide bidezko garraioa.	722
Mudantza zerbitzua.	757

3.- Apartatu honetan aurreikusitako atxikipena ez da aplikaziozkoa izango da, zergaren foru arauak 108.5 artikuluan jasotakoaren arabera, jarduera ekonomikoa egiten duen zergadunak ordaintzaileari jakinarazten badio haren etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren metodoan dauden modalitateetako edozein erabiltzen duela. Jakinarazpen horretan honako datuok adierazi beharko dira:

a) Jakinarazpena egiten duenaren izen-abizenak, zerga helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Jarduera ekonomikoa errentak esleitzeko erregimenean

dagoen entitate baten bitartez egiten bada, beharrezkoa izango da, baita ere, entitatearen izena edo sozietate izena eta identifikazio fiskala agertzea eta haren ordezkari dela adieraztea.

b) Aurreko 2. zenbakian jasotako jarduera ekonomikoetatik zein egiten duen, JEZaren epigrafea adierazita.

c) Jarduera horren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren arabera kalkulatzeko duela bere modalitateetako edozein erabilita.

d) Data eta jakinarazten duenaren sinadura.

e) Jakinarazpena jaso behar duen pertsona edo entitatearen identifikazioa.

Gertatzen bada, denborak aurrera egin ondoren, zergadunak berriz ere zenbatespen objektiboaren metodoaren arabera kalkulatzeko dituela jardueraren etekinak, atxikitzeko obligazioa sortu baino lehen zirkunstantzia horren berri eman beharko dio ordaintzaileari aurreko a), b), d) eta e) letretan aipatutako datuekin batera.

Ordaintzailea beti egongo da behartuta datuen komunikazio guztiak behar bezala sinatuta gordetzera.

4.- Aurreko 3. zenbakian aurreikusitako datuak behar bezala jakinarazteko obligazioa ez betetzeak zergen foru arauak 119. artikuluan xedatutakotik eratorritzen diren zerga ondorioak izango ditu.

5.- Zenbatespen objektiboaren metodoko aukeran atzera egiten denean Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 33.2 artikuluan hirugarren paragrafoan jasotzen duen ukoarengatik eta erregelamendu honetako 34. artikuluan aurreikusitakoagatik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkezten den unetik aurrera ulertuko da zergadunak zuzeneko zenbatespenaren metodoaren arabera kalkulatzeko duela bere jarduera ekonomikoaren etekina.

4. sekzioa: ondare irabaziak.

115. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien atxikipenen zenbatekoa.⁴⁴

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien gaineko atxikipena zehazteko, atxikipen oinarriari 100eko 19ko portzentajea aplikatuko zaio.

116. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien atxikipenen zenbatekoa.

⁴⁴ Artikulu hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUaren 1. artikuluan bigarrena ordinaletan hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2010ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den.(2009-12-30eko GAO).

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien atxikipen oinarria zergaren araudiari jarraituz kalkulaturako oinarri ezargarrian sartu beharreko zenbatekoa izango da.

117. artikulua. Atxikitze betebeharra sortzea.

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzen diren unean sortuko da atxikitze obligazioa, kobrantzarako hitzartu diren baldintzak edozein direla ere.

118. artikulua. Sarien gaineko atxikipenen zenbatekoa.⁴⁵

Dirutan jasotzen diren sariei 100eko 19ko atxikipena egingo zaie.

5. sekzioa: beste errenta batzuk.

119. artikulua. Ondasun higiezin errentamendu eta azpierrementamenduei egin beharreko atxikipenen zenbatekoa.⁴⁶

Hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrementan emateagatik lortzen diren etekinen gainean egin beharreko atxikipena, higiezin horien kalifikazioa zeinahi dela ere, errentatzaileari ordaindutako kontzeptu guztiei 100eko 19ko tasa aplikatuz aterako da, BEZa kanpoan utzita.

120. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

1. Erregelamendu honetako 99.2.b) artikuluan aipatzen den irudia ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik lortzen diren etekinei, kalifikazioa zeinahi dutela ere, egin behar zaien atxikipena ordaindutako sarrera osoei %24ko atxikipen tasa aplikatuz aterako da.

2.⁴⁷ Erregelamendu honetako 99.2.b) artikuluan aipatzen diren gainerako kontzeptuen etekinei egingo zaien atxikipena, kalifikazioa zeinahi dutela ere, ordaindutako sarrera osoei 100eko 19ko atxikipen tasa aplikatuz aterako da.

III. kapituluak: konturako sarrerak.

121. artikulua. Konturako sarrerak gauza bidezko lan ordainsariengatik.

⁴⁵ Artikulu hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUaren 1. artikuluen bigarrena ordinaletan lau apartatuak aldatu ditu. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2010ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den (2009-12-30eko GAO).

⁴⁶ Artikulu hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUaren 1. artikuluen bigarrena ordinaletan bost apartatuak aldatu ditu. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2010ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den (2009-12-30eko GAO).

⁴⁷ Apartatu hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUaren 1. artikuluen bigarrena ordinaletan sei apartatuak aldatu ditu. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta 2010ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den. (2009-12-30eko GAO).

1. Gauza bidez ematen diren ordainsariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa haien balioari erregelamendu honetako aurreko kapituluaren arabera dagokion portzentajea aplikatuz kalkulatu da. Balio hori zergaren foru arauak 62. artikuluan jasotako arauari jarraituz zehaztu da.

2. Ez da konturako sarrerak egiteko obligaziorik izango borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen bazkide babesleek, pentsio planen sustatzaileek eta enpresen gizarte aurreikuspeneko planen hartzaileek ordaindutako kontribuzioei nahiz enplegu-emaitzaileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateei ordaindutako zenbatekoengatik, zergadunaren oinarri ezargari orokorra murrizten dutenean. Zergaren foru arauak 73.1 artikuluan xedatutakoa ordaindutako ordainsariei aplikatzen den gehieneko mugaraino geldituko dira oinarritik kanpo.

Era berean, atxikipen oinarritik kanpo geratuko dira Gizarte Segurantzaren aldeko kotizazio gisa, langile autonomoen erregimen berezian eta araudia betez, kooperatibek bazkide langileen edo lanaren estaldura sozial eta asistentzialerako ordaindu dituzten kopuruak.

3. Egoitza aldatzen denean konturako sarrera zehaztu eta egiteko, erregelamendu honek 108. artikuluan jasotako prozedura berezia erabiliko da.

122. artikulua. Konturako sarrerak kapital higigarriaren gauza bidezko ordainketengatik.⁴⁸

1. Gauza bidezko ordainketengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, ordaintzailearentzat izan den eskuratze balioa edo kostua %20 gehitu behar da, eta emaitzari erregelamendu honen aurreko kapituluko bigarren sekzioan jasotzen duen portzentajea aplikatu.

2. Kontura sartzeko obligazioa sortzen bada sozietateen gaineko zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 16.8 artikuluan aipatutakotik eratorritako bigarren doiketengatik, konturako sarreraren oinarria hitzartutako balioaren eta merkatuko balioaren arteko aldea izango da.

123. artikulua. Konturako sarrerak jarduera ekonomikoen gauza bidezko ordainketengatik.

Gauza bidezko ordainketengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, bere merkatuko balioari erregelamendu honek aurreko kapituluko hirugarren sekzioan xedatutakotik ateratzen den portzentajea aplikatuko zaio.

124. artikulua. Sarien gaineko konturako sarrerak.

Ondare irabaziak direnean, gauza bidez ordaindutako sariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa honela kalkulatu da: erregelamendu honek 118. artikuluan jasotzen duen portzentajea aplikatuko zaio ordaintzailearentzat izan den eskuratze balioa edo kontua %20 gehitu ondoren ateratzen den emaitzari.

⁴⁸ Artikulu hau ekainaren 16ko 20/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua zortzigarren apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren aldatzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2009-06-23ko GAO).

125. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko konturako sarrera.

Erregelamendu honek 119. eta 120. artikuluetan aipatzen dituen gauza bidezko errenten gainean egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa beren merkatuko balioari artikuluko horietan zehazten diren portzentajeak aplikatuz kalkulatu da.

IV. kapitulua: atxikitzailearen, konturako sarrera egin behar duenaren eta atxikituaren betebeharrak.

126. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak.

1. Atxiki eta kontura sarrera egitera behartutako subjektuak hiru hilabete behin aurkeztu beharko du berak atxikitako kopuruen eta egindako konturako sarreraren aitorpena, aurreko lehen hiruhileko naturalari dagokionez, bai eta haien zenbatekoa Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu ere.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aitorpena eta ordainketa hilean behin egingo da, aurreko hilean atxikitako zenbatekoei eta kontura egindako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak badaude abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoak, 71. artikulua 3. apartatuko 1. eta 2. zenbakietan jasotzen dituen egoeren barruan.⁴⁹

Aurreko paragrafoan jasotakoa aplikatu da herri administrazioetat hartutako atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak direnean ere, Gizarte Segurantza barne, baldin eta ekitaldia hasi baino lehen azkenik onartutako urteko aurrekontua 6 milioi eurotik gorakoa bada, erregelamendu honek 99. artikulua 1. apartatuko a) eta c) letretan eta 2. apartatuko c) letran aipatutako errentei lotutako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez.

Atxikipena eta sarrera zuzenean egingo dira, etekina ordaintzen duen entitatea Gipuzkoako Foru Aldundia denean.

Atxikitzaileak edo kontura ordaintzera behartutakoak aitorpen negatiboa aurkeztuko du baldin eta, atxikipena edo konturako sarrera jasan behar duten errentak ordaindu arren, horien zenbatekoa dela-eta inolako atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez badu. Aitortzen den zergaldian atxikipena edo konturako sarrera jasan behar duen errentarik ordaindu ez denean, ez da aurkeztu beharko aitorpen negatiborik.

2. Atxikitzaileak eta kontura ordaintzera behartutakoak aurreko lehen urtean egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztuko behar dute. Laburpen horretan, bere identifikazio datuez gainera, jasotzaileen zerrenda jasotzea eta honako datu hauek agertzea eskatu ahal izango da:

⁴⁹ Parágrafo hau maiatzaren 27ko 43/2008 FORU DEKRETUaren 3. artikulua aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen du lan etekinen konturako ordainketei eta jardura ekonomikoetako ordainketa zatikatuei dagokienez (2008-05-28ko GAO). Aldaketak 2008ko maiatzaren 29etik aurrera ditu ondorioak.

- a) Izen-deiturak.
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Bazkide, partaide edo onuradunaren zerga helbidea edo ohiko egoitza, kontuan hartuta entitateak edo pertsona fisikoak diren.
- d) Lortutako errenta, adierazita kontzeptuen identifikazioa, deskripzioa eta izaera nahiz errentaren sorrera-ekitaldia eta zenbatekoagatik atxikipena edo konturako sarrerarik izan ez duten errentak. Beste hauek ere: errenta salbuetsiak eta joan-etorriko gastuen dietak eta ordainsariak, eta zergapetu gabeko mantenu eta egonaldiko gastu arruntak.
- e) Zergaren foru arauak 19., 20. 21. eta 42.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera aplikatu diren integrazio portzentajeak.
- f) Ordaintzaileak atxikipen portzentajea aplikatzeko kontuan hartu dituen zirkunstantzia pertsonal eta familiarrak.
- g) Atxikipena edo konturako sarrera.
- h) Aurreko ekitaldietan sortuak izanik ordaintzaileari itzuli zaizkion zenbatekoak.
- i) Ondoko gastu kenkaridunak: Gizarte Segurantzari edo funtzionarioen derrigorrezko mutualitateei egindako kotizazioak; eskubide pasiboengatik edo umezurtzen elkargoei edo antzeko erakundeei egindako kotizazioengatik egindako gutxipenen zenbatekoak; indarrean dagoen araudiari jarraituz zergadunek Gizarte Segurantzari dagozkion kontingentzien ordainketa bere gain hartu duten entitate edo erakundeei ordaintzen dizkieten zenbatekoak, baldin eta ordaintzaileak aurrez etekinetatik kendu baditu.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak lurralde espainiarrean helbideratuta dauden, bertan egoitza duten edo han ordezkaturik dauden entitateek izango dituzte, baldin eta atxikipenari lotuta dauden errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo baloreen errentak gordailatu edo kobratzeaz arduratzen badira.

3. Atxikitzaitzaileak edo kontura ordaintzera behartutakoak atxikipenen edo konturako ordainketen ziurtagiria eman beharko dio zergadunari, eta behar den frogagiria ere luzatuko dio aurreko apartatuan aipatzen den urteko laburpenean hari buruz sartu behar diren gainerako datuak azalduz.

Ziurtagiri horiek zerga honen autolikidazioa aurkezteko epea hasi baino lehen jarri beharko dira zergadunaren esku.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak lurralde espainiarrean helbideratuta dauden, bertan egoitza duten edo han ordezkaturik dauden entitateek izango dituzte, baldin eta atxikipenari lotuta dauden errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo baloreen errentak gordailatu edo kobratzeaz arduratzen badira.

4. Ordaintzaileek errentak ordaintzerakoan egindako atxikipenen edo konturako sarreren berri eman beharko diete zergadunari, aplikatu den portzentajea adieraziz.

5. Artikulu honetan aipatzen diren aitorten eta ziurtagiriak zein eredutan, non eta nola egingo diren Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakiko du errenta mota bakoitzerako, eta berak ere ezarri ahal izango du aurreko 2. apartatuan jasotako datuen artean aitortenetan sartzekoak direnak. Atxikitzaileak edo kontura ordaintzera behartutakoak derrigorrez bete beharko ditu aitortenetan berari buruz eskatzen diren datuak.

Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako moduan, tokian eta epeetan aitortu eta ordaindu beharko da.

Era berean, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakiko du zein kasu eta baldintzetan nahiz non, nola eta zein epeetan aitortu eta ordainduko diren artikulu honetan aipatutako aitorten telematikoak eta ziurtagiriak.

V. kapitulua: ordainketa zatikatuak.

127. artikulua. Ordainketa zatikatuak egitera behartuak.

1. Jarduera ekonomikoak burutzen dituzten zergadunek hurrengo artikuluetan ezarritakotik ateratzen den diru-kopurua autolikidatu eta Foru Aldundiari ordaindu behar diote, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, nekazaritza, abeltzaintza edo baso jarduerak burutzen dituzten zergadunak ez dira jarduera horiengatik ordainketa zatikatuak egitera beharturik egongo baldin eta, aurreko urte naturalean jardueratik lortutako sarreraren gutxienez %70ari atxikipena edo konturako sarreraren bat aplikatu bazaio. Diru laguntza arruntak, kapital diru laguntzak eta kalte-ordainak kanpoan utziko dira.

3. Aurreko 1. apartatuan ezarritakoaren kaltetan gabe, jarduera profesionalak burutzen dituzten zergadunak ez dira jarduera horiengatik ordainketa zatikatuak egitera beharturik egongo baldin eta, aurreko urte naturalean jardueratik lortutako sarreraren gutxienez %50ari atxikipen edo konturako sarreraren bat aplikatu bazaio.

4. Aurreko 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduerari hasiera ematen zaion kasuetan, ordainketa zatikatuaren epealdian atxiki edo kontura ordaindu diren sarreraren portzentajea hartuko da kontuan.

128. artikulua. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa izaera orokorrez.

1. Aurreko artikuluan aipatutako zergadunek ondoko diru-sarrera egingo dute, izaera orokorrez eta hiru hilabetetan behin, etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespena nahiz zenbatespen objektiboa erabiltzen duten jarduerengatik: ordainketa zatikatuak egin baino bi urte lehenago lortutako etekin enpresarial edo profesional garbiei %5 aplikatuz ateratzen den emaitza. %5 horri, hala ere, indarrean dagoen araudiari jarraituz bi urte lehenago egindako atxikipenen eta konturako sarreraren laurdena kenduko zaio, hala badagokio.

Etekin garbia zeinu, indize edo moduluen modalitatearen arabera kalkulatzen duten jarduerengatik aurreko paragrafoan ezarritakotik ateratzen denaren erdia ordainduko da, baldin eta azken aurreko urtean titularra pertsona fisikoa izan bada eta soldatapeko langilerik izan ez badu.

Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa inoiz ezingo da negatiboa izan.

2. Zergadunek adierazitakoa baino portzentajea handiagoa aplikatu ahal izango dute ordainketa zatikatu bakoitzean.

3. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak prozedura bat ezarri ahal izango du Administrazioak ofizios likidatu ahal izan ditzan ordainketa zatikatuak.

129. artikulua. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa zuzeneko zenbatespenean, aparteko egoerak daudenean.

1. Denboraldiko jardueretan, jarduera hasi edo aldatzen denean, ordainketa zatikatuak egin baino bi urte lehenago jarduerarik garatu ez denean edo jarduera horietatik lortutako etekin garbia positiboa izan ez denean, edota, bestela, hiruhileko batean izandako eragiketa bolumena bi urte lehenagoko hiruhileko korrelatiboan izandako bolumen osoa baino txikiagoa denean, zergadunak hiruhileko horretako eragiketa bolumenaren %2a ordaindu ahal izango du etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren arabera kalkulatzeko duten jarduerengatik. Saltoki orokor, berezi nahiz barrukoetan tabako laboreak handizka zein txikizka saltzen direnean, portzentajea hori hiruhilekoan izandako salmenta edo sarrera bolumenaren %1 izango da.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera ateratzen den zenbatekoari kendu beharrekoak izango dira, hala badagokio, erregelamendu honek 114. eta 123. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz egindako atxikpenak eta konturako sarrerak, hiruhilekoari dagozkionak.

3. Zergadunek adierazitakoa baino portzentajea handiagoa aplikatu ahal izango dute ordainketa zatikatu bakoitzean.

130. artikulua. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa zeinu, indize edo moduluen modalitatean, tartean aparteko egoerak daudenean, nekazaritza, abeltzaintza arrantza jarduerak kanpoan utzita.

1. Denboraldiko jardueretan, jarduera hasi edo aldatzen denean, ordainketa zatikatuak egin baino bi urte lehenago jarduerarik garatu ez denean edo jarduera horietatik lortutako etekin garbia positiboa izan ez denean, etekin garbia kalkulatzeko zeinu, indize edo moduluen modalitatea erabiltzen duten jarduerengatik zergadunak salbuespen gisa egingo dituen diru-sarrerak hurrengo apartatuetan zehaztutakoak izango dira.

2. Hiruhileko ordainketa bakoitza soldatapekoa ez den langilearen modulua bakarrik aplikatuz ateratzen den zenbatekoaren %5 izango da. Modulu hori kalkulatzeko, zerga honen zeinu, indize edo moduluak aplikatzeko Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak foru agindu bidez ekitaldi bakoitzerako onartzen dituen instrukzioetan jasotakoari jarraituko zaio.

Ordainketa zatikatuaren ondorio hutsetarako, aurreko paragrafoan adierazitako oinarri-datuen zenbatekoa 2rekin zatituko da jardueraren titularra pertsona fisikoa denean eta soldatapeko langilerik ez duenean.

Apartatu honetan aipatzen den ordainketa zatikatuaren ondorio hutsetarako, ezingo da inolako indize zuzentzailerik aplikatu.

Soldapatekoa ez den langilearen modulua zenbaki oso bat ez bada, bi zenbaki dezimalekin adieraziko da.

3. Jarduera bat urtarrilaren 1az geroztik hasten bada edo abenduaren 31 baino lehen amaitzen, edo bi zirkunstantziak batera ematen direnean, osatu gabeko hiruhileko naturalean egin behar den ordainketa zatikatua eragiketa honen emaitza izango da: lehenik, hiruhileko natural oso bati dagokion zenbatekoa - aurreko 2. apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulatu- hartuko da, eta gero, hiruhileko natural horretan jarduera garatu den egun naturalen kopurua hiruhileko horretako egun naturalen kopuru osoarekin zatituko da; hiruhileko natural osoari dagokion zenbatekoa zatiketa horren emaitzarekin biderkatuz lortuko da, azkenik, ordainketa zatikatuaren zenbatekoa.

Jarduera hasten den egunean oinarri-daturik zehazterik ez badago, ordainketa zatikatua hiruhilekoan izandako salmenta edo sarrera bolumenaren %2 izango da.

4. Denboraldiko jardueretan ordaindu behar den zenbatekoa kalkulatzeko, eragiketa hauxe egingo da: hiruhilekoan zehar jarduera zenbat egun naturalean garatu den jakinda, egun kopuru hori hiruhileko horretako egun naturalen kopuruarekin zatituko da, eta ateratzen den zatidura aurreko 2. apartatutik ateratzen den zenbatekoarekin biderkatuko da.

5. Aurreko 2., 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoaren arabera ateratzen den zenbatekotik kendu beharrekoak izango dira, hala badagokio, erregelamendu honek 114. eta 123. artikuluetan ezarritakoari jarraituta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak, hiruhilekoari dagozkionak.

131. artikulua. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa zeinu, indize edo moduluen modalitatean, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza jardueretan, aparteko egoerak daudenean.

1. Denboraldiko jardueretan, jarduera hasi edo aldatzen denean, ordainketa zatikatuak egin baino bi urte lehenago jarduerarik garatu ez denean edo jarduera horietatik lortutako etekin garbia positiboa izan ez denean, salbuespen gisa, etekin garbia kalkulatzeko zeinu, indize edo moduluen modalitatea erabiltzen duten nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza jarduerengatik zergadunak egingo dituen diru sarrerak hurrengo apartatuetan zehaztutakoak izango dira.

2. Hasiera batean aplikatuko diren zeinu edo moduluak eta indize zuzentzaileak, jardueraren oinarri-datuei dagozkienak izango dira, beti ere, urte bakoitzeko urtarrilaren 1a erreferentzia harturik.

Oinarri-daturen bat urteko lehen egunean zehazterik ez dagoenean, aurreko urteari dagokiona hartuko da ordainketa zatikatuaren ondorioetarako.

Denboraldiko jarduerak badira, aurreko urteari dagokion modulu unitate kopurua hartuko da ordainketa zatikatuaren ondorioetarako.

Aurreko urtean ez bada jardueran aritu, hasiera batean aplikatuko diren indize edo moduluak eta indize zuzentzaileak, hasiera eguneko oinarri-datuei dagozkienak izango dira.

Ordainketa zatikatuaren ondorio soilotarako, aurreko paragrafoetan adierazitako oinarri-datuen zenbatekoa 2rekin zatituko da jardueraren titularra pertsona fisikoa denean eta soldatapeko langilerik ez duenean.

Zeinu edo modulu bakoitzeko oinarri-datuak zenbaki oso bat ez badira, bi zenbaki dezimalekin adieraziko dira.

3. Hiruhileko ordainketa bakoitza jardueraren zeinu, indize edo moduluak aplikatuz ateratzen diren etekin garbien %5 izango da, betiere aurreko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Nekazari gazteen kasuan edo soldatapeko nekazariak direnean, dagokien hiruhileko ordainketa kalkulatzeko, zerga honen zeinu, indize edo moduluak aplikatzeko Ogasuneko eta Finantzetako diputatuak foru agindu bidez ekitaldi bakoitzerako onartzen dituen instrukzioetan kolektibo horrentzat jasoko den murrizpena aplikatuko da.

Oinarri-daturik ezin bada zehaztu aurreko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera, ordainketa zatikatua hiruhilekoan izandako salmenta edo sarrera bolumenaren %2koa izango da.

4. Jarduera bat urtarrilaren 1az geroztik hasten bada edo abenduaren 31 baino lehen amaitzen, edo bi zirkunstantziak batera ematen direnean, etekin garbia, ordainketa zatikatuaren ondorioetarako, honako modu honetan kalkulatu da:

1.- Etekin garbia dagokion jarduerari aurreko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera zeinu, indize edo moduluak aplikatuz kalkulatu da.

2.- Jardueran aritutako hiruhileko natural oso bakoitzeko, etekin garbiaren %5 ordainduko da.

3.- Osatu gabeko hiruhileko naturalean ordaindu behar den zenbatekoa honela kalkulatu da: lehenik, hiruhileko natural oso bati dagokion zenbatekoa hartuko da, eta gero, hiruhileko natural horretan jarduera garatu den egun naturalen kopurua hiruhileko horretako egun naturalen kopuru osoarekin zatituko da; hiruhileko natural osoari dagokion zenbatekoa zatiketa horren emaitzarekin biderkatuz lortuko da, azkenik, ordainketa zatikatuaren zenbatekoa.

Jarduera hasten den egunean oinarri-daturik zehazterik ez badago, ordainketa zatikatua hiruhilekoan izandako salmenta edo sarrera bolumenaren %2 izango da.

5. Denboraldiko jarduerak badira, urteko etekin garbia aurreko 2. apartatuan xedatutakoari jarraikiz kalkulatu da ordainketa zatikatuaren ondorioetarako.

Eguneko etekina, urteko etekina aurreko urtean jardueran aritu den egun kopuruarekin zatituz kalkulatu da.

Zenbaki honetan aipatutako jardueretan, hiruhileko natural bakoitzagatik egin beharreko sarrera honela kalkulatu da: lehenik, aipatu hiruhilekoan jarduera zenbat egun naturaletan garatu den jakin behar da, eta gero, kopuru hori eguneko etekinarekin biderkatu. Emaitzaren %5 izango da ordaindu beharreko sarrera.

6. Aurreko 3., 4. eta 5. apartatuetan xedatutakoaren arabera ateratzen den zenbatekotik kendu beharrekoak izango dira, hala badagokio, erregelamendu honek 114. eta 123. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz atxikipenak eta konturako sarrerak, hiruhilekoari dagozkionak.

131 bis artikulua. Ordainketa zatikatuaren murrizpen orokorra.⁵⁰

Zergaduna jardueraren hasierako ekitaldian edo ondorengoan badago, edo ordainketa zatikatuak egin baino bi urte lehenago jarduera ekonomikoen etekin garbiak 15.000 eurokoak edo txikiagoak izan badira, 128., 129., 130. edo 131. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz kalkulaturako ordaintzekoa den kopurutik 100 euro kenduko dira, baina ordainketa zatikatuaren zenbatekoa ezingo da inoiz negatiboa izan. Dena den, ordainketa zatikatuaren zenbatekoa, 129., 130. edo 131. artikuluetan xedatutakoaren arabera kalkulaturako, 100 eurokoa baino txikiagoa denean, murriztu gabeko diferentzia ekitaldi bereko ondorengo ordainketa zatikatuaren edozeinetan murriztu ahal izango da. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa ezingo da inoiz ere negatiboa izan.

132. artikulua. Aitortzea eta ordaintzea.

1. Enpresari eta profesionalek derrigorrez aitortu eta ordaindu beharko dizkiote hiru hilabetetan behin Foru Aldundiari kapitulu honetako aurreko artikuluen arabera zehaztutako zenbatekoak. Horretarako epea apiril, uztail, urri eta urtarrilaren 1ean hasiko da eta hurrengo hilaren 10ean amaituko.

Kapitulu honetako aurreko artikuluan xedatutakoa aplikatu arren ordaintzeko zenbatekorik ateratzen ez denean, zergadunek ez dute aitortzen aurkeztu beharko.

2. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak artikuluan aipatzen diren epeak luzatu ahal izango ditu, eta baita sei hilabetetan behin ordaintzeko aukera eman ere. Horretarako, alabaina, beharrezkoa izango da aurreko artikuluan adierazitako portzentajeetan bidezko egokipenak egitea.

3. Zergadunek Ogasun eta Finantza Departamentuan aurkeztuko dituzte aitortpenak, eta diru sarrera Gipuzkoako Foru Aldundian egingo dute.

Aitortpenak bat etorriko dira ezarrita dauden baldintza eta eskakizunekin, eta diru-sarrera Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakiko duen tokian eta eran egingo da.

133. artikulua. Errentak egozteko erregimenean dauden entitateak.

Errentak egozteko erregimenean dauden entitateek jarduera ekonomikoengatik lortzen dituzten etekinen ordainketa zatikatu bazkide, komunero edo partaide bakoitzak egingo du entitatearen irabazietan duen partaidetzaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Lehena. Izatezko bikoteak.

Erregelamendu honen ondorioetarako, izatezko bikote aipatzean aintzat hartzen dira izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak.

⁵⁰ Artikulu hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluen hirugarren ordinalak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta ondorioak 2010 eta 2011ko zergaldietan bakarrik izango diren. (2009-12-30eko GAO).

Bigarrena. Arrantza suspertzea.

1. Zerga neurriari buruzko apirilaren 27ko 3/1999 Foru Arauaren 4. artikuluan aipatutako gutxieneko hamar urteko epean eskurazailea arrantzari lotuta egotearen beharrezkoa betetzeko, eskualdaketaren agiri notarialean eskurazaileak adierazi behar du ontzia aipatu epean arrantzari atxikita izateko konpromisoa.

Ondorio horietarako, jarduerarekiko lotura gorde dela ulertuko da ondoko kasu hauetan:

a) Itsasontziari aitortutako eskubideak zentsu bereko beste itsasontzi bati emateko erabiltzen direnean.

b) Itsasontzia beste arrantza unitate bat egiteko baja gisa edo beste arrantza unitate baten ordean erabiltzen denean.

2. Aurreko apartatuan aipatutako artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, arrantzontzi bat eskualdatu dela ulertuko da enpresa baten akzio edo partaidetza guztiak eskualdatzen direnean ere, baldin eta enpresa horren aktiboaren %90 arrantzontziez osatuta badago.

Hirugarrena. Partaidetzak inbertsio fondo kotizatueta eta akzioak indizeen arabera kotizatueta kapital aldakorreko inbertsio sozietateetan.⁵¹

Zergaren foru arauak 50.1 artikuluan aurreikusten duen geroratze araubidea ez da aplikagarria izango eskualdatu edo berreskuratutakoa nahiz, hala badagokio, harpidetu edo eskuratutakoa inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduak, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 49. artikuluan aipatzen dituen inbertsio fondo kotizatueta ondarearen partaidetzak edo gisa horretako sozietateen akzioak badira.

Laugarrena. Aurrezpen sistematikoko banakako planen arteko mobilizazioa.

Hornidura matematikoa aurrezpen sistematiko batetik bestera osorik edo zati batean mobilizatuz gero, erregelamendu honek aurreikuspen plan aseguratuei buruz 63.3 artikuluan eta seigarren xedapen iragankorrean jasotakoari jarraituko zaio, aplikaziozkoa zaion neurrian.

Bosgarrena. Atxikipena edo konturako sarrera egitea Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mende ez dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateek egin dituzten ekarpen itzulketa bidezko kapital murrizpenetan eta jaulkipen primen banaketetan.⁵²

⁵¹ Xedapen gehigarri hau azaroaren 23ko 32/2010 FORU DEKRETUaren 1. artikuluaen Lau apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Eze-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010-12-01eko GAO).

⁵² Xedapen gehigarri hau maiatzaren 24ko 15/2011 FORU DEKRETUaren 1. artikuluaen zazpi apartatuak gehitu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta

1. Erregelamendu honek 100.i) artikuluan jasotakoa jasota ere, zergaren foru arauak hogeita bigarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen kapital higigarriaren etekinen gainean atxikipena edo konturako sarrera egitea derrigorrezkoa da, horiek ekarpenen itzulketa bidezko kapital murrizpenaren eta jaulkipen primaren banaketaren ondorioz lortzen direnean, baldin eta Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mendean ez dauden Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Legearen arabera eraturako kapital aldakorreko inbertsio sozietateek edo beste estatu batean erregistraturako kapital aldakorreko inbertsio kolektiboko sozietateen pareko inbertsio kolektiboko organismoek eginak badira. Xedapen gehigarri honetan jasotakoa ez zaie aplikatuko zergaren foru arauak hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuko a) letraren bigarren paragrafoan aipatutako kapital higigarriaren etekinei.

2. Aurreko apartatuan jasotako kasuetan, ondokoek egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera:

1. Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Legeak araututako kapital aldakorreko inbertsio sozietateen kasuan, sozietateak berak.

2. Europako Parlamentuan eta Kontseiluan 2009ko uztailaren 13an onartutako 2009/65/EE Zuzentarauak, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko organismo jakin batzuei buruzko lege, arau eta administrazio mailako xedapenak koordinatzen dituenak, erregulatzen dituen inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta daude entitate merkaturatzaileak edo horien akzioak merkaturatzeko ahalmena duten bitartekariak eta, horien ordez, baloreak kokatzeaz edo banatzeaz arduratzen den entitatea edo entitateak, betiere errenten ordainketan esku hartzen badute. Aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeak zergaren foru arauak 54. artikuluan jasotako desberdinak izan behar dira, eta Europar Batasuneko estaturen batean eratuak eta helbideratuak izan eta Baloreen Merkaturako Batzorde Nazionaleko erregistro berezian inskribatuta egon behar dira, Espainian egoiliar diren entitateek merkaturatze aldera.

3. Zergaren foru arauak hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan jasotako inbertsio kolektiboko organismoen kasuan salbu aurreko 2. ordinalean aipatutakoak, baloreak gordailatzen dituen edo horietatik eratorritako errenten kobrantza kudeatzeaz arduratzen den entitatea.

4. Aurreko paragrafoei jarraituz atxikipena edo konturako sarrera egitea derrigorrezkoa ez denean, ekarpenen itzulketa edo jaulkipen primaren banaketa jasotzen duen bazkidea egongo da behartuta konturako ordainketa bat egitera. Konturako ordainketa hori erregelamendu honek xedapen gehigarri honen ondorengo apartatuan eta 109. eta 113.1. artikuluetan jasotako araei jarraituz egingo da.

3. Xedapen gehigarri honen 1. apartatuan jasotako kasuetan, atxikipen oinarria zergaren foru aruari jarraituz kalkulaturako oinarri ezargarria izango da

XEDAPEN IRAGANKORRAK.

Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2011-05-30eko GAO), eta aldaketak 2011-01-01etik aurrera ditu ondorioak

Lehena. 1994ko abenduaren 31aren aurretik erositako elementuetatik eratorri diren eta jarduera ekonomiko bati lotuta egon diren ondare irabaziak.

Zergaren foru arauak 27. artikuluan jasotakoaren arabera eskualdatu aurretik jarduerarekiko lotura kendu zaien eta 1994ko abenduaren 31 baino lehen erosi diren ondare elementuak eskualdatzen direnean, ondare irabaziak murriztuko dira zergaren foru arauak lehen xedapen iragankorraren lehen apartatuan jasotakoaren arabera, elementu horien noiz erosi diren kontuan hartuz.

Dena den, aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko zergaren foru arauak lehen xedapen iragankorraren bigarren apartatuan aipatutako eskualdaketei.

Bigarrena.⁵³

Hirugarrena. Kapital higikorren etekinen gaineko atxikipenei eta ondare irabazien gainekoei buruz sartutako aldaketen erregimen iragankorra.

1. 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera formatizatutako eragiketei aplikatuko zaie etekin esplizituko aktibo finantzarioak eskualdatu, amortizatu edo itzultzean atxikitzeko betebeharra.

1999ko urtarrilaren 1aren aurretik jaulkitako aktibo finantzarioak eskualdatzean, erosketaren prezioa ez bada frogatzen, aktiboaren jaulkipen balioaren eta eskualdaketa prezioaren arteko diferentziaren gainean egingo da atxikipena.

Ez zaie atxikipenik egingo 1999ko urtarrilaren 1aren aurretik jaulkitako zor publikoko baloreak eskualdatu, trukatu edo amortizatzetik datozen etekinei, data horren aurretik atxikipenari lotuta ez bazeuden.

2. 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera likidazioen maiztasuna hamabi hilabetetik gorakoa izateagatik konturako sarrerak egin zaizkien etekin esplizituak jasotzen direnean, exijigarritasunaren momentuan indarrean dagoen tasa izango du behin betiko atxikipenak, eta egindako konturako sarreraren arabera erregularizatuko da.

Laugarrena. 329/2003 Dekretuak VI. kapituluaren jasotako xedapenen arabera eman diren laguntza publikoen salbuespena.

Salbuetsita daude 2003ko abenduaren 23ko 329/03 Dekretuak, lanerako laguntzak arautzen dituenak, VI. kapituluaren jasotakoaren arabera lana eta familia bateratzeko eman diren laguntzak.

Bosgarrena. 2006-2007 aldiko etorkizuneko kirolarientzako laguntza publikoen salbuespena.

⁵³ Xedapen iragankor hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUAREN xedapen indargabetzailearen 1. apartatuak indargabetu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua 2009ko abenduaren 30ean jarri da indarrean, nahiz eta aipatutako indargabetzeak 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izan (2009-12-30eko GAO).

Salbuetsita daude 2006ko abuztuaren 17ko 137/06 Foru Aginduak, 2006-2007 aldiko etorkizuneko kirolariak izendatzeko araudia onartzen duenak, jasotakoaren arabera izendatutako etorkizuneko kirolarientzako laguntzak.

Seigarrena. Aurreikuspen plan aseguratuen arteko mobilizazioak.

Aurreikuspen plan aseguratuen artean hornikuntza matematikoa mobilizatzeko erregelamendu honetako 63.3 artikulua indarrean jarri bitartean egindako eskaerak 2001eko abenduaren 18ko 68/01 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 56.3 artikuluan jasotakoaren arabera arautuko dira.

Zazpigarrena. 2007ko zergaldian langile lekualdatuen araubide bereziaren arabera tributatzea aukeratzeko epea.

2007ko zergaldirako soil-soilik, erregelamendu honen I. tituluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten langile lekualdatuek 2008ko martxoaren 31ra arteko epea izango dute 3.1 artikulua araubide berezia aplikatze aldera aurreikusten duen aukeraz baliatzeko.

Zortzigarrena. Bizitza edo elbarritasun alorreko banakako aseguru kontratuei aplikagarri zaien konpentsazio fiskala.⁵⁴

Bat. 2007. urteko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan zergadunek aurrezpenaren oinarri ezargarrian sartu badituzte kapital geroratu moduan jasotako diru kopuruengatik lortutako etekinak, hain zuzen ere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 39.1.a) artikuluan aipatuak, eta etekin horiek 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen kontratatu diren bizitza edo elbarritasun aseguruetatik badatoz eta abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean aipatzen dituen integrazio portzentajeak aplikatu bazaizkie (%60 eta %25 kasu batean, eta %25 bestean), zergadun horiek eskubidea izango dute xedapen honetan arautzen den kenkaria kuota osoan aplikatzeko.

Bi. Kenkariaren zenbatekoa ondoko eragiketaren diferentzia positiboa izango da: aurreko apartatuan aurreikusitako etekin garbiak elkarren artean integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboari %18ko karga tasa aplikatuta lortzen den kopurua ken etekin horiek aurreko apartatuko portzentajeak aplikatuta oinarri likidagarri orokorrean sartu izan balira aterako zen kuota osoaren zenbateko teorikoa.

Hiru. Ondoko hau izango da kuota osoaren zenbateko teorikoa, aurreko apartatuan aipatua:

a) Aurreko bat apartatuan aipatutako etekinak elkarren artean integratu eta konpentsatzen badira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako integrazio portzentajeak aplikatuta (2006ko

⁵⁴ Xedapen iragankor hau 2008ko martxoaren 4ko 7/2008 FORU DEKRETUko artikulua bakarrak gehitu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari bizitza edo elbarritasuneko banakako aseguru kontratuei konpentsazio fiskala aplikatzeko mekanismoa onartzen du (2008-03-11ko GAO). Xedapena argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatzen zaie.

zergaldiari aplikagarri zitzaion testuaren arabera), eta horrek saldo negatiboa edo zero saldoa ematen badu, kuota osoaren zenbateko teorikoa zero izango da.

b) Aurreko bat apartatuan adierazitako etekinak elkarren artean integratu eta konpentsatzen badira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako integrazio portzentajeak aplikatuta (2006ko zergaldiari aplikagarri zitzaion testuaren arabera), eta horrek saldo positiboa ematen badu, kuota osoaren zenbateko teorikoa ondoko eragiketaren diferentzia positiboa izango da: oinarri likidagarri orokorraren eta lehen adierazitako saldo positiboaren baturari 10/2006 Foru Arauaren 77.1 artikuluan xedatutakoa aplikatu ondoren ateratzen den kuota ken oinarri likidagarri orokorrari artikuluko horretan esandakoa aplikatuta ateratzen dena.

Lau. Aurreko hirugarren apartatuan aipatutako saldoa kalkulatzeko, 2006ko abenduaren 31ra arte ordaindutako primei dagokien etekin garbiaren zatia bakarrik aplikatuko zaizkio 8/1998 Foru Arauaren 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean jasota dauden integrazio portzentajeak. Hala ere, data horren ondoren ordaindutako primei ere aplikatuko zaizkie aseguru kontratuaren jatorrizko polizan aurreikusitako prima arruntak direnean.

Kapital geroratuko aseguru polizaren prima bakoitzari lortutako etekin osoan zenbateko etekina dagokion kalkulatzeko, etekin osoa ondoko zatiketarik ateratzen den ponderazio koefizientearekin biderkatuko da:

- Zatikizunean, prima ordaindu zenetik diru kopurua kobratu arte igarotako urte kopurua primarekin biderkatuz ateratzen den emaitza jarriko da.

- Zatitzailean, prima ordaindu zenetik diru kopurua kobratu arte igarotako urte kopurua prima bakoitzarekin biderkatuz ateratzen diren biderkaduren batura jarriko da.

Bost. Aseguru entitateak zergadunari jakinarazi behar dio zenbateko etekin garbiak izan dituen, prima bakoitzeko, bizitza edo elbarritasun aseguruetatik eratorrita kapital geroratu moduan jasotako diru kopuruengatik. Etekin horiek aurreko apartatuan xedatutakoari jarraikiz kalkulatu dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 38.2.b) artikuluan eta bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusten dituen integrazio portzentajeak aplikatuta.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak onartzen duen erregelamenduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *2008ko martxoaren 4ko 7/2008 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan bizitza edo elbarritasuneko banakako aseguru kontratuei konpentsazio fiskala aplikatzeko mekanismoa onartzen duena (2008-03-11ko GAO).*
 - Artikulu bakarrak xedapen iragankor zortzigarrena gehitzen du, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatzen zaie.
- *Maiatzaren 27ko 43/2008 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duena lan etekinen konturako ordainketei eta jarduera ekonomikoetako ordainketa zatikatuei dagokienez (2008-05-28ko GAO).*
 - 1. artikulua 106. artikularen 1 eta 4 apartatuak aldatzen ditu.
 - 3. artikulua 126. artikularen 1. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen du.
 - 2. artikulua 131 bis artikulua gehitzen du.
- *Abenduaren 23ko 84/2008 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta zerga horren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2009an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituena (2008-12-31ko GAO).*
 - Artikulu bakarrak 1. artikularen 4. apartatua, 13. artikularen A letrako 3. apartatuaren a) letra, 95. artikularen 4. apartatua eta 106. artikularen 1. eta 4. apartatuak aldatu ditu.
- *Ekainaren 16ko 20/2009 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena aldatzen dituena (2009-06-23ko GAO).*
 - 1. artikularen lehenengo apartatuak 12. artikularen 1. apartatua aldatu du.
 - 1. artikularen bigarren apartatuak 14. artikularen 1. apartatuko f) letra aldatu du.
 - 1. artikularen hirugarren apartatuak 16. artikulua aldatu du.
 - 1. artikularen laugarren apartatuak 69. artikularen 1. apartatuko bigarren paragrafoa aldatu du.
 - 1. artikularen bosgarren apartatuak 77. artikulua aldatu du.

- 1. artikulua 80. artikulua 2. apartatua aldatu du.
 - 1. artikulua 112. artikulua 6. apartatua gehitu dio.
 - 1. artikulua 122. artikulua aldatu du.
- *Abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituena (2009-12-30ko GAO).*
 - 1. artikulua Lehena ordinalak hurrengo aldaketak onartu ditu 2009-12-31etik aurrerako ondorioekin:
 - Bat apartatua 12. artikulua 1. apartatua s) eta t) letrak gehitu dizkio.
 - Bi apartatua 42. artikulua e) letrari edukia kendu eta berriro izendatu dira f) eta l) letren arteko gastuak, e), f), g) eta h) letrak bihurtu direnak.
 - Hiru apartatua 48 artikulua aldatu du.
 - Lau apartatua 68. artikulua aldatu du.
 - Bost apartatua 95. artikulua 4. apartatuaren b) letra aldatu du.
 - 1. artikulua Bigarrena ordinalak hurrengo aldaketak onartu ditu 2010-12-31etik aurrerako ondorioekin:
 - Bat apartatua 106. artikulua 1. eta 4. apartatua aldatu ditu.
 - Bi apartatua 109. artikulua aldatu du.
 - Hiru apartatua 115. artikulua aldatu du.
 - Lau apartatua 118. artikulua aldatu du.
 - Bost apartatua 119. artikulua aldatu du.
 - Sei apartatua 120. artikulua 2. apartatua aldatu du.
 - 1. artikulua Hirugarrena ordinalak 131 bis artikulua aldatu du 2010 eta 2011 zergaldietarako ondorioekin.
 - Xedapen indargabetzailearen 1. apartatua bigarren xedapen iragankorra indargabetu du 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
 - *12/2010 FORU DEKRETUA, maiatzaren 18koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen dituena. (2010-05-21eko GAO).*
 - 1. artikulua 12. artikulua 1. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatu du eta u) eta v) letrak gehitu dizkio aipatutako apartatuari.

- *Azaroaren 23ko 32/2010 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen dituena. (2010-12-01eko GAO).*
 - 1. artikulua ondorengo aldaketak egin ditu:
 - Bat apartatuak 12. artikularen 1 apartatuaren g) letra aldatu du.
 - Bi apartatuak 69. artikularen 1 apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatu du.
 - Hiru apartatuak 100. artikularen l) letra aldatu du.
 - Lau apartatuak hirugarren xedapen gehigarria aldatu du.

- *39/2010 FORU DEKRETUA, Abenduaren 23koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituena (2010-12-29ko GAO)*
 - 1. artikulua ondorengo aldaketak egin ditu:
 - Bat apartatuak 12. artikularen 1 apartatuaren h) letra aldatu du.
 - Bi apartatuak 38. artikularen 1 apartatua aldatu du.
 - Hiru apartatuak 57.2 artikularen 1 apartatua aldatu du.
 - Lau apartatuak 62. artikulua aldatu du.
 - Bost apartatuak 100. artikularen m) letra gehitu du.
 - Sei apartatuak 106. artikularen 1 eta 4 apartatuak aldatu ditu.

- *15/2011 FORU DEKRETUA, maiatzaren 24koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen dituena (2010-12-29ko GAO)*
 - 1. artikulua ondorengo aldaketak egin ditu:
 - Bat apartatuak 12. artikularen 1 apartatuaren e) letra aldatu du.
 - Bi apartatuak 12. artikularen 1 apartatua w) letra gehitu du.
 - Hiru apartatuak 12. artikularen 1 apartatua x) letra gehitu du.

- Lau apartatuak 20. artikulua aldatu du.
- Bost apartatuak 67. artikularen 2. apartatua aldatu du eta 3. apartatua gehitu du.
- Sei apartatuak 70. artikularen 5. apartatua aldatu du.
- Zazpi apartatuak xedapen gehigarri bat erantsi du, bosgarrena.